

The background of the book cover is a detailed illustration of lush green foliage. It features various types of leaves, including broad, rounded ones and long, pointed ones, creating a dense and textured appearance. The colors range from light green to dark, almost blackish-green, suggesting depth and shadow within the plants.

itzulpena: Josu Zabaleta

Adan baino lehen

Jack London

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JACK LONDON

Adan baino lehen

itzulpena: Josu Zabaleta

“Horiek ditugu gure arbasoak, eta horien historia gure historia da. Gogoratu egun batean zuhaitzetatik jaitsi eta zutik ibiltzen hasi ginela bezain gauza segurua dela hori baino ere lehenago itsasotik kanpora arrastaka atera eta gure lehorreko lehenengo abentura hasi genuela”.

I. KAPITULUA

Irudiak! Irudiak! Eta irudiak! Askotan pentsatu izan dut, ikasi baino lehen, nondik ote zetozkidan nire ametsak gainezka betetzen zizkidaten irudi haiek guztiak; iratzarrita inoiz ez bainuen ikusi halakorik. Haurtzaroa torturatu zidaten; gauak amets gaiztozko prozesioak bihurtu zizkidaten; eta haiek konbentzitu ninduten, handik gutxira, nire kidekoak ez bezalakoa nintzela ni, naturaz kanpoko sorkari madarikatua.

Egunez baizik ez nuen lortzen poz pixka bat. Gauak izumenezko erreinua esan nahi zuen; nolako izua, gainera! Esango nuke, ausaz, lur hau zapaltzen duten gizonetatik, ez duela batek ere inoiz sufritu nirearen gisako eta neurriko izurik. Aspaldiko izua baita nirea, Mundu Sortuberrian, Mundu Sortuberriaren sortuberrian alde guztietan zabaldua zegoen izua. Erdi Pleistozeno deitzen dugun garai hartan nagusi zen izu hura, labur esateko.

Zer nahi dut esan horrekin? Ikusten dut azalpenak behar direla nire ametsen mamia kontatu baino lehen. Bestela ez zenukete askorik ulertuko nik hain ongi ezagutzen ditudan gauza hauen esanahia. Hauxe idazten ari naizenean ere fantasmagoria zabal batean jaikitzen zaizkit aurrean beste mundu hartako izaki eta gertaera guztiak, eta badakit loturarik eta zentzurik gabeak irudituko litzaizkizuekeela.

Zer irudituko litzaizueke, bada, Belarri Makurren adiskidetasuna, Zaluren erakarmen beroa edo Begi Goriren lizunkeria eta atabismoa? Zentzugabekeria nabarmena, besterik ez. Eta zentzugabekeria nabarmena Suaren Gizonen eta Zuhaitzetako Gizonen ekintzak eta gure taldearen batzar ulertezinak ere. Ez baitituzue ezagutzen labarretako haitzulo hotzetako bakea edo ilunabarrean edalekuetan egiten ziren korroak. Ez duzue inoiz sentitu goizeko haizearen hozkada zuhaitz-buruetan, eta ez duzue gozatu azal berri gozoaren dasta ahoan.

Historia honetara, ni bezala, nire haurtzarotik hasita sartzea izango duzue onena, nik uste. Mutikotan, gainerako mutikoak bezalaxoa nintzen, itzar-orduetan. Lotan nengoenean izaten nintzen bestelakoa. Gogoratzen naizenez gero behintzat, izualdi bat izaten zen nire loaldia. Gutxitan tindatzen ziren pozez nire ametsak. Normalean beldurrez eginak izaten ziren, hain beldur bitxi eta eroz non ez bainuen ezer alderatzekorik. Nire iratzar-bizitzako izuek ez zuten lotan nengoenean nagusitzen zitzaizkidanen inolako antzik. Nire esperientzia guztien bestelakoak ziren moduz eta izaeraz.

Ni, esate baterako, hiriko mutikoa nintzen, kalekumea; mendia leku esploratu gabe bat zen niretzat. Hiriez, ordea, inoiz ez nuen ametsik egiten; sekula ez zitzaidan etxerik agertu ametsetan. Ezta gizakirik ere, ez zen azaldu nire ametsetan, loaren horma hautsirik. Zuhaitzak parkeetan eta liburu irudidunetan besterik ikusi gabea nintzena, oihan amaigabeetan hara-hona ibiltzen nintzen nire loaldian. Areago, ametsetako zuhaitz horiek ez ziren nire ikusmenaren orban lauso soilak zehatzak eta erreparagarriak baizik. Intimitatezko lotura bat nuen haiekin. Banan-banan ikusten nituen haien adar eta adaxka guzti-guztiak; haien hosto guzti-guztiak ikusten eta bereizten nituen.

Oso gogoan dut haritza nire iratzar-bizitzan ikusi nuen lehenengo aldia. Haren hostoak, adarrak, adabegiak ikusi nituenean, intentsitate larri batez sentitu nuen ezin konta ahala bider ikusi nuela zuhaitz mota hura lehenago ametsetan. Ez nintzen harritu, hortaz, geroago, izeia, hagina, urkia, ereinotza eta gisako zuhaitzak lehen ikusian ezagutu nituenean. Lehendik ikusiak nituen eta gauero ikusten nituen, oraindik ere, lotan nengoenean.

Honez gero ulertu izango duzue, ametsaren lehen legea hausten du horrek guztiak: alegia, lehendik esnaturik ikusia edo esnaturik ikusitakoen konbinaketak besterik ez direla ikusten ametsetan. Baina nire amets guztiek hausten zuten lege hori. Ametsetan inoiz ere ez nuen

ikusten esnatuta ezagututako gauzarik. Nire lotako bizitza eta iratzarritako bizitza bi bizitza ziren, bereziak, beren artean ni beste loturarik ez zutenak. Ni nintzen bi bizitza haiek nolabait bizi izan zituen lotura.

Ume-umetatik ikasi nuen intxaurrak dendariarenetik zetoze, eta fruituak fruituzalearenetik; baina hori dena jakin baino lehen bilduak nituen nik intxaur haiek zuhaitzetatik ametsetan, edo zuhaizpean lurretik jaso eta janak, eta berdin zuhaixka eta sasietako fruitu-aleak ere. Nire esperientzia oroz haragokoa zen hori dena.

Ez dut inoiz ahaztuko ahabiak mahaira aterata lehendabiziko aldiz ikusi nituenekoa. Ordu arte inoiz ikusi gabeak nituen, eta hala eta guztiz ere, haiek ikusita, istingadi-parajeetan zehar ase arte ibili ohi nintzeneko amets-gomutazioak etorri zitzaizkidan bat-batean gogora. Amak plater bete ahabia jarri zidan aurrean. Koilara bete nuen, baina ahora eraman baino lehen banekien zeren dasta izango zuten. Eta ez nuen huts egin. Ametsetan mila aldiz dastatutako dasta sarkor berbera zuten.

Sugeak? Bazirenik entzun baino askoz lehenagotik izutzen ninduten lotan nengoenean. Basoko argiunetan zelatzen ninduten; nire oinen azpitik erasoan jauzi egiten zidaten; belar iharretan edo harkaitz gorrien artetik herrestan ihes egiten zuten; edo zuhaitz-buruetaraino jarraitzen zidaten beren gorputz distiratsuez enborrak inguratuz, ni gora eta gora, geroz eta urrunago joanaraziz, adar zabukari eta hauskorretaraino, lurra distantzia zorabiagarri batera nueneraino. Sugeak!... beren mihizto bikoitzarekin, beren begi biribil eta ezkata distiratsuekin, beren ziztu eta txintxirrin-hotsarekin... Ez al nituen bada, ongitxo ere ezagutzen zirkuan suge enkantatzaileak nola zutiarazten zituen ikusi baino lehen?

Aspaldiko lagunak nituen, edo gauak izuz betetzen zizkidaten etsai aspergaitzak, hobeto esanda.

Oi oihan ilun amaigabe haiek, beren iluntasun izugarriarekin! Zenbat eternitatez ez ote naizen ibili haietan hara-hona, kreatura ehizatu izua, hotsik txikienak ere beldurtua, neure itzalak ere ikaratua, urduri, beti alerta eta erne, edozein unetan ere ziztu bizian ihes egiteko prest, bizirik iraungo banuen! Oihanetan bizi ziren izaki anker guztien harrapakina bainintzen, eta izumenezko estasi batean egiten nien ihes munstro ehiztari haiei.

Bost urte nituela joan nintzen lehendabizikoz zirkora. Gaixorik etxeratu nintzen handik; baina ez kakahueteengatik eta limonadarengatik. Esango dizuet zergatik. Piztiak zeuden dendan sartu ginenean, orro latz batek urratu zuen airea. Aitaren eskutik askatu eta eroaren moduan jo nuen sarrerarantz. Jendearekin estropezu egin eta erori egiten nintzen; izuak oihuka nengoen denbora guztian. Aitak jaso eta lasaitu ninduen. Jende pila erakutsi zidan, orro haiengatik lasai, eta seguru geundela adieraziz animatzen ninduen.

Hala eta guztiz ere, beldurrez eta ikaraz, eta aitak asko animatu ondoren, ondoratu nintzen azkenik lehoiaren kaiolara. Oi, bai agudo ezagutu ere. Piztia! Piztia izugarria hura! Eta nire barneko ikuspenean dizdizka hasi zitzaizkidan ametsen oroitzapenak: eguerdiko eguzkia belar altuen gainean distiraz, basazezena larrean lasai, larru horizontazko piztiaren jauzi bizkorak eragindako belar zabaltze bizkorra, zezenaren bizkarrera jauzia, kolpea eta marrua, eta hezur hautsien karraska; beste batzuetan, edalekuko atsedean freskoa, basazaldia uretan belaunetaraino sartuta astiro edaten, eta gero, larru horizontazko piztia –piztia horia beti–, jauzia, zaldiaren irrintzia eta zipriztinak eta hezur hautsien karraska; edo beste batzuetan, ilunabar goibela eta egunaren bukaerako isiltasun hitsa eta orduan eztarri beteko bat-bateko orroa, azken juizioko tronpeta bailitzan, eta haren ondoren garrasi eta berriketa eroak zuhaitzen artean eta ni ere, beldurra ikaraz, zuhaitz artean garrasika eta oihuka ari zirenen artean.

Kaiolako barroteen atzean ezintasun hartan ikusi nuenean, amorruek hartu ninduen. Hortzak estuturik erakutsi nizkion, jauzika egin nion dantza, irain itxuragabez egin nion garrasi, imintzio barregarriak eginez. Barroteen kontra jauzika eta ezintasunezko orroak eginez erantzun zidan. Ai, ezagutu egin ninduen hark ere, egin nizkion oihuak antzinakoak ziren eta ulertu egiten zituen.

Gurasoak ikaratu egin ziren. “Haur hau gaixorik dago”, esaten zuen amak. “Histeriko hutsa da”, aitak. Ez nien inoiz esan eta ez zuten jakin. Ikasita nengoen nire bikoiztasunari buruz, arrazoiz deitu uste dudan nire nortasun erdibikoiztu honi buruz, isilik egoten.

Suge-xarmatzailea ikusi nuen, eta han bukatu ziren gau hartako nire zirkoak. Urduri, jota, nire ametsetako bizitza hura nire benetako bizitzan sartu zitzaidalako gaixoturik eraman ninduten etxera.

Isiltzen ikasi, esan dut. Behin bakarrik aipatu nuen inoren aurrean nire bitxitasuna. Mutiko bat zen, nire laguna; zortzi urte genituen. Nire ametsez baliatuz, inoiz bizi izan nintzela seguru uste nuen mundu galdu hartako eszenak berritu nizkion. Antzinako garai haietako izuak kontatu nizkion, Belarri Makur eta egiten genituen bihurrikeriak, gure bilera iskanbilatsuak, Suaren Gizonak eta haien gordelekuak.

Barre egin zidan, irainka, eta fantasma-ipuina eta gauetz dabiltzan hildakoenak kontatu zizkidan. Irudimen eroagatik egin zidan barre, batez ere. Gauza gehiago kontatu nion, eta barre gehiago egin zidan. Zin egin nion, zintzotasun guztiaz, egia zela dena, eta modu bitxi batean hasi zitzaidan begiratzen. Istorio nahasi harrigarriak kontatu zizkien lagunei nik kontatutakoez, denak modu bitxian begiratzen hasi zitzaizkidan arte.

Esperientzia garratza izan zen, baina ikasi nuen. Nire kidekoen desberdina nintzen. Berezia nintzen; haiek ulertu ezin zuten eta esateak gaizkiulertuak baizik ekarriko ez zituen zerbait neukan. Fantasmak eta iratxoak istorioak ateratzen zirenean, isilik egoten nintzen. Irribarre mingots bat egiten nuen neure baitarako. Nire izumenezko gauak gogoratzen nituen eta banekien benetakoak zirela, bizitza bera bezain benetakoak, eta ez ke zehazgabeak eta itzal lausoak.

Mozorro beltzak eta ogro gaiztoak ez zitzaizkidan beldurgarriak iruditzen. Adar hostotsuen artetik erortzea, eta zoramenezko altuerak; lasterka ihesian edo jauzika nindoala erasotzen zidaten sugeak; ordekan oihaneraino atzetik jarraika etortzen zitzaizkidan zakur basatiak; horiek ziren nire izu zehatz eta benetakoak, gertakariak eta ez irudipen hutsak, haragi bizi, izerdi eta odolezkoak. Ogroak eta mozorro beltzak ohaide atseginak izango lirake, nire haurtzaro osoan ohean nirekin etzaten ziren eta, oraintxe bertan ere, urtez beteta, hauxe idazten ari naizenean, nirekin oheratzen diren beste izumen haien aldean.

II. KAPITULUA

Esan dut gizaki bat ez nuela behin ere ikusi nire ametsetan. Berehalaxe ohartu nintzen horretaz, eta tristura ematen zidan nire kidekorik ez izateak. Haurra nintzelarik ere banuen sentipena nire ametsetako izumenean gizaki bat bakarra aurkitu izan banu, bat bakarra, salbu nintzatekeela amets haietatik eta ez nintzatekeela ibiliko gehiago izugarrikeria obsesionagarri haiek inguraturik. Urte askotan obsesionatu ninduen gauero pentsakizun horrek: aurki ahal baneza gizaki bakar hura, eta salbatu!

Berriro diot ametsetan izaten nuela pentsakizun hori, eta horretantxe ikusten dut, hain zuzen, nire nortasun bien bateragune baten froga, nire bi parte banakatuek elkar ukitzen duten puntu bat badelako froga. Ametsetako nire nortasuna aspaldiko garaietan bizi izan zen, gizakia, gaur ezagutzen dugun bezala behintzat, hasi baino lehen; eta nire beste nortasuna, eguneroko bizitzakoa, nire ametsen mamian txertatzen zen, giza bizitzaz jakin daitekeen neurrian.

Psikologo ikasiei okerra irudituko zaie, beharbada, “nortasun bikoiztua” esapidea erabiltzen dudana bezala erabiltzea. Badakit zer zentzutan erabiltzen duten, baina nire gisara erabiltzera beharturik nago, adierazteko modu hoberik ezean. Errua hizkuntzaren zehazgabetasunari egotziz zurituko dut nire burua. Gatozen orain hitz horiek, zuzen ala oker, zertarako erabiltzen ditudan azaltzera.

Artean gazte nintzela unibertsitatean joan nintzenean lortu nuen jakitea zein zen nire ametsen benetako giltzarria eta zerk eragiten zizkidan amets haiek. Ordu arte ez zuten esanahirik, ez izateko arrazoirik ere, itxuraz. Baina unibertsitatean eboluzioa eta psikologia ezagutu nituen eta ohiz kanpoko zenbait adimen-egoeraren eta esperientziaren esplikazioa ikasi nuen. Airetan behera erortzearen ametsa, esate baterako, ametsetako esperientziarik ohikoena, ia gizaki guztiok ezagutzen dugu, geuk izanda.

Arrazaren oroitzapena zela esan zidan irakasleak. Zuhaitzetan bizi ziren gure antzinako asabengandik omen datorkigu. Zuhaitzetan bizi zirenez, beti zuten erortzeko arriskua. Askok galdu zuten bizia era horretan; denek jasan izango zituzten sekulako erorikoak, eta erortzean adarre helduz salbatu.

Horrela bizirik irtendako eroriko ikaragarri horiek nahitaez eragingo zuten kolperen bat. Eta kolpeak aldaketa molekularrak eragingo zituen garuneko zeluletan. Molekulen aldaketa horiek seme-alaben garuneko zeluletara igaroko ziren, eta azkenean arrazaren oroitzapen bilakatu. Hala, zu eta ni, lotan edo erdilotan, airean zehar erori eta lurra jotzear gauden une-unean ondoezik esnatzen garenean, gure zuhaitzetako asabei gertatu eta garun-aldaketek arrazaren herentzian grabaturik utzi zutena gogoratu baizik ez dugu egiten.

Horrek ez du ezer harrizkorik, instintuak ezer harrizkorik ez duen bezala. Gure herentziaren materialean grabatutako ohitura besterik ez da instintua. Gogoratu beharra dago, bidenabar, zuretzat, niretzat eta denontzat hain arrunta den erorikoaren amets horretan ez dugula lurra behin ere jotzen. Lurra jotzeak hiltzea esan nahi zuen. Erorita lurra jo zuten gure zuhaitzetako asabak bertan hilko ziren. Erorikoaren kolpea komunikatuko zen

garuneko zeluletara, jakina; baina segituan hilko ziren, ondorengorik utzi gabe. Gu, berriz, lurra jo ez zutenen ondorengoak gara; horregatik ez dugu zuk eta nik lurra jotzen gure ametsetan.

Eta gatozen nortasunaren bikoiztasunera. Esnaturik gaudenean, ez dugu inoiz erortzearen sentsazio hori izaten. Itzartuta gauden aldiko nortasunak ez du horren esperientziarik. Horrela bada –eta argudioak hemen ez du ahulgunerik– izan behar du inondik ere bestelako nortasun bat, lotan gaudenean erortzen dena eta inoiz halako erorikoaren esperientzia izan duena, labur esateko, antzinako garaietako esperientziak gogoan dituen, gure iratzarraldiko nortasunak gure iratzarraldiko esperientzien oroitzapena duen bezalaxe.

Nire arrazoibidearen puntu horretara iritsi nintzenean hasi nintzen gauzak argi ikusten. Eta berehalaxe argitasun liluragarri batez argitu eta azaldu zitzaidan, ordura arte nire ametsetan ezagungaitz, esplikaezin, naturaz kontrako eta ezinezkoa izandakoa. Lotan nengoenean nire baitan ez zuen agintzen nire iratzarraldiko nortasunak: bestelako nortasun bat zen, esperientzia-ondare guztiz desberdin eta berri zuena, eta amets egiten nuenean, guztiz esperientzia desberdin haien oroitzapena zuena.

Zer zen nortasun hori? Noiz bizi izan zuen horrek benetan iratzarraldiko bizitza planeta honetan, esperientzia bitxi haiek guztiak biltzeko? Nire ametsek berek erantzun zieten galdera horiei. Antzina-antzinako garaietan bizi izan zen, mundua artean gaztea zenean, Erdi Pleistozeno deitzen dugun garaian. Zuhaitzetatik erori zen, baina ez zuen lurra jo. Beldurrez murduskatzen zuen, lehoiaren orroa entzunda. Piztia harrapariak pertsegitzen zuten eta suge hilgarriek izutzen. Erasia batean aritzen zen bileretan bere kideekin, eta tratu gogorra jasaten zuen Suaren Gizonen eskuartean, haiengandik ihesi zebilen egunetan.

Baina entzuten dizuet kontrako argudioa: “Nola ez ditugu guk ere arrazaren oroitzapen horiek, geuk ere lotan gaudenean airean erortzen ari den beste nortasun hori badugunez, lausoki bada ere?”

Beste galdera batez erantzungo dizuet: “Nola litezke bi buruko bigantxak?”. Neuk erantzungo dizuet: munstroak direlako. Eta horixe bera zuen galderari ere. Ni ere munstroa naizelako dut beste nortasun hori eta arrazaren memoria oso hori.

Ea gehiago zehazten dudana.

Izaten dugun arrazaren memoriarik ohikoena airean beherako erorikoaren ametsa da. Beste nortasun hori oso lausoa da. Erorikoarena du ia oroitzapen bakarra. Baina gutako askok oso argia eta zehatza dugu beste nortasun hori. Askok dugu hegan egitearen ametsa, munstroek pertsegitzen gaituztelako ametsa, kolorezko ametsak, arnasa estutzen zaigulako ametsa, sugeen eta piztien ametsak. Labur esateko, beste nortasun hori gu guztiongan aztarna bat baizik ez da, batzuegan ia ahaztua; baina beste batzuegan erneagoa da. Batzuek arrazaren oroitzapen biziagoa eta osoagoa dugu beste batzuek baino.

Beste nortasun hori zenbateraino edukitzen den da kontua. Nik sekulako maila handian daukat. Nire beste nortasun hori ia neure nortasuna bezain ahaltsua dut. Horretan munstro bat naiz, herentziaren munstro bat.

Konbentzituta nago beste nortasun hori izateak –baina ez nirea bezain indartsu– eragin diela beste batzuei birjaiotze pertsonalean sinestea. Horientzat sinesgarria da hori, konbentzitzen

dituen hipotesi bat da. Beren begiez inoiz ikusi ez dituzten eszenen ikuspenak edo antzinako gertakari eta jazoeren oroitzapenak dituztenean, lehenago noizbait bizi izan direla uste izatea da esplikaziorik errazena.

Baina oker egiten dute beren nortasun bikoitza kontuan ez hartuz. Ez dute aitortzen beren beste nortasuna. Beren nortasuna dela uste dute, nortasun bat besterik ez dutela; eta abiapuntu horretatik abiatuz gero, lehen beste bizitza batzuk izan dituztela atera behar dute ondorioztat.

Baina oker daude. Ez da birjaiotzea. Nik baditut ametsak neure burua Mundu Sortuberri hartako oihanetan zehar ikusten dudanak; baina ez dut neure burua ikusten benetan, nire partetxo bat baizik ez den beste bat baino, aita eta aitona bezalaxe, hauek hura bezain urrunak ez baditut ere. Nire baitako beste ni hura asaba bat da, nire jatorriko enbor zuzenean nire arbasoen arbaso, bera ere bere garaia baino askoz lehenago behatzak sortu eta zuhaitzetara igo zen beste leinu baten oinordekoa den bezala.

Eta berriro errepikatu behar dut, aspergarri bihurtuko banaiz ere, horretan munstroztat hartzekoa naizela ni. Arrazaren memoria aparteko maila batean edukitzeaz gainera, urrutitiko arbaso jakin batena baitut, gainera. Horregatik, hori oso ezohikoa bada ere, ez duzue bereziki zertan harriturik.

Jarraitu nire arrazoibideari. Instintua arrazaren memoria da. Ederki. Beraz, zuk edo nik edo guk guztiok jasotzen dugu gurasoengandik oroitzapen hori, haiek beraienengandik jaso zuten bezalaxe. Izan behar du, beraz, bitartekoren bat oroitzapen horiek belaunaldiz belaunaldi igaro daitezen. Weismann-ek "germoplasma" deitzen duena da bitarteko hori. Arrazaren bilakaera osoaren oroitzapenak gordetzen ditu. Oroitzapen horiek lausoak eta nahasiak izan ohi dira, eta galdu egin dira asko. Baina germoplasma mota batzuek gehiegizko oroitzapen-karga izan ohi dute; zientzia-hitzetan mintzatzeko, atabikoagoak dira besteak baino; eta horietakoa da nirea. Ni herentziaren munstro bat naiz, amesgaizto atabiko bat, nahi duzuen bezala deitu; baina hemen nauzue, benetakoa eta bizirik, egunean hiru otordu oparo janez; zer egingo diogu, bada?

Eta orain, nire kondairari ekin baino lehen, aurre hartu behar diet psikologian, irain egiteko beti prest, diren Santo Tomas zalantzati guztiei, seguru bainago esango dutela eboluzioaz dudak jakintza nire ametsetan proiektatzen dudalako dutela amets horiek koherentzia hori. Lehenik eta behin, ni ez naiz sekula ikasle ona izan. Eskolan azkenekoa nintzen. Ikasi baino nahiago izaten nuen atletismoa, eta, zergatik ez esan, baita billar-jokoak ere.

Eboluzioaren berri unibertsitatera joan arte ez nuen izan, gainera; beste aspaldiko bizitza haren xehetasun guztiak, berriz, haurtzaroko eta gaztaroko ametsetan ere ikusiak nituen. Esan beharra dut, nolahi ere, xehetasun horiek nahasian eta koherentziarik gabe neuzkala, eboluzioaren zientzia ezagutu nuen arte. Eboluzioa zen giltza. Hark azaldu zidan zergatia; hark eman zien zentzua, modernoa eta oraingoa izanda ere, gizadiaren hasiera-hasierako garaietako oihartzunak entzuten zituen nire garun atabiko honen bitxikeriei.

Zeren eta ezagutzen dudak antzinako garai hartan ez baitzen gizonik, gaur ikusten dugun bezala behintzat. Gizakiaren hasierako garai horretan sortu eta bizi izana naiz, inondik ere.

III. KAPITULUA

Nire lehen haurtzaroko ametsetan arruntena honelako zerbait izaten zen: oso txikia nintzela eta adaska eta hostozko habia gisako batean kuzkurtuta nengoela iruditzen zitzaidan. Batzuetan ahozgora egoten nintzen etzanda. Ordu luzeak egiten nituen, nonbait, horrela eguzkiaren argiak hostoetan egiten zituen jokoei begira eta haizeak hostoak nola astintzen zituen ikusten. Askotan, haizeak gogor jotzen zuenean, habia bera ibiltzen zen hara eta hona. Baina habian horrela etzanda nengoenean, azpiko espazio ikaragarri hark izututa egoten nintzen. Ez nuen inoiz ikusten, inoiz ez nintzen habia ertzeraino ateratzen begiratzera; baina banekien eta beldurra nion azpian zelatan eta munstro gose baten ahoa bailitzan beti mehatxuz neukan espazio hari.

Haurtzaroan askotan izan nuen ni geldirik egoten nintzen amets hori; ekintza bat baino egoera bat izaten zen areago. Bat-batean, ordea, oldeka sartzen zitzaizkidan amets horren erdian forma bitxiak, gertaera lazgarriak, trumoia eta ekaitzaren eztanda, edota iratzaririk nengoenean inoiz ikusi ez bezalako parajeak. Nahasmendua eta amesgaiztoa izaten zen ondorioa. Ez nuen ezer ulertzen. Ez zuen lotura logikorik.

Ikusten duzue, ez nuen segida baten arabera amets egiten. Mundu Sortuberriko ume gorri bat nintzen une batean, zuhaitzeko habian etzanik; hurrengoan Mundu Sortuberriko gizon heldua, Begi Gori izugarriarekin borroka estuan loturik; hurrengoan eguerdiko bero galdatan kontu handiz nindoan herrestan edalekurantz. Minutu edo segundo gutxitan pilatzen zitzaizkidan nire baitan bat gertatzetik bestea gertatzera urteak joandako Mundu Sortuberriko gertaerak.

Nahaste-borraste bat zen, baina ez dizuet nahaste-borraste hura pairaraziko. Gizon gaztea egin eta milaka bider amets egin ondoren hasi ziren gauzak ordenatzen, argi eta garbi agertzen. Orduan aurkitu nuen denboraren giltza eta orduan hasi nintzen gertaerak eta ekintzak zegokien ordenan kokatzen. Horrela berreraiki ahal izan nuen Mundu Sortuberri desagertu hura hartan bizi nintzen bezala, edo nire beste ni hori hartan bizi zen bezala. Bereizkuntzak ez dio axola; zeren nik ere, gizaki moderno honek, atzera jo eta, nire beste nia lagun, bizi izan baitut bizitza primitibo hura.

Errazago gerta dakizuen, hau soziologiako txosten bat ez denez, istorio ulergarri batean antolatuko dizkizuet gertaerak. Zeren eta bada halako jarraitasun-hari bat amets horiek guztiak kateatzen dituen. Horra, esate baterako, Belarri Makurrekin nuen adiskidetasuna. Edo Begi Gorirekiko aiherkundera, Zaluren maitasuna. Horiek guztiak batuz, konbentzituta nago osa daitekeela ados egongo zaretan historia bat.

Amaz ez naiz askorik gogoratzen. Hartaz dudan lehen oroitzapena agian, eta biziarena dudarik gabe, hau dut beharbada: badirudi lurrean etzanda nengoela. Habiako egunetan baino hazixeagoa nintzen; baina lagundu beharrekoa artean. Orbeletan itzulipurdika ari nintzen, hostoekin jolasean, eztarriaz intziriak eta urrumak eginez. Eguzkiak berotu egiten zuen, eta pozik eta gustura nenbilen. Basoko soilgunetxo batean nengoen. Inguruan sastrakak eta

garoaren antzeko landareak zeuden alde guztietan, eta gainetik eta inguru guztian basoko zuhaitzen gerriak eta adarrak.

Horretan, non entzuten dudan hots bat. Zutitu eta entzuten geratu nintzen. Mugitu gabe. Marmartxoak eztarrian ito zitzaizkidan, eta eserita geratu nintzen, harri eginda. Hotsa hurbiltzen ari zen. Zerriaren kurrinka zirudien. Gorputz batek sasi artean mugitzean egiten zuen zarata entzuten hasi nintzen. Ondoren gorputz hark eraginik garoa mugitzen ikusi nuen. Garoa zabaldu zen eta begi distiratsu batzuk, mutur luze bat eta letagin zuriak ikusi nituen. Basurdea zen. Jakinguraz begiratzen zidan. Kurrinka pare bat hiru bat egin eta hanka batetik bestera aldatu zuen gorputzaren pisua, aldi berean burua alde batetik bestera mugituz eta garoa astinduz. Nik harri eginik bezala jarraitzen nuen, begiak kliskatu ere gabe, eta bihotza izuak jaten zidala.

Bazirudien gelditasun eta isiltasun horixe espero zela niregandik. Izua nuenean ez nuen garrasirik egin behar. Hori agintzen zidan senak. Horregatik jarraitzen nuen geldi, ez nekien zeren zain. Basurdeak garoa zabaldu zuen eta garbiunera aurreratu zen. Jakin-mina azaldu zen haren begietan; distira anker bat zuten. Mehatxuz astindu zuen burua nire aldera, eta pauso bat egin zuen. Eta gero beste bat, eta beste bat...

Orduan garrasika edo txilioka egin nuen; ezin dut deskribatu, baina garrasi izugarri, zoli bat izan zen. Eta badirudi horixe zela, gauzak zeuden bezala egonda, niregandik espero izatekoa zena. Urruti ez zegoen leku batetik garrasi bat entzun zen, erantzunez. Nire txilioek durduzaz utzi bide zuten une batez basurdea, eta gelditu eta zalantzaz pisua hanka batetik bestera aldatzen zuen bitartean, agerkunde bat azaldu zen gure gainetik.

Amak orangutan handi bat zirudien, edo txinpantze bat, baina haien oso desberdina zen, bistakoak zituen zenbait ezaugarritan. Gorputzera sendoagoa zuen haiek baino, eta ile gutxiagokoa. Besoak ez zituen haiek bezain luzeak, eta hankak haiek baino gihartsuagoak. Ez zuen jantzirik; berezko ilea besterik ez. Eta zinez esaten dizuet, amorrua bera zirudien haserretzen zenean.

Eta amorru bizian azaldu zen eszena hartara. Hortz-karraska egiten zuen, izugarritzko imintzioak eginez, txilioka, "ja, ja" edo horrelako zerbait ziruditen garrasi urragarriak eginez. Hain bat-batekoa eta beldurgarria izan zen haren agertzea, non nahigabe ere defentsarako makurtu baitzen basurdea, ile guztia lazturik, nire ama gainera oldartu zitzaionean. Gero amak niregana jo zuen. Ia arnasa hartu ezinda utzi zuen basurdea. Banekien zer egin behar nuen irabazi zuen unetxo hartan. Jauzi egin eta gerritik heldu nion, eskuz eta hankaz; hankaz, bai; hankez ere eskuez bezain ongi heldu nezakeen. Nire atzapar tinkoaren azpian amaren ilearen tirakadak sentitu nituen, ahaleginean ilearen azpian giharrak eta larrua mugitzen ziren bitartean.

Esan bezala, amarengana jauzi egin nuen, eta hark segidan airera jauzi egin zuen, eta gaineko adar bati heldu zion eskuez. Hurrengo unean basurdea gure azpitik igaro zen, haginak karraska zituela. Ustekabetik oneratu, eta tronpeta-hots bat zirudien kurrinka bat eginez jo zuen aurrera. Dei bat zen inondik ere, ondoren gorputz pila batek garo eta sasi artean egiten zuen zalaparta entzun baitzen alde guztietatik.

Alde guztietatik oldartu ziren basurdeak soilgunera; hogeikoren bat. Baina ama adar sendo baten puntan zabuka zegoen ordurako, lurretik dozena bat oinera, ni hari heldurik eta biak salbu pausatuta. Asaldatuta zegoen oso, ele-mele batean eta oihuka, azpian hortzak karraska pilatu zitzaigun saldo zurdatsuari errietaka. Neu ere begira nengokien, ikara batean, piztia haserretuei, amaren garrasiak ahal nuen bezala antzeztuz.

Antzeko oihuak iritsi zitzaizkigun urrutitiko lekuren batetik, beheragoko doinu batean, baxu baten orroak bailiran. Une batetik bestera ozenago bihurtu ziren, eta berehalaxe entzun nuen nire aita hurbiltzen; garai hartako frogak ikusita behintzat, aita zela atera dut ondorioa.

Aita ez zen oso-oso aita atsegina, aitzak izan ohi diren bezala. Erdi gizon erdi tximinoa zirudien; baina ez osorik gizon, ez tximino ere. Ez dakit nola deskribatu. Ez dakit nola esan, gaur egun ez baitago haren gisakorik ez lurrean ez lur azpian, ez gainean. Gizon garaia zen garai hartarako, eta ehun eta hogeita hamar libra izango zen. Aurpegi zabal-zapala, bekainak begi gainean irtenak. Begiak txikiak, sakon sartuak eta elkarrengandik oso hurbil. Sudurrik ia ez zuen. Zapal-zabala zuen, itxuraz zubirik gabea; sudur-zuloak aurpegian bi zulo balitu bezala, beherantz ordez kanporantz zabalduak.

Kopeta begietatik bertatik makurtzen zitzaion atzera, eta ilea begietan bertan hasten zitzaion, buru osoa estaltiz. Burua bera oso-oso txikia zuen, sekulako lepo lodi eta motz baten gainean jarria.

Gorputza, gu guztiona bezala, oinarrizko ekonomia batez osatua zuen. Bularra handia, leize baten tamainakoa, egia da; baina giharrak ez zituen ongi moldatuak, bizkarrak ere ez zabalak, ez zuen gorputz-atalen lerdentasunik, eta isla ere ez zuen simetrikoa. Indarraren irudi betea zirudien nire aitaren gorputz hark, gogorra, indartsua baina edertasunik gabea, heltzeko, urratzeko, xehatzeko eta suntsitzeko egina.

Mehakak estuak zituen, eta hankak meheak eta iletsuak, kakotuak eta zaintsuak. Izatez, beso-itxura gehiago zuten, beste ezerena baino. Bihurriak eta korapilatsuak ziren; ez zuten zure eta nire hankak eder egiten dituzten zango haragitsu eta bete hauen antz handirik. Gogoan dut ez zela gauza oinen gainean ibiltzeko. Oinak oratzaileak zituelako zen hori, oinak baino areago eskuak ziruditenak. Behatz lodia besteekin parean egon ordez, aurka zeukan, eskuko behatzetan bezala, eta behatzaren kokaera horri esker gai zen hankaz gauzei heltzeko. Eta horregatik ez zen gauza oinen gainean ibiltzeko.

Itxura hori, hala ere, ez zen basurde haserretuen gainean pausatuta geunden lekura hurbildu zitzaiguneko ibilera baino harrigarriagoa. Zuhaitzik zuhaitz etorri zen, adarretik adarrera eta zuhaitzetik zuhaitzera jauzi eginez; bizkor etorri, gainera. Ikusten ari naiz oraindik ere, iratzarrik idazten ari naizela, zuhaitzik zuhaitz jauzika, lau eskuko izaki iletsua, amorruez oihuka, han eta hemen gelditu eta ukabil itxiaz bularra joz, hamar-hamabost oineko jauziak eginez, esku batez adar bati heldu eta beste jauzi baten ondoren beste eskuaz beste adar bati heltzeko eta hala segidan, zalantzarik gabe, bere zuhaitzez zuhaitzeko bide hartan nola edo zer egin ez zekiela behin ere gelditu gabe.

Eta begira nengoela, adarrik adar jauzika abiatzeko irrika pizten eta handitzen sentitzen nuen nire baitan eta nire giharretan; eta nire baitan eta nire giharretan horretarako gaitasunaren bermea sentitzen nuen, orobat. Zergatik ez, bada? Mutikoek aita aizkora jaso eta zuhaitzak

botatzen ikusten dute, eta egunen batean beraiek ere aizkora jaso eta zuhaitzak botako dituztela sentitzen dute beren baitan. Halaxe nik ere. Nire baitako bizitza aitak egiten zuena egiteko prestatuta zegoen, eta aireko bidaiak eta oihaneko hegaldiak xuxurlatzen zizkidan ezkutuan eta irrikaz.

Azkenean aita ondora etorri zitzaigun. Haserre zegoen erabat. Gogoan dut nola ateratzen zuen aurreraka beheko ezpaina, basurdeei begiratu. Zakurrarenak bezalako hotsak egiten zituen, eta gogoan dut letagin luzeak zituela, eta sekulako zirrara eragin zidatela.

Haren jarrerak basurdeak areago haserretzeko baizik ez zuen balio izan. Abarrak eta adaxkak hautsi eta etsaiei jaurtikitzen zizkien. Esku batetik ere zintzilikatu zen, harrapatu ezin zuten lekutik probokatuz, haiek ezintasunezko amorruez horts-karraska ziharduten bitartean. Hori ez baitzuen aski, adar sendo bat hautsi, eta hanka eta esku banaz atxikirik, saihetsetan ziztatzen zituen piztia amorratuak eta muturrean ematen zien. Esan beharrik ez dago nola gozatzen genuen amak eta biok jolas harekin.

Baina gauza onez ere aspertu egiten da bat, eta aitak, azkenean, barretxo maltzur bat eginik, zuhaitzetan barrena bideari jarraitu zion. Orduan kemenak alde egin zidan, eta berriro herabetu nintzen, eta gogotik heltzen nion amari, gora joanez airean zabuka zebilen bitartean. Gogoan dut haren pisuaz adarra nola hautsi zen. Sekulako jauzi bat egin zuen, eta egurraren kraskadarekin ikaratuta geratu nintzen biok airean beheara erortzen ari ginelako sentsazio izugarriaz. Oihana eta eguzkiak hosto marmartietan egiten zuen distira ezabatu egin zitzaizdan begietatik. Aita kolpetik gelditu eta begiratu egiten zigula lausoki ikusten nuela iruditu zitzaidan, eta gero dena ilundu zen.

Hurrengo unean esnatuta nengoen, oheko maindireen artean, izerditan, ikaraz, goragalez. Leioa zabalik zegoen, eta haize freskoa sartzen zen gelan. Gaueko argia lasai-lasai zegoen piztuta. Hortik ateratzen dut basurdeek ez gintuztela harrapatu, eta lurra ere ez genuela jo, bestela ez bainintzateke hemen egongo, mila mende geroago, gertaera haiek gogoratzen.

Eta jar zaitzte orain une batez nire lekuan. Ibil zaitzte une batez nirekin batera nire haurtzaroan, oheratu nirekin eta imajinatu horrelako amets ulertezinak egiten dituzuela. Ez ahaztu esperientziarik gabeko haurra nintzela. Basurde bat nire bizitzan sekula ikusi gabea nintzela. Ikusi, etxeko zerririk ere ez nuen inoiz ikusi. Nik ikusitako zerriaren hurbilenekoa, gosaritako hirugiharra izango zen, bere koipetan txigortzen. Hala ere, ordea, horra non bizitza bera bezain egiazkoak agertzen zitzaizkidan ametsetan basurdeak, eta ni, nire fantasiako gurasoekin, zuhaitzen gainaldeetan zabuka.

Harritzekoa iruditzen al zaizue nire gau amets gaiztoz bete haiek izutzea eta estutzea? Madarikatuta nengoen. Okerrago, beldur nintzen esateko. Ez dakit zergatik; erru-sentipen bat nuela bakarrik, horixe dakit, nahiz eta ez jakin zeren errudun nintzen. Eta halaxe joan ziren urteak, isilean sufrituaz, harik eta gizonduraren nire ametsen zergatia eta nolakoa ikasi nuen arte.

IV. KAPITULUA

Nire historiaurreko oroitzapen hauetan bada nahasten nauen gauza bat: denboraren lausotasuna. Ez dut beti-beti jakiten gertaeren ordena; ezin izaten dut zehaztu gertaera batzuen artean urtebete, bi, lau ala bost joan diren. Nire kidekoen itxuraren aldaketari erreparatuz baizik ezin izaten dut begiz jo zenbat denbora igaro den.

Gertaeren logikaz ere balia naiteke gertaerak zehazteko. Dударik ez dago, esate baterako, ama eta biok zuhaitzetara igotzera behartu gintuztela basurdeek eta Belarri Makur, nire haurtzaroko adiskide mina dei nezakeena, ezagutu baino lehen ihes egin genuela eta erori ginela. Eta horixe bezain segurua da, orobat, bi garai horien artean alde egin nuela amarengandik.

Aitarenik, esan dizuedana beste oroitzapenik ez dut. Hurrengo urteetan ez zen berriro azaldu. Garai hartaz dudan ezagutzagatik, basurdeekin izan genuen abentura hura baino pixka bat geroxeago hil zela beste esplikaziorik ez dago. Eta garaiz aurretik izan zuela akabera, ez dago dudarik. Sasoi-sasoian zegoen artean, eta bat-bateko istripuzko heriotza batek baizik ezin zezakeen eraman. Ez dakit, ordea, nola izan zen; ibaian ito zen edo sugeren batek irentsi, ala Ezpata Hagin tigre zaharraren urdailean desagertu zen, ez dakit.

Zeren jakin behar duzue historiaurreko egun haietan neure begiez ikusia baizik ez dudala gogoratzen. Amak aitaren akaberaren berri jakin bazuen, ez zidan ezer esan. Baditut zalantzak, gainera, horrelako informazioa adierazteko hitzik ba ote zuen. Gure taldeak hogeita hamar edo berrogeiren bat hots izango zituen beharbada garai hartan, denak barne hartuta.

Hotsak esatea hobeto iruditzen zait hitzak baino; hotsak baitziren, batez ere. Ez zuten balio finkorik, izenlagunez eta adizlagunez aldatzeko. Halakoak asmatu gabeko hizkuntza-tresnak ziren oraindik. Izen-aditzak izenlagunez eta adizlagunez kalifikatu orde, doinuaz kalifikatzen genituen hotsak, iraupena edo tonua aldatuz, luzatuz edo bizkortuz. Hots jakin bat ahoskatzen ematen zen denborak mailakatzen zuen haren esanahia.

Konjugaziorik ez genuen. Testuinguruaren arabera erabakitzen zen denbora. Gauza zehatzak baizik ez genituen esaten, gauza zehatzak baizik ez baikenituen pentsatzen ere. Pantomimaz ere asko baliatzen ginen. Abstrakziorik soilena ere gure gogamenetik kanpo zegoen; eta norbaitek inoiz halako gogoetarik bazuen, nekeak izaten zituen bere kideei adierazteko. Ez zegoen horretarako hotsik. Hiztegiaren mugetatik kanpo zegoen. Horretarako hotsen bat asmatzen bazuen, kideek ez zizkioten ulertzen. Orduan pantomimara jo behar berriro, gogoeta hura ahal zuen moduan adieraziz eta aldi berean hots berria behin eta berriro errepikatuz.

Horrela landu zen hizkuntza. Eskura genituen hots bakanek, haiek baino zertxobait aurreraxeago pentsatzen laguntzen ziguten; orduan hots berrien premia azaltzen zen, pentsakizun berria adierazteko. Batzuetan, hala ere, gure hotsen helmena baino askoz ere harago bultzatzen genuen gogamena, eta besteei inola ere adierazi ezin genizkien abstrakzioak lortzen genituen –oso ilunak, aitortu beharra dut–. Hizkuntza, izan ere, ez baitzen bizkor aberasten ari garai haietan.

Sinesten ahal didazue, ikaragarri inozoak ginen. Baina bagenekien gaur egun ezagutzen ez den gauza pilatxo bat ere. Bagenekien belarriak mugitzen, tentetzen eta beheratzen, nahi bezala. Bagenekien bizkarraren erdian hazka egiten, erraz gainera. Baita hankaz harrika egiten ere. Frankotan egina naiz neu. Eta gehiago: belaunak zuzen nituela oker nintekeen eta gerritik makurtuz lurra ukitu, ez behatz-puntez, ukalondoko hezurrez baizik. Eta txori-habiak

harrapatzen... nahiko nuke hogeigarren mendeko mutiko batek ikusiko bagintu. Baina ez genituen arrautza-bildumak egiten. Jan egiten genituen.

Gogoan dut oraindik... baina urruntzen ari naiz kontatu nahi nuenetik. Belarri Makurrez eta bion adiskidetasunaz hitz egingo dizuet lehendabizi. Bizitzan oso goiz bereizi nintzen amarengandik. Aita hil ondoren beste senar bat hartu zuelako beharbada. Oroitzapen gutxi dut aitaz, eta ez on-onak gainera. Tipo arina zen. Funtsik gabea. Apetatsu hutsa. Haren hizjarioak oraindik ere aspertu egiten nau, gogoratu hutsarekin. Gogoan ere fundamentu gutxi zuen, asmo zehatzik izateko. Kaiolako tximinoek hura gogorarazten didate beti. Tximino-tankerakoa zen. Horra aurkitzen diodan deskribapenik onena.

Hasieratik bertatik hartu zidan gorrotoa. Eta berehalaxe ikasi nuen haren broma madarikatuen beldur izaten. Azaldu bezain laster amaren kontra estutzen nintzen eta hari heltzen nion. Baina hazten ari nintzen, eta askotan apartatu behar izaten nuen nahitaez amarengandik, eta geroz eta gehiago urrundu. Aukera horien zain egoten zen Kalakari. (Esan beharra daukat garai haietan izenik ez genuela; ez genion izenez deitzen elkarri. Ondo egokitzen zitzaidalako jarri dizkiet izenak harremanik gehiena izaten nuenei, eta "Kalakari" da nire aitaordeko zoragarri hura deskribatzeko aurkitu dudan modurik zehatzena. Neuretzat, berriz, "Hortz-Handi" izena hartu dut. Letaginak luze-luzeak nituen).

Baina gatozen berriro Kalakarirengana. Ikara sartu nahian aritzen zitzaidan beti. Denbora guztian zirikatzen, joka; eta aukera zuenean hozka ere egiten zidan. Ama askotan sartzen zen bitartean, eta ikustekoa izaten zen nola heltzen zion ileetatik. Horren ondorioa, liskar xelege amaigabe bat izaten zen, eta ni liskarbidea.

Ez, nire etxeko bizitza ez zen zoriontsua. Irribarrea ateratzen zait hori idazten dudanean. Etxeko bizitza! Etxea! Nik ez nuen etxerik, hitz horren zentzu modernoan. Nire etxea elkartasun bat zen, ez bizigune bat. Amaren ardurapean bizi nintzen, ez etxe batean. Ama edozein tokitan bizi zen; gaua zetorreanean lurretik urruti egonda, nahikoa.

Ama ohitura zaharren zalea zen oso. Bere zuhaitzetara lotua zen oraindik. Gure taldeko lagun aurreratuenak ibai gaineko haitzuloetan bizi ziren ordurako. Ama, ordea, susmotia eta atzerakoa zen. Harentzat zuhaitzak aski ziren. Bagenuen, jakina, zuhaitz bat aukeratua, eta hartara biltzen ginen gehienetan, baina sarri geratzen ginen lotara beste zuhaitz batzuetan, gauak harrapatzen bagintuen. Bagenuen adarrez, adaxkaz eta aihenaz egindako oholtza moduko bat bi adarren banaleku batean. Txori handiren baten habia erraldoi bat zirudien, baina txori-habiak baino landugabeagoa askoz ere. Baina bazuen habiatan inoiz ikusi ez dudana ezaugarri bat: estalkia.

Ez zen gizaki modernoak egiten dituen teilatuak bezalakoa, jakina. Ezta gaurko basatirik apalenek egiten dituztenen antzekoa ere. Gizonaren edozein lan baino oiesagoa zen mila bider. Pilatu alde pilatuta, nahas-mahas. Egoten ginen adarren urkulgunean hosto eta zarba lehor mordo bat jartzen zen. Alboetako beste lauzpabost adar urkulduk eusten zieten hagak-edo deituko nituzkeenei. Hatz bete diametroko adar sendo batzuk besterik ez ziren. Haien gainean adaxkak eta zarbak. Asmo jakinik gabe botata zeudela ematen zuen. Lastoz estaltzeko asmorik ere ez zegoen-eta. Eta aitortu beharra dut, zaparrada on bat botatzen zuenean, itokina besterik ez zuela izaten.

Kalakarik, ordea... Etxeko bizimodua karga astuna bihurtu zigun amari eta bioi, eta ez diot itokinengatik, hiruron arteko talde-bizitzagatik baizik. Asmorik txarrenak zituen nire kontrako pertsekuzioan. Horixe izan zuen bost minutu jarraian baino gehiago iraun zion asmo bakarra. Ama azkenerako ez zen hainbeste lehiatzen ni defenditzen. Uste dut Kalakarik etengabe eragiten zizkigun iskanbilengatik, traba bihurtu nintzaiola azkenerako. Gauza da hain bizkor ari zela okertzen egoera, non luzera gabe aurkituko bainintzen neure kabuz etxetik alde

egitera beharturik. Baina horixe neure kabuz egiteko poza ere ukatu egin zitzaidan. Alde egiteko prestatu baino lehen, bota egin ninduten kanpora. Esan bezalaxe.

Behin, habian bakarrik nengoela, izan zuen Kalakarik horretarako aukera. Ama eta Kalakari elkarrekin joanak ziren ahabiak izaten ziren istingadietarantz. Baina aurretik prestatua edukiko zuen, nonbait, zeren basoan zehar bakarrik zetorrela sumatu nuen, orroka eta bere burua berotuz. Gure taldekoek haserre zeudenean, edo haserretu nahi zutenean ohi zuten bezala, han eta hemen gelditu eta ukabilak itxirik bular joka ari zen.

Segituan ohartu nintzen zein egoera babesgabean nengoen, eta ikaraz kuzkurtu nintzen habian. Kalakari zuhaitzeraino zuzenean heldu –gogoan dut haritza zela– eta igotzen hasi zen. Ez zuen eten une batez ere iskanbila hura. Esan dizuet gure hizkuntza urria zela guztiz; eta mila modutan behartu behar izan zuen, inondik ere, niri zidan gorroto neurrigabea eta nirekikoak orduantxe bukatzeko zekarren asmoa adierazteko.

Urkulguneraino igo zenean, adar etzan batetik ihes egin nion. Atzetik etorri zitzaidan, eta ni gorago eta gorago. Azkenean adaxkarik meheenetaraino urrundu nintzen, hosto arteraino. Kalakari koldar hutsa zen orain ere, eta amorrua baino kontu handiagoa erabiltzen zuen beti. Beldur zen adaska mehe eta hostoen artean jarraitzeko. Zeren gorputzaren pisuak ni harrapatu baino lehenago eroraraziko baitzuen hosto artetik behera.

Ez zuen, ordea, horrenbesteren beharrik, eta bazekien ondotoxo, zital hark! Aurpegian begirakune gaizto bat jarritz, bere begitxo distiratsuek ankerkeria gaiztoz dizdiz egiten zutela, adarrak astintzen hasi zen. Eta nola astindu ere! Eta ni adarraren punta-puntan, nire pisuarekin hausten hasita zeuden adaxkei heldurik. Hogeiren bat oin beherago, lurra.

Geroz eta amorru handiagoz astintzen zituen, bere gorrotozko irri maltzurra erakutsiz. Eta hantxe izan zen akabera. Nire lau heldulekuak batera hautsi zitzaizkidan, eta erori egin nintzen, bizkarrez behera, Kalakariri begira, eskuez eta hankez oraindik ere adaska hautsiei helduz. Eskerrak azpian basurderik ez zegoen, eta nire erorikoa sastraka gogor, malguetan amaitu zen.

Normalean erorikoak ametsa eteten zidan; nerbioen astinaldia aski izaten zen milaka menderen arteko zubia instante batean igaro eta nire ohetxora itzultzeko, eta han esnatzen naiz, izerditan blai, ikara batean, egongelan kuku-erlojuak orduak jotzen zituen bitartean. Nire bizilekutik alde egin nueneko amets hori askotan izan dut, ordea, eta ez nau sekula esnatu. Beti erortzen naiz, adar artean behera garrasika, eta lurra jo eta punpa egiten dut.

Eroritako lekuan geratzen naiz etzanda, urratuz eta ubelduz beteta, negarrez. Belar artetik begiratzuz, han dago oraindik Kalakari. Deabruzko poz-abesti bat abesten, bere balantzaz konpasa eramanez. Berehalaxe utzi nion negar egiteari. Ez nengoen zuhaitzetako segurtasunean, eta banekien nolako arriskuan nenbilen nire saminaren gehiegizko adierazpenen batez piztia ehiztariak erakartzen banituen.

Gogoan dut, zinkurinak isiltzean, negar malkoz bustirik nituen betazalak zabaldu eta ixtean eratzen ziren argi-efektu bitxiak miresten aritu nintzela. Geroxeago hobeto aztertzen hasi nintzen, eta erori izanagatik ere hain mailatuta ez nengoela ohartu nintzen. Ile batzuk galdu eta urratu batzuk nituen han eta hemen; adar-punta zorrotz, koskatsua hatz bete sartua nuen besoan; eta eskuineko bernak, harekin jo bainuen bete-betean lurra, ezin eramanezko mina egiten zidan. Baina ez ziren sekulako kolpeak, azkenean. Hezur hautsirik ez nuen, eta garai hartan gizonaren haragia errazago sendatzen zen gaur egun baino. Eroriko galanta izan zen nolana ere, handik astebetara ere herren bainenbilen oraindik berna-mokor minduarekin.

Artean sasitzan nengoela, nire hondamendiaren sentimendua nagusitu zitzaidan; etxerik ez nuela ohartu nintzen. Kalakarirekin eta amarekin gehiago ez nintzela biziko erabaki nuen. Handik urrutira alde egingo nuen, oihanean zehar, eta zuhaitz bat bilatuko nuen, kota

jartzeko. Jatekoa banekien non aurkitu. Urtebete bazen gutxienez amaren beharrik ez nuela jateko. Babesa eta gidaritzza, besterik ez zidan ematen.

Poliki-poliki atera nintzen sasietatik arrastaka. Atzera begiratu nuen, eta artean kantuan eta zabuka ikusi nuen Kalakari. Ez zen ikusteko polita. Banekien kontuz behar nuela ibili, eta aparteko arretaz ibili nintzen munduan egiten nuen lehenengo bidaia hartan.

Ez nekien, ezta hurrik eman ere, norantz nindoan. Helburu bat baizik ez nuen: Kalakariren irismenetik urrundu. Zuhaitzetara igo eta ordutan ibili nintzen hara hona, batetik bestera aldatuz, lurra behin ere ukitu gabe. Baina ez nindoan leku jakin baterantz, eta ezta gelditu gabe ere. Iraunkorra ez izate hori neure izaerazkoa nuen, gure taldeko guztiek bezala. Haurra nintzen, gainera, eta sarri-sarri gelditzen nintzen bidean jolas egiteko.

Etxetik alde egitean gertatu zitzaizkidanez oroitzapen lauso bat baizik ez zait geratzen. Ez zaizkit agertzen ametsetan. Gauza asko ahaztu ditu nire beste ni horrek, garai horretakoak batez ere. Ez naiz gauza izan ametsak zuhaitzetako etxetik alde egin eta haitzuloetara iritsi nintzen arteko bitarte hori betetzeko moduan banan-banan antolatzeke.

Gogoan dut eremu zabaletan ibili nintzela behin baino gehiagotan. Ikaraz igarotzen nituen, lurrera jaitsi eta ahal nuen abiada bizienean lasterka eginez. Gogoan dut egun euritsuak eta egun eguzkitsuak ere izan zirela; luzaro samar ibili nintzen, beraz, inondik ere, bakarrik. Amets asko egin ditut, batez ere euritan izaten nuen sufrikarioaz, goseak eragiten zidan oinazeaz eta gosea nola baretzen nuen. Oso sartuta daukat tontor soil bateko harkaitzetan sugandilak harrapatzen aritu nintzeneko oroitzapena. Harri azpira joaten zitzaizkidan, eta ihes egiten zidaten gehienetan; baina batzuetan harria irauli eta bat harrapatzen nuen. Sugeek uxatu ninduten tontor hartatik. Ez zidaten segi. Eguzkitan berotzen zeuden harri zapaletan, besterik gabe. Baina halako beldurra nien herentziaz, non segi izan balidate bezain bizkor ihes egin bainuen handik.

Gero zuhaitz gazteen azal mingotsa hozkatu nuen. Oroitzapen lauso bat dut intxaur berde asko jan izana, beren oskol bigunarekin eta mami esnetsuarekin. Eta oso garbi gogoratzen dut urdaileko mina izan nuela. Baliteke intxaur berdeek eragina izatea, edota sugandilek, beharbada. Ez dakit. Baina bai, badakit suerte handia izan nuela koliko harekin lurrean iraulika egin nituen orduetan jan ez nindutelako.

V. KAPITULUA

Bat-batean agertu zitzaidan eszena, basotik irten bezain laster. Zabaldi handi, garbi baten ertzean nengoen. Zabaldiaren alde batean haitz garai batzuk altxatzen ziren. Bestean ibaia zegoen. Ibaiertza piko-piko jaisten zen uretara, baina sarguneak zeuden han eta hemen, noizbait luiziak izandako leku batzuetan. Haiek ziren haitzuloetan bizi zen gure taldearen edalekuak.

Eta huraxe zen ustekabeen topatu nuen Jendearen bizileku nagusia. Herrixka bat zela esango nuke, hitz horren esanahia zertxobait behartuta. Ama, Kalakari, eta ni, eta bakandurik bizi ziren beste batzuk, aldirietako biztanleak bezala-edo ginen. Gure taldeko kideak ginen, hartatik urrun samar bizi baginen ere. Ez zen lehengo lekutik oso urrun, hara iristeko astebete behar izan banuen ere, noraezean ibili nintzelako. Zuzenean joan izan banintz, ordubetean egingo nukeen bide hura.

Gatozen berriro harira, ordea. Basoaren ertzetik, malkarretako leizeak, zabaldia eta edalekuetara jaisteko maldak ikusi nituen. Eta zabaldian gure taldeko kide asko. Astebete ibili nintzen, haurra eta galdurik. Denbora horretan, bat ere ez nuen ikusi nire arrazakorik. Izuaren mende eta babesik gabe ibili nintzen. Eta orain, nire kidekoak ikusita, pozak gainezka nengoen, eta alai joan nintzaian lasterka.

Gauza harrigarri bat gertatu zen orduan. Ikusi nindutelarik, alarma-oihuka hasi ziren batzuk. Eta bat-batean, ihes egin zuen gure talde osoak, izuz eta negarrez. Haitzetan saltoka eta arrastaka, beren haitzulo-sarreretatik barrura ezkutatu ziren... bat salbu, haurtxo bat, nahasmendu hartan labarraren oinean utzi baitzuten. Etsi-etsian ari zen negarrez. Ama haitzulotik atera zen; haurrak amarengana jauzi egin eta estu-estu heldu zion, hark haitzulora zeraman bitartean.

Bakar-bakarrik nengoen. Lehen beterik zegoen zabalgunea, hutsik geratu zen bat-batean. Babesik batere gabe eseri nintzen, negarrez. Ez nuen ulertzen. Zergatik ihes egin zidan taldeak? Gerora jakin nuen, haien ohiturak ezagutu nituenean. Basotik eginahalean lasterka azaltzen ikusi nindutenean, piztiaren bat segika nuela iruditu zitzaien. Nire agertze zalapartatsuak sakabanarazi zituen.

Eseri eta haitzulo-sarreretara begiratu nuenean ohartu nintzen niri begira nuela talde osoa. Handik pixka batera buruak ateratzen hasi ziren. Geroxeago, elkarri hoska. Iskanbila eta zalaparta hartan asko ez ziren beren leizetan sartu. Gazteetako batzuk besteren haitzuloetan babestu ziren. Amek ez zieten beren izenez deitzen; asmazio hori egin gabe zegoen oraindik. Ez zuten izenik. Amek negarrezko oihu larriak egiten zituzten, eta txikitxoek ezagutu egiten zituzten. Neuk ere, ama han egon izan balitz eta deitu izan balit, segituan ezagutuko nukeen haren hotsa beste mila amen hotsen artean, eta baita berak nirea ere, beste milaren artean. Hartan jarraitu zuten alditxo batez deiek eta erantzunek; baina beldur handiegia zuten haitzuloetatik irten eta zabalera jaisteko. Halako batean bat jaitsi zen. Leku handia izango zuen nire bizitzan, eta dagoeneko eragin handia zuen gure taldeko kideen bizitzan. Begi Gori zen; halaxe deituko dugu historia honetako orrietan, betazalak gorriturik eta begiak erreta

zeuzkalako eta horrek, basatikeria izugarria aldarrikatuko balu bezala, itxura bitxi bat ematen ziolako. Haren arimaren kolorea ere gorria zen.

Munstro bat zen, zentzu guztietan. Gorputzez, erraldoia. Pisuz ehun eta hirurogeita hamar libra onak izango zituen. Gure kidekoetan ikusi dudan sendoena. Ez Suaren Gizonen artean, ez Zuhaitzetako Gizonen artean ez dut ikusi izan halako tamainakorik. Inoiz edo behin egunkarietan, gure atleta eta borrokalari modernoek deskripzioak topatuta, galdetu izan diot neure buruari, zertan amaituko zuketean horietako onenek ere Begi Goriri aurre egin behar izan baliote.

Ez dut uste aukera handirik izango luketenik. Bere burdinazko hatzen atzaparkada batez tiraldi bat eman eta giharrak erauziko zizkien, edo besondoko giharra errotik aterako zien gorputzetik. Zaplada bat, errebeskada bat, eta arrautza-oskola bezalaxe zanpatuko zien burezurra. Hanka izugarri haien (edo atzeko eskuen) kolpetxo bat aski, triapak ateratzeko. Lepoa bihurritu eta hautsiko lieke, eta badakit masailak estutu hutsarekin, lepoko zaina eta hezurra biak batera ebakiko lizkiekeela.

Eserita zegoen lekutik, gauza zen hogeitau oineko jauzia egiteko. Ikaragarri iletua zen. Gure artean harrotzeko gauza izaten zen ile gutxi izatea. Hark, ordea, alde guztietan ilea zuen, besapean bezala besagainean, eta baita belarrietan ere. Eskuko ahurrak, oin azpiak eta betazpiak, horiexek zituen bakarrik ilerik gabe. Itsusia ikaragarri, ahoa irribarre ankerrez bihurritua eta ezpain erori eskeraga hura ezin hobeto egokitzen zitzaizkion bere begi izugarriekin.

Halakoxea zen Begi Gori. Kontu handiz atera zen haitzulotik kanpora eta zelaira jaitsi zen. Niri jaramonik egin gabe, ingurura begiratzen hasi zen. Gerritik gora makurtuta ibiltzen zen; hainbestearino makurtzen zen eta hain luzeak zituen besoak, non urrats bakoitzeko ukitzen baitzuen lurra hatz-koskorrez, alde bietan. Baldarra zen erdi-zutik ibiltzeko jarrera horretan eta egiaz jotzen zuen lurra hatz-koskorrez, gorputza orekatzeko. Baina, begira, denoi irabazten zigun lasterka! Gu, berriz, oso baldarrak ginen horretan. Areago, gure artean gutxi ziren ibiltzean hatz-koskorretan bermatzen zirenak. Atabismoz gertatzen zen hori, gertatzen zenean; eta Begi Gori zen atabismo handiena.

Horixe baitzen hura: atabismo bat. Gu zuhaitzetako bizitzatik lurreko bizitzarantz aldatzen ari ginen. Belaunaldi askotan ari ginen aldakuntza horretan, eta gorputza eta ibilera ere aldatuak genituen. Begi Gori, berriz, zuhaitzetako gizon primitiboago baterako atzerakada zen. Gure taldean jaioa zenez, gure artean geratu zen; izan, ordea, atabismoa zen gure artean; beste nonbait zegoen lekua.

Adi eta zelatan ibili zen zabalduan hara-hona, zuhaitz tartetara begira, ustez atzetik etorriko zitzaidan piztia ehiztaria ikusi nahiz. Eta hura horretan ari zen bitartean, haitzuloetako sarreretan pilatu zen talde guztia, begira.

Azkenetako, arriskurik ez zela ohartu zen, itxuraz, Begi Gori. Malda gorenetik edalekuetara begiratu bat egitera joan eta itzuleran zetorren. Gertura etorri zen, baina niri erreparatu ere gabe. Ezer ez balitz bezala jarraitu zuen bere bidea, nirekin topo egin zuen arte, eta orduan, besterik gabe, sinetsi ere ezinezko bizkortasunez, sekulako zaplada bat eman zidan. Hamar bat oin bota ninduen atzera, lurrera erori nintzen arte, eta gogoan dut oraindik, kolpea igarota

ere konortea erdi-galdurik nengoen arren, nolako barre eta oi-hu-iskanbila basatia iritsi zitzaidan haitzuloetatik. Txantxa bikaina zen, garai haietan behintzat, eta pozik hartu zuen gure taldeak.

Horrelaxe egin zidaten harrera taldean. Begi Gorik ez zidan gehiago jaramonik egin, eta libre nintzen, negar ala zotin, nahi nuena egiteko. Emakume batzuk jakin-minez inguratu zitzaizkidan, eta segituan ezagutu nituen. Aurreko urtean, amak hurritzak zeuden trokara eraman ninduen, topatu genituen berberak ziren.

Baina berehalaxe utzi ninduten bakarrik, eta dozena bat mutiko lotsagabe eta txantxazale agertu zen haien ostean. Inguruan korro bat egin eta behatzez seinalatzen ninduten, imintzioka, zirikatuz eta atximur eginez. Beldurtuta nengoen, eta hasieran egonarriz pairatu nuen dena; gero, ordea, haserre hartu ninduen, eta hozka eta atzamarka ekin nion ausartenari; zein izango, eta Belarri Makur. Belarri bat baizik zutitu ezin zezakeelako deitzen dut horrela. Beste belarria zintzilik erabiltzen zuen beti, indarrik eta mugimendurik gabe. Istripuren batean giharrak hondatuko zitzaizkion nonbait, eta erabiltzeko gauza ez zela geratu zen.

Elkarri lotu, eta su eta gar ekin genion, haurrek borrokan ari direnean egin ohi duten bezala. Elkarri hozka eta atzamarka, ileetatik tiraka, indarka, lurrean itzulika. Gogoan dut, geroago unibertsitatean jakin nuenez Nelson-erdia deitzen zaion hori egitea lortu nuela. Heldukada horrek abantaila handia eman zidan. Baina ez nuen askorik gozatu. Hanka bat okertu eta halako ostikada basatia eman zidan hankaz (edo atzeko eskuaz) non gutxi behar izan bainuen sabela lehertzeko. Askatu egin behar izan nuen, salbatuko banintzen, eta borrokari ekin genion berriro.

Belarri Makur ni baino urtebete zaharragoa zen, baina ni askoz haserreago nengoen eta azkenean ospa egin zuen. Atzetik jarraitu nion, zabalduan zehar eta ibaira zihoan malda batean behera. Baina nik baino hobeto ezagutzen zuen lekua, eta ur-ertzetik joanda beste malda batetik gora jo zuen. Zabalgunea igaro eta sarrera zabaleko haitzulo batean ezkutatu zen.

Ohartu ere baino lehen, ilunpetan murgilduta nengoen, haren atzetik. Beldurrak hartu ninduen. Ordu arte inoiz ez bainintzen haitzulo batean sartu. Negarrez eta garrasika hasi nintzen. Belarri Makurrek iseka egiten zidan eta, ezkututik gainera jauzi eginez, lurrera bota ninduen. Ez zen arriskatu, ordea, berriro borroka egitera, eta atzera egin zuen. Beraren eta haitzulo-sarreraren artean nengoen, eta ez zen pasatu, baina han ez zegoela iruditzen zitzaidan. Belarria adi jarri nuen, baina ezin izan nuen asmatu non zegoen. Harriturik utzi ninduen horrek, eta kanpora atera nintzenean, eseri eta zelatan geratu nintzen.

Sarreratik ez zen atera, hori seguru, eta, hala ere, handik minutu batzuetara barrez ari zitzaidan ondo-ondotik. Atzetik abiatu nintzaion, eta haitzuloan barrena ezkutatu zen berriro; hartan, ordea, haitzulo-sarreraren geratu nintzen, atzeraxeago joan eta begira. Ez zen atera, eta hala eta guztiz ere ondo-ondoan nuen berriro barrez, eta hirugarren aldiz jarraitu nion haitzuloan barrena.

Behin eta berriro egin zidan gauza bera. Azkenean haitzulo barreneraino jarraitu nion; alferrik bilatu nuen. Jakin nahi nuen zer gertatzen zen. Ez nuen ulertzen nola ihes egiten zidan.

Haitzuloan sartu zen guztietan, behin ere ez zen atera, eta hala eta guztiz ere ondora etorri eta iseka egiten zidan. Horrela, borroka izanez hasi zena ezkutaketa bihurtu zen.

Arratsalde osoan jarraitu genuen, tartean behin geldituz, eta adiskidetasun-sentimendu alai bat sortu zen gure artean. Azkenerako ez zidan ihes egiten, eta elkarren ondoan esertzen ginen, besoez elkarri heldurik. Geroxeago sarrera zabaleko haitzuloaren misterioa argitu zidan. Eskutik heldu eta barrura eraman ninduen. Haitzulo hura beste batekin lotuta zegoen zirrikitutxo batetik, eta handik igarota berriro kanpora atera ginen.

Orain, bada, adiskide minak ginen. Gainerako gazteak zirikatzeraz etorri zitzaizkidanean, nirekin elkartu eta eraso egin zien, eta hain gogor egin ere, non berehalaxe laga baikintuzten bakean. Belarri Makurrek bere bizilekua erakutsi zidan. Ezin zidan gauza askorik azaldu hango jokamoldeaz eta ohiturez; ez zuen horretarako behar zen hiztegirik; baina haren jokabidea ikusiz gauza asko ikasi nuen, eta gero gauzak eta tokiak ere erakutsi zizkidan.

Haitzuloaren eta ibaiaren arteko zabaldira eraman ninduen, eta harago, basora, eta han, zuhaitzen arteko leku belartsu batean, zuntz sendoko azenarioak jan genituen. Ondoren, ibaian ur freskoa edan eta maldan gora abiatu ginen haitzuloetara.

Maldan topatu genuen berriro Begi Gori. Lehenengo gauza, Belarri Makur alde batera baztertu zen, ezpondaren kontra estutuz. Nik ere, oharkabea, gauza bera egin nuen. Orduan horrenbestera zerk izutzen zuen begiratu nuen. Begi Gori zen, maldan behera harro zetorrela, bere begi erreez basakeriazko begiradak eginez. Gazteenek, guk bezala, ihes egiten ziotela ohartu nintzen; nagusiek ere mesfidati begiratzen zioten inguruan zebilenean, eta alde batera egiten zuten bidearen erdia hari uzteko.

Ilunabarra iritsi zenean, zabaldia hutsik geratu zen. Taldea haitzuloen segurtasunaren bila ari zen. Belarri Makurrek etzalekura eraman ninduen. Harkaitz goreneraino igo ginen, beste haitzulo guztiak baino gorago, behetik ikusi ere egiten ez zen arrakala estu batera. Belarri Makur barruan estutu zen. Nik nekez jarraitu nion, estu-estua baitzuen sarrera, eta harrizko gelatxo baten barruan aurkitu nintzen. Oso txikia zen, oin-pare bat baino gehiago ez altu, hiru bat zabal eta lau luze. Hantxe lo egin genuen gau hartan, elkarren besoetan kuzkurturik.

VI. KAPITULUA

Gaztetxorik ausartenek sarrera zabaleko haitzuloetan ezkutaketan jolas egiten zuten bitartean, garbi ikusi nuen haitzulo haietan inor ez zela bizi. Haietan inor ez zen geratzen gauetz lo egitera. Sarrera estuko haitzuloak baizik ez ziren erabiltzen lotarako, zenbat eta sarrera estuagoa, orduan eta hobeto. Gau eta egun haietan bizitza neketsua bihurtzen ziguten ehizapiztien izuagatik izaten zen hori.

Belarri Makurrekin lehenengo aldiz lo egin nuen gauaren biharamun goizean ohartu nintzen zein zen sarrera estuko haitzulo horien abantaila. Goizeko lehenengo argiarekin batera, Ezpata Hagin tigrea zabaldian agertu zen. Gure taldeko bi jaikita zeuden. Zalaparta batean ihes egin zuten. Ez dakit izuak hartuta ala Ezpata Hagin hurbilegi zutelako eta labarrean arrakaletaraino igotzeko betarik eman ez zielako izan zen; gauza da aurreko arratsaldean Belarri Makur eta biok jolasean aritutako sarrera zabaleko haitzuloan sartu zirela arrapaladan.

Barruan zer gertatu zen ez dago esateko modurik; baina aise atera daiteke, gure taldeko bi lagunek zirrikitutik beste haitzulora ihes egin zutela. Zirrikitu hura estuegia zen Ezpata Hagin igarotzeko, eta sartu zen bide beretik itzuli zen berriro, amorruez eta haserre. Bistan zegoen gaueko ehizan ez zuela arrakastarik izan, eta gosaltzeko gutakoren bat jatea espero zuela. Taldeko bi kideak beste haitzulo-sarreran ikusi, eta haietara jauzi egin zuen. Haiiek pasadizotik zehar lehenengo haitzulora ihes egin zioten berriro, jakina. Lehen baino ere haserreago atera zen, mehatxuka.

Sekulako iskanbila sortu zen gure artean. Malkar gainetik pilaka atera ginen arrakaletatik eta erlaitzetatik, mila modutan uluka eta garrasika. Imintzio bitxiak egiten genituen, oihuka; horixe agintzen zigun senak. Ezpata Hagin bera bezain haserre ginen geu ere, gure haserrea beldurrarekin nahasten zela salbu. Gogoan dut inork baino imintzio eta garrasi gehiago egiten nuela. Ez besteen ereduari segiz bakarrik, barrenak haiek egiten zutena egiteko agintzen zidalako baizik. Ilea lazturik, ikara batean nengoen amorru sutu eta itsu batez.

Ezpata Hagin zaharrak haitzulo batera eta gero bestera jo eta jo jarraitu zuen. Taldeko biek, ordea, bi haitzuloen arteko pasadizotik igaro, eta ihes egiten zioten. Bien bitartean, gainerako guztiok erasoari ekin genion labar gainetik. Haitzulotik kanpora ateratzen zen bakoitzeko, harrika erasotzen genion. Hasieran pendizean behera botatzen genizkion, baina berehalaxe hasi gintzaizkion indar guztiaz jaurtitzen.

Bonbardaketa horrek guregana erakarri zuen Ezpata Haginen arreta eta are gehiago amorrarazi zuen. Taldeko biei jarraitzeari utzi eta haitzetatik gora abiatu zen, erpeak harkaitzetan iltzatuz, goraka etorri ahala orro eginez. Haren itxura izugarria ikusirik, haitzulo barrenetan babestu ginen denok. Badakit, zeren kanpora azaldu bainintzen, eta malkarra huts-hutsik zegoela ikusi bainuen, eta hantxe Ezpata Hagin, laprast egin eta behera irristaka zihoala.

Animu-oihu bat egin nien denei, eta taldeak bete zituen berriro haitz guztiak, garrasika, eta harriak lehen baino ere ugariago joan ziren maldan behera. Ezpata Hagin amorruek erotzen zegoen. Behin eta berriro saiatu zen malkarrean gora. Batean sarrera estuko lehenengo haitzuloetara ere iritsi zen, baina ezin izan zuen barrura sartu. Igotzeko egiten zuen saio bakoitzeko, izuak hartzen gintuen. Horrelakoetan barruan ezkututzen ginen ia denak hasieran; baina batzuk zeuden lekuan geratzen hasi ziren hari harrika egiteko, eta azkenerako denak geratu ginen harri-zaparrada batean.

Halako piztia indartsurik inoiz ez zen ikusi horren barregarri menderatuta. Min izugarria hartu zuen bere harrotasunean, hain izaki txiki eta ahulek menderaturik. Zabaldian geldi eta begira

geratu zitzaigun, orroka, isatsa astinduz, inguruan erortzen zitzaion harri-zaparradari ihesi. Une batean harri bat bota nion, eta une horretantxe gora begiratu zuen. Mutur-muturrean jo zuen; sekulako jauzia egin zuen, lau hankak airean zituela, ustekabeagatik eta kolpeagatik orroka eta uluka.

Menderatuta zegoen eta bazekien. Itxura duina hartu, eta handi-itxurak eginez urrundu zen harri erauntsi hartatik. Zabaldiaren erdian gelditu eta arretaz eta gosez begiratu zigun atzera. Haserre zegoen jan gabe geratu zelako; gu ginen janari ugaria, inguratu bai, baina harrapatu ezina. Haren itxura ikusita, algara bat lehertu zen gure artean. Burlaz eta zarataz egiten genion barre, denok. Animaliei ez zaie gustatzen burla egiterik. Inork barre egiten badie haserretu egiten dira. Eta horrelaxe mindu zuen gure barreak Ezpata Hagin. Orro eginez jiratu zen, eta labarrean gora egin zuen berriro. Horixe nahi genuen guk. Borroka zena jolas bilakatu zen, eta sekulako gozamina hartzen genuen hari harrika eginez.

Baina eraso hura ez zen asko luzatu. Berehalaxe itzuli zen bere zentzu onera, gure harrikadek bete-betean jotzen baitzuten, gainera. Oraindik ere gogoan dut haren begia, guk botatako harrikada batek jo eta handitu eta ia itxita. Eta oso garbi ikusten dut oraindik ere haren irudia, basoaren ertzean geldi, hara erretiratu baitzen azkenik. Atzera begiratzen zuen, guregana, ezpainak okertuta, bere letagin erraldoien zuztarra ere erakutsiz, ilea laztuta eta isatsa astinduz. Berriro orro bat egin eta zuhaitz artean ezkutatu zen gure bistatik.

Orduan sekulako hitz-jarioa hasi zen gure artean. Mordoka atera ginen gure zuloetatik; haren erpeek malkarreko haitzetan utzitako arrastoak aztertu eta denek batera hitz egiten genuen. Ezpata Haginek bi sarrerako haitzuloraino segi zien bietako bat gaztetxo bat zen, erdi haur erdi gaztea. Harro-harro irten ziren beren babeslekutik, eta guk, inguruan pilaturik, miresmenez begiratzen genien. Horretan gazteenaren ama azaldu zen eta haserre bizian eraso zion, belarrietatik tiraka, ilea erauzi beharrean, deabruaren moduan garrasika. Emakume handi, sendo bat zen, oso iletsua; eta semeari eman zion astindua gozamina izan zen taldearentzat. Barre-marruka egiten genuen, elkarri helduz edo gure pozean lurrean iraulika.

Izumenaren erreinuan bizi baginen ere, gure taldea barrezalea zen oso. Umore ona genuen. Gure pozak Gargantuarenen gisakoak izaten ziren. Ez zuten neurririk izaten. Ez zen erdizkako gauzarik. Zerbait barregarria bazen, zen bezala hartuta algaraz lehertu behar genuen, eta gauzarik soilen, arruntenak harrigarriak iruditzen zitzaizkigun. Bai! Barrezale handiak ginen, egon seguru.

Ezpata Hagin tratatu genuen modu hartantxe tratatzen genituen gure herrixka inbaditzen zuten animalia guztiak. Gure ibilbideak eta edalekuak geuretzat gordeta geneuzkan, eta gure inguruko lurretan sartzten ziren edo zebiltzan animaliei bizimodua negargarria bihurtzen genien. Ehizako piztia basatienei ere halako moduan jazartzen genien, non ederki ikasten baitzuten gure lekuak bakean uzten. Gu ez ginen haiek bezala borrokalariak; maltzurak eta koldarrak ginen, eta maltzurkeriari eta koldarkeriari, eta izutzeko genuen joera neurrigabeari esker iraun genuen bizirik, Mundu Sortuberri hartako ingurumen etsai hartan.

Belarri Makur ni baino urtebete zaharragoa izango zen, nik uste. Bere ordu arteko historia zer izan zen ezin zidan kontatu; baina haren amaren arrastorik inoiz ikusi ez nuenez, umezurtza izango zela uste nuen. Nolanahi ere gurasoak izateak ez zuen askorik inporta gure taldean. Ezkontza hasiera-hasieran zegoen oraindik, eta bikoteak beti zuen haserretzeko eta bereizteko bidea. Gizon modernoak, dibortzioaren instituzioarekin, gauza bera egiten du lege barruan. Baina guk ez genuen legerik. Ohiturak ziren gure araua, eta gai honetan, hain zuzen, promiskuo samarrak ginen.

Nolanahi ere, kontaketa honetan aurrerago ikusiko den bezala, ordurako bagenuen joeratxo bat geroago beren barrenean ohitura hori hartu zuten tribuei sendotasuna eta boterea

emango zien monogamiarako. Ni jaiio nintzenerako bazen, gainera, elkarri fideltasuna gordetzen zioten bikoteren bat edo beste amaren inguruan zuhaitzetan bizi zirenen artean. Talde barreneko bizitzak ez zuen laguntzen monogamiarako. Horregatik elkarri fideltasuna zioten bikoteek alde egiten zuten gure taldetik, beren gisara bakarrik bizitzeko. Bikote horiek urteak egiten zituzten elkarrekin, baina senarra edo emaztea hiltzen bazen edo piztiaren batek jaten bazuen, bizirik geratzen zenak beti aurkitzen zuen beste bizilagun bat.

Gauza batek utzi ninduen harrituta taldean bizi izan nintzen lehenengo egunetan. Bazan izenik gabeko eta ezin adierazizko izu bat denak mendean zituena. Hasieran noranzko-kontu bat zela iruditu zitzaidan. Gure taldea ipar-ekialdearen beldur zen. Zerumuga haren beldurrez bizi zen. Sarritan begiratzen zuten harantz, eta beste inorantz baino alarma handiagoz begiratu ere.

Belarri Makur eta biok, zuztar gizenezko azenarioak sasoirik onenean zeudenean haiek jatera ipar-ekialderantz joaten ginenean, inoiz baino herabeago bihurtzen zen. Uzkinak, azenario handi gogortuak edo txiki maskalak janda nahikoa izaten zuen urrutixeago menturatu baino, han helduak eta inork ukitu gabeak egon arren. Ni ausartzen nintzenean, errietan egiten zidan eta ez zen ados egoten. Alde hartan arrisku beldurgarri bat zela adierazten zidan; baina bere hizkuntzaren urritasunak ez zion uzten arrisku ikaragarri hura zer zen adierazten.

Janaldi eder askoak egin nituen horrela, bera alfer-alferrik orroka eta garrasika ari zitzaidan bitartean. Ez nion ulertzen. Ni azti egoten nintzen beti, baina ez nuen arriskurik ikusten. Beti ateratzen nuen kontua zenbateko distantzia zegoen hurbileneko zuhaitzera, eta banekien Lehoiak edo Ezpata Haginek, kolpetik azalduta ere, harrapatu baino lehen iritsiko nintzela haren babesera.

Arrats batez, ia ilun zela, iskanbila handi bat sortu zen herrixkan. Sentipen bakar batek pizten zuen taldea: izumenak. Taldea labarretan pilatuta zegoen, ipar-ekialdera begira eta harantz seinalatuz. Ez nekien zer zen, baina instintuz nire haitzulotxoko babesera abiatu nintzen lasterka, begiratzeko biratu baino lehen.

Eta orduan ikusi nuen lehendabiziko aldiz, erreka beste aldean, urruti, ipar-ekialdera, kearen misterioa. Inoiz ikusi nuen animaliarik handiena zen. Suge munstro bat zela iruditu zitzaidan, zuti, burua zuhaitzik garaienen gainetik jasota, aurrera eta atzera zabuka. Hala eta guztiz ere, ez dakit nola, taldearen jarreragatik, egiazko arriskua kea ez zela antzeman nion. Beste zerbaiten seinalea zirudien beldur hark. Beste zer hori zer zen ezin nuen asmatu. Eta beraiek ezin zidaten esan. Baina berehalaxe jakingo nuen, eta ulertuko nuen hura beldurgarriagoa zela Lehoia baino, Ezpata Hagin tigrea baino, sugeak berak baino, horiek baino gauza beldurgarriagorik ezer ezin izan zitekeela bazirudien ere.

VII. KAPITULUA

Hagin Mailatu ere bere kontura bizi zen mutiko horietako bat zen. Ama haitzuloetan bizi zuen, baina beste bi seme etorri ziren ondoren, eta kanpora bidali zuten, bere kabuz bizi zedin. Aurreko egunetan ikusi genuen gertaera hori, eta ez gozamen gutxiz hala ere. Hagin Mailatuk ez zuen alde egin nahi, eta ama haitzulotik urrundu bezain laster, berriro sartzen zen ezkutuka. Ama itzuli eta han aurkitzen zuenean, ikustekoa izaten zen nola haserretzen zen. Taldearen erdia hantxe geratzen zen ikuskari hura ikusteko. Amaren orroak eta garrasiak entzuten ziren lehendabizi haitzulotik. Gero jipoi-hotsak eta Hagin Mailaturen oihuak. Orduan bi anaia gazteagoak ere sartzen ziren. Eta azkenik, miniatrazko sumendi baten eztanda balitz bezala, kanpora jaurtitzen zuten Hagin Mailatu.

Egun batzuen buruan behin betirako bota zuten etxetik. Zabaldiaren erdian egon zen lantua jotzen, ordu erdi gutxienez, eta gero Belarri Makurrekin eta nirekin bizitzera etorri zen. Gure haitzuloa txikia zen, baina ondo estutuz gero bazegoen lekua hirurontzat. Ez naiz gogoratzen Hagin Mailatuk gau bat baino gehiago egin zuenik gurekin; horregatik, berehalaxe gertatu zitzaion istripua, nik uste.

Eguerdi batez izan zen. Goizean azenarioz ase ginen eta, ondoren, jolasetan axolagabeturik, aurreragoko zuhaitz handietara joaten ausartu ginen. Ez dut ulertzen nola gainditu zuen Belarri Makurrek bere betiko beldurra; jolasaren eraginez, inondik ere. Gustura ari ginen zuhaitzetan atxiloketan. Hura atxiloketa! Hamar-hamabost oineko jauziak egiten genituen, ezer ez balira bezalaxe. Guretzat hutsaren hurrengo zen hogeitahogeita bost oineko altueratik behera jauzi egitea. Beldurra eta guzti ematen dit nolako jauziak egiten genituen esateak. Helduago eta astunago egin ginenean ikasi genuen jauzi horietan kontu gehiago erabiltzen; baina adin hartan gure gorputza zaina eta kirioa besterik ez zen, eta edozer egin genezakeen. Hagin Mailatuk aparteko zalutasuna zuen jolas horretan. Hura beste inor baino gutxiagotan geratzen zen atxilo, eta jolasean ari ginenean beti asmatzen zuen zilipurdi zailen bat, ez Belarri Makur ez ni egiteko gauza ez ginena. Egia esateko, beldur ginen saioa egiteko ere.

Gutakoren bat atxilo zenean, Hagin Mailatu bagenekien zuhaitz baten goreneneko adarreraino igotzen zen beti. Handik lurrera hirurogeita hamarren bat oin izango ziren, eta erorikoari eusteko ezer ez zuen azpian. Bera baino hogeiren bat oin beherago, haren perpendikularretik hamabosten batera, beste zuhaitz baten adar sendo bat zegoen.

Azkeneko adarreraino jarraitzen genionean, aurre egin eta zabuka hasten zen Hagin Mailatu. Horrek aurrera jarraitzea eragozten zigun, jakina; baino beste helburu bat ere bazuen. Egin behar zuen jauziari bizkarra eman ez egiten zuen zabuka. Eta harrapatzera gindoazenen unean, askatu egiten zuen. Zabuka egiten zuen adarra jauzi-ohol bat bezala erabiltzen zuen. Erortzean urruti jaurtitzen zuen atzeraka. Eroriz zihoala, alboka okertzen zen airean, heldu behar zion adarraren aurrez aurre geratzeko. Adarra okertu egiten zen, kolpeagatik, eta inoiz pitzatze-hots beldurgarri bat ere entzuten zen; baina inoiz ez zitzaion zartatu, eta beti ikusten genuen berriro hosto artean Hagin Mailaturen aurpegia garaipenezko irribarrea eginez.

Niri tokatu zitzaidan atxilo egotea Hagin Mailatu saiatu zen azkeneko hartan. Adarraren puntaraino igo zen, eta zabuka hasi; gerturatzen ari nintzaion; horretan Belarri Makurren alarma oihu ito bat entzun zen. Behera begiratu eta adar nagusia zuhaitzaren enborretik bereizten zen lekuan ikusi nuen, enborraren kontra estutzen. Neu ere adar lodia kontra estutu nintzen, instintuz. Hagin Mailatuk kulunkatzeari utzi zion, baina adarra ez zen gelditu, eta haren gorputzak gora eta behera jarraitu zuen, hosto-ikararen erdian.

Abar ihar baten zarta-hotsa entzunda, behera begiratu, eta Suaren lehenengo Gizona ikusi nuen. Isil-gordeka zebilen lurrian, zuhaitzari begira. Animalia basatiren bat izango zela pentsatu nuen hasieran, gerri inguruan eta bizkarrean hartz-larru puska bat baitzuen. Ondoren haren eskuak eta oinak ikusi nituen, eta hazpegiak argiago. Neure motakoen antz handia zuen, salbu eta gu bezain iletsua ez zela eta oinak guk bezain eskuen antzekoak ez zituela. Izan ere, geroago ikusi ahal izan nuenez hura eta haren kideak gu baino ile gutxiagokoak ziren, gu Zuhaitzetako Gizonak baino ile gutxiagokoak ginen bezalaxe.

Segituan ohartu nintzen, hura ikusi nuenean. Hura zen kearen misterioak adierazten zuen ipar-ekialdeko izumena. Harrituta nengoen, hala ere. Ez zen izutzeko ezer. Begi Gori bera, edo gure gizonik indartsuenetako edozein nahikoa eta gehiago zen harentzat. Zaharra zen, gainera, urteek zimurtua, eta aurpegiko ilea zuriturik zeukan. Hanka bat herren eta gaizki zeukan, gainera. Zalantzarik ez zen ihes egin ahal izango geniola, eta bizkorrago igoko ginela. Ezingo gintuen harrapatu.

Nik inoiz ikusi gabeko gauza bat zerabilen, ordea, eskuan: arku eta gezia. Baina garai hartan ez bata ez besteak ez zuten ezer esan nahi niretzat. Nola ulertuko nuen bada heriotza zur puska okertu hartatik geneukala zelatan? Baina Belarri Makurrek bai, hark bazekien. Hark lehendik ikusiak zituen nonbait Suaren Gizonak, eta bazekien haien berri. Suaren Gizona begira aritu zitzaion eta zuhaitza inguratu zuen. Belarri Makurrek ere enborra inguratu zuen, enborra bere eta Suaren Gizonaren artean utziz beti.

Suaren Gizona beste aldera jiratu zen bat-batean. Belarri Makur ere, ustekabean harrapatu, bizkor jiratu zen, baina ezin izan zuen ezkutatu Suaren Gizonak arku tenkatu baino lehen.

Neronek ikusi nuen gezia hegan, Belarri Makur huts egin, adar-beso bat ukitu eta lurrera erortzen. Pozez dantzari hasi nintzen, igota nengoen adarrean. Jolasa zen! Suaren Gizona Belarri Makurri gauzak jaurtika, gu ere elkarri gauzak jaurtitzen aritzen ginenean bezalaxe.

Jolasak beste pixka batean iraun zuen oraindik; Belarri Makur, ordea, ez zen berriro agerira atera. Orduan Suaren Gizonak etsi eta utzi egin zuen. Ni aurrera makurtu eta adar etzanetik zarata ateratzen hasi nintzaion. Jolas egin nahi nuen. Gauza hartaz ni jotzen saia zedila nahi nuen. Begiratu zidan, baina ez zidan jaramonik egin; Hagin Mailaturi erreparatu zion, adar puntan baitzegoen oraindik nahi gabe zabu pixka bat egiten.

Lehenengo gezia zerurantz atera zen. Hagin Mailatuk izu eta oinazeko oihu bat egin zuen. Geziak bete-betean jo zuen. Horrek beste itxura bat ematen zion gauzari. Bertatik joan zitzaion jolasgura, eta adar atzean estutu nintzen berriro ikara batean. Beste gezi bat eta beste bat atera ziren hegan; ez zuten jo Hagin Mailatu; hosto artean zitzu egiten zuten; arku handi bat osatuosatu eta lurrera erortzen ziren berriro.

Suaren Gizonak berriro tinkatu zuen arku. Lekuz aldatu zen, urrats batzuk egin eta berriro aldatu zen. Arkuaren sokak dardara ozena egin zuen, gezia zuzen atera zen, eta Hagin Mailatu, ikaragarritzko alarau bat botaz, adarretik behera erori zen. Biraka erortzen ikusi nuen; beso eta hanka, besterik ez zirudien; gezi-kirtena bularretik ateratzen zitzaion, eta gorputzak egiten zuen itzuli bakoitzean agertzen eta desagertzen zen.

Zuzen-zuzen erori zen, garrasika, hirurogeita hamar oineko goieratik; zartada-hots sor batez jo zuen lurra, botetxo bat egin zuen eta lurrian geratu zen. Artean bizirik zegoen, mugitzen eta bihurrikatzen ari zen-eta, oinez eta eskuez atzaparka. Oraindik gogoan dut Suaren Gizon hura, harri bat hartuta harengana lasterka joan eta buruan jotzen; eta gero... ez naiz gehiagoz gogoratzen.

Haurra nintzenean, oihuka eta izuturik esnatzen nintzen, ametsean une horretara iristen nintzenean... eta sarritan ama edo inudea aurkitzen nuen, antsiaz eta larri, ohe ondoan, eskuaz ilea laztanduz eta esanez han zeudela eta ez nuela zertaz beldurturik.

Hurrengo ametsa, izaten ditudan segidan, Belarri Makur eta biok oihanean zehar ihes egin genuenekoarekin hasten da beti. Suaren Gizona, Hagin Mailatu eta tragedia izandako zuhaitzak desagertu dira. Belarri Makur eta biok zuhaitzez zuhaitz ihesi goaz, izaturik eta zuhur. Oinaze erregarri bat sentitzen dut eskuineko eskuan; Suaren Gizonaren gezi bat da, punta eta makila haragitik alde bietara agerian direla. Geziaren tirakadak eta presioak oinaze bizia eragin ez ezik, mugimendua eragozten dit, eta ez dit uzten Belarri Makurri jarraitzen.

Azkenean gelditu egin nintzen, zuhaitz baten adarren babesean kuzkurturik. Belarri Makurrek aurrera jarraitu zuen. Negarrez deitu nion, gogoan dut oraindik, eta gelditu eta atzera begiratu zuen. Niregana itzuli zen, nire adarrera etorri eta gezia aztertzeko. Tiraka ateratzen saiatu zen, baina alde batetik punta bizardunak eutsi zion, eta bestetik isats lumadunak. Sekulako oinazea egiten zidan, gainera, eta geldiarazi egin nuen.

Une batez hantxe geratu nintzen gordeta; Belarri Makur, urduri, alde egiteko irrikaz, batera eta bestera begira ari zen, beldurraren beldurrez; ni isilka negarrez eta intzirika. Belarri Makur beldurrak akabatzen zegoen, eta beldur guztiarekin ere nire ondoan geratzea gizakia abere guztietan ahaltsuena egiten lagundu duten altruismoaren eta adiskidetasunaren erakusgarritzat hartu nuen.

Berriro saiatu zitzaidan gezia haragitatik ateratzen, baina haserretuta geldiarazi nuen. Orduan makurtu eta geziaren kirtena hortzikatzen hasi zen. Horretan ari zen bitartean, geziari tinko eusten zion bi eskuen artean, zauria ez zabaltzeko, bien bitartean ni bere kontra bermatzen nintzela. Sarritan gogoratzen dut eszena hori: gu biok, umemoko hutsak, gure taldearen haurtzaroan, bata bere izumena gainditzen eta ihes egiteko agintzen dion berekoikeriari nagusitzen, nire ondoan geratu eta laguntza emateko. Eta horretan agertzen zait une hartan zantzutan baizik ez zegoen guztia, eta ikusten ditut Damon eta Pitias, salbamenduko eskifaiak, Gurutze Gorriko erizainak, martiriak, irtenbiderik gabeko itxaropenen gidariak, aita Damian, Kristo bera, eta lur honetan izan diren eta beren kemenaren jatorrizko aztarrenak Hagin Mailatu, Belarri Makur eta Mundu Sortuberri hartako beste hainbat biztanle ezezagunen arteko lotura primitibo oies haietan dituzten gizon handi guztiak.

Belarri Makurrek geziaren punta murtxikatuz kendu zuenean, aise atera zuen makila ere. Ihesari eman nion berriro; oraingoan, ordea, berak geldiarazi ninduen. Hankatik odola turrustan ari zitzaidan. Zain txikiren batzuk eten zitzaizkidan nonbait. Belarri Makur adar punta batera igo eta hosto berri eskutada bat hartu zuen. Txaplata bat egin zuen. Balio izan zuten, odola segituan gelditu zen-eta. Elkarrekin jarraitu genuen, haitzuloetako babesera itzultzeko.

VIII. KAPITULUA

Oso ongi gogoratzen naiz etxetik alde egin ondoko lehenengo neguaz. Amets luzeak izaten ditut hotzetan eserita ikara batean nagoela. Belarri Makur eta biok elkarren ondo-ondoan eserita, besoez eta hankez elkar estutuz, aurpegia hotzez urdinduta eta hortzak karraska. Hotza goizaldean izaten zen batez ere gogorra. Izotz-ordu haietan lo gutxi egiten genuen, eguna noiz argituko eta noiz berotuko zain, elkarrekin kuzkurturik, hozminduta eta oinazetan. Kanpora ateratzen ginenean, intzigarrak karraska egiten zuen oinen azpian. Goiz batean izotza aurkitu genuen edalekuko osineko ur geldien gainean, eta zurrumurru handi bat sortu zen gure artean hari buruz. Hezur Handi agure zaharra zen gure taldeko kiderik zaharrena, eta ordu arte inoiz ez zuen halako gauzarik ikusi. Oraindik ere gogoan dut nolako begirada kezkatsu, negartia zuen, izotza aztertuz. (Beti etortzen zitzaigun begietara begirada negarti hori zerbait ulertzen ez genuenean edo adierazi ezinezko desira lausoren baten ziztada sentitzen genuenean). Begi Gorik ere triste eta negarti zirudien izotza aztertzean, eta ipar-ekialderantz begiratzen zuen ibaiaz gaindi, Suaren Gizonen eta azken gertaera horren artean loturaren bat ikusiko balu bezala.

Baina, goiz hartan ezpada, beste inoiz ez genuen izotzik aurkitu, eta huraxe izan zen pairatu behar izan genuen negurik hotzena. Nik behintzat ez dut gogoan hartan bezalako hotzik egindako negurik. Askotan pentsatu izan dut, geroztik, izotz-geruza iparraldetik lur azalera zabaldu ahala etortzekoak ziren ezin konta ahalako negu hotzen aitzindaria zela hura. Baina guk ez genuen ikusi izotz-geruza hori. Belaunaldi asko joango ziren gure taldearen ondorengo belaunaldiak hegoalderago aldatu edo bertan geratu eta ingurunearen egoera aldatuara egokitu ziren arte.

Bizitza halabeharra eta zoria besterik ez zen guretzat. Plan gutxi egiten genuen, eta bete gutxiago. Gose ginenean, jan; egarri ginenean, edan; gure etsai haragijaleei ihes egin, gauerako haitzuloetan babestu, eta gainerakoan jolas egin, hori egiten genuen.

Jakin-min bizikoak ginen, olgatzen errazak, broma eta bihurrikeria ugarikoak. Seriotasunik batere ez genuen, arriskuan edo haserre ginenean salbu; horrelakoetan, ordea, mehatxua igaro orduko, berehalaxe ahazten zen dena.

Logikarik gabeak, aldakorrek, aldartetsuak ginen. Ez genuen ganorarik gure erabakietarako, eta horretantxe irabazten ziguten Suaren Gizonek. Guk hain eskas genuena, haiek soberan zutelako. Zenbait gauzatan, alabaina, emozio-bizitzan batez ere, baginen gai luzaro erabilitako asmoak burutzeko. Lehen aipatu ditudan bikote monogamikoek kasua ohitura baten ondoriotzat interpreta liteke, beharbada; baina ezingo da berdinean interpretatu Zalurekiko izan nuen grina, eta are gutxiago Begi Goriren eta bion artean beti izan zen gorroto ezkutua.

Baina gure aldaberatasunak eta ergelkeriak sumintzen naute gehiena, begiak urruneko bizitza hartara bihurtzen ditudanean. Behin kalabaza puskatu bat topatu nuen; zuloa gora begira zeukan, osorik zuen aldea beheraka, eta euritako urez beteta zegoen. Ur gozoa zen, eta edan egin nuen. Kalabaza erre kara eraman eta urez bete ere egin nuen; puska bat edan eta gainerakoa Belarri Makurri gainetik isuri nion. Eta ondoren bota egin nuen kalabaza. Ez

zitzaidan buruan sartu kalabaza hura urez bete eta haitzulora eramaterik. Nahiz eta gauzez askotan egarria izan, tipulak eta berroak jan ondoren batez ere, inori ez zitzaion burutik pasatzen gauean edatera haitzulotik kanpora ateratzerik.

Beste batean beste kalabaza lehor bat aurkitu nuen; barnean haziek hotsa ateratzen zuten. Aldi batez asko jostatu nintzen; baina jostatzeko gauza bat zen, besterik ez. Handik berehalaxe hasi ginen gure taldean kalabazak ura edukitzeko ontzi bezala erabiltzen. Asmatzailea ez nintzen ni izan; Hezur Handi agure zaharrari dagokio ohore hori, eta argitu beharra dago bere adin handiaren premiak izan zirela berrikuntza hori eragin ziotenak.

Hala bada, Hezur Handi izan zen gure taldean kalabazak lehenengo erabili zituena. Era horretara haitzuloan edukitzen zuen edateko ur-hornizioa; izan, bere seme Bizar Motzena zen haitzuloa, eta aitari zoko bat uzten zion. Guk sarritan ikusten genuen Hezur Handi edalekuan bere kalabaza urez bete eta gero kontu handiz haitzulora eramaten. Imitazioa oso errotuta zegoen gure taldean; eta horrela, lehendabizi batek, gero beste batek eta ondoren besteak, antzera egin genuen denek, era horretara ur-hornizioa egiteko ohitura zabaldu zen arte.

Batzuetan Hezur Handi agure zaharrak gaixoaldiak izaten zituen eta ezin izaten zuen haitzulotik irten. Halakoetan Bizar Motzek bete ohi zion kalabaza. Handik pixka batera Bizar Motzek bere seme Ezpain Luzeri utzi zion eginkizun hori. Gero, Hezur Handi sendatu ondoren ere, Ezpain Luzek jarraitu zion ura eramaten. Gerora, gizonaek ez zuten urik gehiago garraiatzen eta emakumeei eta haur hazitxoei eginarazten zieten lan hori. Belarri Makur eta biok geuron kontura genbiltzan. Geuretzako ura besterik ez genuen garraiatzen, eta askotan burla egiten genien gainerako mutikoei, jolasa utzi eta kalabazak betetzeko deitzen zietenean. Aurreramendua geldiro egiten zen. Jende larriak ere jolasean ematen zuen denbora gehiena, gaur egun haurrek ematen duten bezala; horretan irabazi egiten genien beste animalia guztiei. Ikasten genuen apurra ere jolasetik edo gure jakin-minetik eta interesetik sortua izaten zen. Hain zuzen ere, kalabazaren erabilera hori izan zen taldeak, haiekin bizi nintzen artean, egin zuen asmazio handi bakarra. Hasieran ura gordetzeko besterik ez genituen erabiltzen, Hezur Handi zaharrak bezala.

Egun batean ordea, emakumeetako batek, zeinek ez dakit, kalabaza bat masustaz bete eta haitzulora eraman zuen. Handik gutxira emakume guztiek erabiltzen zituzten kalabaza hustuak, fruituak, intxaurrak eta sustriak garraiatzeko. Behin ideia abiatu, aurrera egin behar zuen. Garraiatzeko ontziaren beste eboluzio bat ere emakumeek eragin zuten. Batzuen kalabaza oso txikia zen nonbait, edo baten bati ahaztu egin zitzaion beharbada; nolana dela ere, bi hosto handi lotu zituen, ertzak ihiz elkarri josita, eta gure kalabazarik handiengan sar zitekeena baino fruitu gehiago ekarri zuen.

Horretaraino iritsi ginen, ez gehiago, hornizio-garraioari dagokionez, ni taldean bizi izan nintzen artean. Inori ez zitzaion bururatu zumez saski bat egiterik. Batzuetan haitzuloetan etzauntzak egiteko ekartzen zituzten garo edo abar sortak zotz malgu batzuez edo aihenaz lotzen zituzten gizonek eta emakumeek. Handik hamar edo hogeita belaunaldira asmatuko genuen, beharbada saskigintzako artea. Baina gauza bat da segurua: zumez saskiak egiten hasi baginen, hurrengo pausoa oihala ehuntzekoa izango zen zalantzarik gabe. Horren ondoren jantzia, eta gure biluztasuna estaltzean, lotsa sortuko zen.

Halaxe izan zen Mundu Sortuberri hartan bultzada berri bat. Baina guk ez genuen bultzada hori. Hasten ari ginen, eta belaunaldi bakarrean ezin ginen oso aurrera iritsi. Ez genuen armarik, ez surik, eta hizkuntzaren hasi-masietan geunden. Idazkeraren asmazioa hain urruti zegoen artean, non pentsatzeak berak ere izua eragiten baitit.

Behin, ia asmazio handi bat egin nuen. Garai hartan aurreramenduak zein ustekabeak ziren erakusteko, esango dizuet Belarri Makurren tripazalekeriagatik izan ez balitz, txakurra etxekotzea asmatu izango nukeela. Ipar-ekialdean bizi ziren Suaren Gizonek ez zuten gainera oraindik horrelakorik lortu. Ez zeukaten txakurrik; neure begiez ikusita dakit hori. Konta dezadan, baina, nola geldiarazi zuen Belarri Makurren tripazalekeriak, belaunaldi askotarako geldiarazi ere beharbada, gure gizartearen aurreramendua.

Gure haitzuloetatik mendebalera, nahiko urruti, istingadi handiak zeuden, eta hegoaldera harkaitz-menditxo lerro apal bat hedatzen zen. Inor gutxi ibiltzen zen alde hartan, bi arrazoiengatik. Batetik, guk jaten genuen erako janaririk ez zegoelako; eta, bigarrenik, harkaitz haiek piztia haragijaleen zuloz bete-beterik zeudelako.

Egun batez, ordea, Belarri Makur eta biok menditxo haietan galdu ginen. Ez ginatekeen galduko tigre bati segika ez bagenbiltza. Ez barre egin, mesedez. Ezpata Hagin zaharra zen. Ez genuen arriskurik. Basoan topatu genuen, goizean goiz, eta goreneko adarretako babesetik gure gorrotoa eta aiherkundera oihuz adierazten genion. Eta adarrik adar, zuhaitzik zuhaitz jarraitu genion goialdetik, infernuzko zarata batean eta basoko biztanle guztiei Ezpata Hagin tigre zaharra han zela jakinaraziz.

Horrekin erabat uxatzen genion ehiza. Sekulako amorrua harrapatu zuen. Orroka ekiten zigun, isatsa astintzen zuen, aldian-aldian gelditu eta puska batean begira geratzen zitzaigun, guri atzaparra nola erantsi pentsatzen ariko balitz bezala. Baina guk barre eginez, adar-puntak eta abarrak jaurtiz erasotzen genion.

Tigreari erasotzeko hori jolas bat genuen gure taldean. Zenbaitetan taldearen erdia aritzen zen egun bete-bete oihanean zehar menturatu zen lehoiren edo tigreren bati zuhaitz gainetatik segika. Horixe zen gure mendekua; zeren gutako bat baino gehiago joan baitzen, ustekabean harrapatuta, tigrearen edo lehoiaren sabelera. Eta ezintasun eta lotsazko erakustaldi horien bidez erakutsi genien beharbada ehizako piztiei gure lurraldetik kanpo egoten ere. Eta jostagarria izaten zen. Jolas ederra.

Horrelaxe jarraitu genion Belarri Makurrek eta biok Ezpata Hagini legoa batez baino gehiagoz oihanean barrena. Azkenean isatsa hanka artean sartuta alde egin zuen gure burletatik, txakur egurtu bat bailitzan. Ahalegin guztiak egin genituen ihes egin ez ziezagun, baina oihanaren ertzerira iritsi ginenean, urrutiko puntutxo bat besterik ez zen.

Ez dakit zerk bultzatu gintuen, jakin-mina ez bazen; baina gauza da une batez han jolasean aritu ondoren, lur soiletik aurrera menturatu ginela Belarri Makur eta biok, harkaitz-muinoen ertzerantz. Ez ginen urruti joan. Seguru asko behin ere ez ginen ehun yarda baino gehiago urrundu zuhaitzetatik. Haitz zorrotz samar baten ertzetik igarotzean (oso kontuz genbiltzan, ez genekielako zer topatu behar genuen), aurrez aurre non topatzen ditugun hiru txakurkume eguzkitan jolasean.

Ez gintuzten ikusi, eta puska batean begira egon gintzaizkien. Basatxakurrak ziren. Harkaitz-horman zabaletara zegoen zirrikitu bat: amak utzi zituen habia, zalantzarik gabe, esana bete izan balute egon behar zuten lekua. Baina Belarri Makur eta neroni haraino menturatzera bultzatu gintuen bizipoz berberak atera izango zituen txakurkume haiek beren habiatik jolasera. Badakit nola zigortuko zituzkeen amak gaiztakeria hartan harrapatu izan balitu.

Belarri Makurrek eta nik harrapatu genituen, ordea. Belarri Makurrek begiratu zidan, eta biok batera oldartu ginen. Ez zekiten nora ihes egin, habiara ez bazen; baina aurea hartu genien. Haietako bat nire hanka artera sartu zen korrika, baina makurtu eta harrapatu egin nuen. Hagintxo zorrotzak besoan iltzatu zizkidan; bat-bateko oinazearen ustekabeak askarazi zidan. Ikusi orduko habian barrena ezkutatu zen.

Belarri Makur bigarren kumearekin borrokan ari zen, amorruzko keinu bat egin zidan eta mila modutan adierazi zidan zein ergela eta ezertarako ezgauza nintzen. Lotsa eragin zidan eta ausartzera bultzatu ninduen. Beste txakurkumeari isatsetik heldu nion. Hark ere hozka egin zidan behin, eta lepa-zamarretik heldu nion. Belarri Makur eta biok eseri egin ginen; txakurkumeak airean jaso genituen; haiei begiratu eta barre egiten genuen.

Uluka, zaunka eta negarrez ari ziren. Belarri Makur ikaratu egin zen bat-batean. Zerbait entzun zuela iruditu zitzaion. Beldurturik begiratu genion elkarri, eta gure egoeraren arriskuaz ohartu ginen. Bere umeak ukitzeak deabru amorratua bihurtzen du edozein animalia. Eta iskanbila hura guztia ateratzen zuten ume haiek basazakurrenak ziren. Ederki ezagutzen genituen guk, basazakur haiek; taldeka ibiltzen ziren; animalia belarjaleen izua ziren. Ikusiak genituen behi eta bisonte saldoei segika, jaioberriak, zaharrak eta gaixoak botatzen. Geuri ere behin baino gehiagotan ibili zitzaizkigun segika. Nik behin ikusia nuen gure taldeko emakume bat nola bota eta harrapatu zuten zuhaitzetako babesera iristear zegoenean. Korrikaldiak nekatu izan ez balu adarretara igotzeko gauza izango zen. Saiatu zen, baina irrist egin eta lurrera jausi zen. Segituan akabatu zuten.

Unetxo batez begiratu genion elkarri. Gure harrapakinei ondo heldurik, basorantz jo genuen lasterka. Zuhaitz garai baten segurtasunean, txakurkumeak jaso eta barre egin genuen berriro. Ikusten duzue zein erraz hasten ginen barrez, edozer gertatuta ere.

Eta orduan hasi zen inoiz hasi dudan zereginik zailenetako bat. Txakurkumeak haitzulora garraiatzen hasi ginen. Zuhaitzetara igotzeko eskuak erabili ordez, preso geneuzkanei eusteko erabili behar genituen, ihes egin nahi ziguten-eta. Lurrean oinez joaten saiatu ginen, baina azpitik segika ari zitzaigun hiena zital batek zuhaitzetara igotzera behartu gintuen. Hiena bizkorra zen hura.

Belarri Makurri ideia bat bururatu zitzaion. Hosto pilak, etzauntza egiteko lotuta nola eramaten genituen gogoratu zuen. Aihena-adar sendo samar batzuk hautsi, bere txakurkumeari hankak lotu, beste adar batez, lepo-bueltan jarri eta bizkarrean zintzilikatu zuen. Horrek hankak eta eskuak libre utzi zizkion, igotzeko. Pozik zegoen, eta ez zidan itxaron nire txakurkumeari hankak lotu arte, eta abiatu egin zen. Bazegoen eragozpen bat hala ere. Txakurkumea ez zegoen geldu Belarri Makurren bizkarrean. Alde batera mugitu zitzaion, gero aurrera. Hortzak ez zeuzkan lotuta eta hozkada bat eman zion Belarri Makurri babestu gabe zeukan sabelean. Garrasi bat egin zuen hark, ia erori zen, eta bi eskuez adar sendo bati heldu

beharra izan zuen, salbatuko bazen. Lepoko aihena eten egin zen, eta txakurkumea, artean hankak lotuta zituela, lurrera erori zen. Hienak jan zuen.

Belarri Makur haserretuta eta amorratuta zegoen. Hienari irainka aritu, eta gero zuhaitz artean barrena joan zen bakar-bakarrik. Nik ez neukan nire txakurkumea haitzulora zertan eramanik; baina eraman egin nahi nuen eta asmoa betetzeko geratu nintzen. Eta Belarri Makurren ideia berbera landuz asko erraztu nuen lana. Hankak lotu ez ezik, ahoan adar bat trabes sartu, eta gogor lotu nion.

Azkenean txakurkumea haitzulora eraman nuen. Iruditzen zait gure taldekoak ohi ginena baino setatsuagoa izan nintzela, bestela ez bainuen lortuko. Animalia hura haitzulora sartzeko arrastaka nekarrela ikusi zutenean, barre egiten zidaten, baina ez zitzaidan inporta. Arrakasta lortu nuen, eta han zegoen nire txakurkumea. Gure taldeko beste inork ez zeukan hura bezalako jostailurik. Bizkor ikasi zuen. Jolasean hozka egiten zidan bakoitzean, belarritik tira egiten nion, eta puska batean ez zuen berriro hozka egiten.

Liluratuta nengoen harekin. Gauza berria zen, eta taldekoak oso zaleak ginen gauza berri guztietarako. Fruituak eta landareak ez zituela nahi ikusi nuenean, txoriak, katagorriak eta untxitxoak ehizatu nituen beretzat. Gu landarejaleak bezain haragijaleak ginen, eta gustura aritzen ginen piztia txikien ehizan. Txakurkumeak haragia jaten zuen, eta hazten ari zen. Astebete baino gehiagoan eduki nuen, nik uste. Egun batean txita-aldi bateko faisai jaioberri habikada bat nekarkiola, Belarri Makurrek txakurkumea hil eta orduantxe jatera zihoala ikusi nuen. Gainera jauzi egin –haitzuloa estua zen– eta atzamarka eta hozka eraso genion elkarri. Eta hantxe, borroka batez, bukatu zen zakurra hezteko lehenengo ahaleginetako bat. Eskutadaka ile atera genion elkarri, atzaparka, hozka egin genion, elkarri begiak ateratzen ahalegindu ginen. Lehenengo haserretu, eta gero bakea egin genuen. Eta gero txakurkumea jan genuen. Gordirik? Bai. Sua asmatu gabe geneukan oraindik. Piztiak jateko prestatzeko eboluzioa etorkizunaren pergamino ongi lotuan zetzan oraindik.

IX. KAPITULUA

Begi Gori atabismo bat zen. Begi Gori zen gure taldean egokitzen ez zen elementu nagusia. Gutako beste edozein baino primitiboagoa zen. Izatez ez zen gutakoa; baina geu ere hain primitiboak ginen oraindik, non ez baikinenez gauza guztion ahalegin bateratu batez hura hiltzeko edo gure artetik kanpora egozteko. Gure antolamendu soziala zen bezain oiesa izanik ere, Begi Gori zakarregia zen hartan bizitzeko. Bere jokaera antisozialen bidez, taldea desegiteko joera izaten zuen beti. Izan ere, tipo primitiboago baterako atzeramendua zenez, Zuhaitzetako Gizonen artean hobeto zegokeen haren lekua, gure artean baino, gu gizaki bilakatzeko bidean baikeuden.

Ankerkeriazko munstro bat zen, eta asko esatea da hori garai haietarako. Tratu txarra ematen zien bere emazteei; emazteak, hain zuzen, ez aldi berean asko edukitzen zituelako, askotan ezkondu zelako baizik. Harekin ezin zuen bizi inongo emakumek, baina beharturik bizi ziren. Ez zegoen hari ukatuko zitzaionik.

Hari aurre egiteko indarra zuen gizonik ez zegoen.

Askotan izaten ditut gure taldearen ilunabar aurreko ordu bare horretako ikuspenak. Edalekueetatik azenario-sailetaraino, haitzuloen aurreko zabaldian elkarturik. Gehiago luzatzen ez ziren ausartzen, zeren bazetorren iluna eta ordu horretan piztia haragijaleen ankerkeriarako zabaltzen zen mundua, gizakien asaba haiek beren zuloetan dardaraz ezkututzen ziren bitartean.

Minutu batzuk baditugu oraindik gure haitzuloetara igo aurretik. Egunean zehar egindako jolasak nekaturik gaude, eta gure oihiak moteldu egiten ditugu. Kumeek ere, oraindik ere bromak eta bihurrikeriak egin nahiko lituzketen arren, kontuz egiten dute jolas. Itsasotik datorren eguratsa gelditu da, eta itzaltzen ari den eguzkiaren azken hondarrarekin iluna hedatzen da. Eta orduantxe, bat-batean, negar oihi bat eta kolpe-hotsa iristen da Begi Goriren haitzulotik. Emaztea jotzen ari da.

Hasieran beldurrezko isiltasun batek biltzen gaitu. Baina kolpeak eta garrasiak gelditzen ez direnez, ezintasunezko ardaila bat hasten da gure artean. Garbi dago gizonek gaizki hartzen dituztela Begi Goriren jokamolde haiek, baina koldartuegi daude. Kolpeak gelditzen dira, eta poliki-poliki isiltzen da zotin itoa, guk gure erausian jarraitzen dugu, eta iluntasun triste bat hedatzen da gure gain.

Guk, nahiz eta ia gauza guztiak txantxatzen hartu, Begi Gorik emazteak jotzen zituenean ez genuen barrerik egiten. Bagenekien zer zen haien tragedia. Behin baino gehiagotan aurkitu genuen goizean labarraren oinean haren azkeneko emaztearen gorpua. Hil eta gero haitzuloaren sarreratik haraxe botata. Bere hildakoei inoiz ez zien lur ematen. Taldeari uzten zion gorpua, bestela gure bizilekua kutsatuko zukeena, handik kentzeko lana. Guk errekarra bota ohi genituen, azkeneko edalekua baino urrutiago.

Baina Begi Gorik ez zituen bere emazteak bakarrik hiltzen, emazteak beretzeko ere hiltzen zuen. Beste emazte bat nahi eta beste gizon batena aukeratzen zuenean, hil egiten zuen hura. Neuk ikusi nituen hilketa horietako bi. Gure talde osoak zekien, baina ezin zuen ezer egin.

Oraindik gobernu-sistematik garatu gabe geneukan, nolabait esateko, taldearen barruan. Ohitura batzuk genituen, eta ohitura horiek hausten zituztenek gure haserrea ezagutzen zuten. Horrela, adibidez, edalekuak zikintzen zituenari, ikusten zuen edonork eraso ziezaiokeen, eta norbaitek gezurrezko alarma oihua nahita jotzen baldin bazuen, jipoi ederra hartuko zuen gure aldetik. Begi Gorik, ordea, hankapean erabiltzen zituen ohitura guztiak, eta hainbestearinoko beldurra genion, non ez baikinena gauza hura zigortzeko ekintza kolektibo bat antolatzeko.

Haitzuloan generaman seigarren negualdian ohartu ginen Belarri Makur eta ni hazi egin ginela. Hasieran estutu egin behar izaten genuen sarrerako arrakalatik sartzeko. Horrek bazituen bere alde onak, nolana ere. Nagusiei gure haitzuloa berentzat hartzea eragozten zien. Huraxe baitzen haitzulatorik gutziagarriena ere, labarretan gorenena, seguruena eta neguan txikiena eta epelena.

Gure taldekoen adimenaren garapen maila zein zen ikus dezazuen, aski da esatea oso gauza erraza izango zela haietako batzuentzat gu handik bota eta gero sarrerako arrakala zertxobait zabaltzea. Baina ez zitzaien bururatzen. Ez Belarri Makurri ez niri ez zitzaigun bururatu horrelakorik, tamainaz handitu eta sarrera zabaltzera behartu ginen arte. Uda aurrera zihoala eta gu ondo janda lodituta geundenean gertatu zen hori. Aldika eta gogoak ematen zigunean lan egiten genuen.

Hasieran atzamarka harrotu genituen harri askatuak, azkazalak mintzeraino, harik eta, ustekabeen, arbela harrotzeko egur puska bat erabiltzea bururatu zitzaidan arte. Hasieran funtzionatu zuen. Baina hondamendia ekarri zigun. Goiz batean, puska pilatxo bat geneukan hormatik kanpora aterata. Begiratu gabe, bultzada bat eman nion sarrerako pilari. Hurrengo gauza amorrutzko garrasi bat entzun genuen behetik. Ez zegoen begiratu beharrik. Nahi baino hobeto ezagutzen genuen ahots hura. Begi Goriren gainera erori zen zaborra.

Haitzulo barreanean kuzkurtu ginen, atsekabez. Minuturako haitzulo-sarreran genuen, bere begi gorituez barrura begira, deabrua bezala suturik. Baina handiegia izan. Ezin zuen gureganaino sartu. Horretan, alde egin zuen. Susmagarria zen. Gure kideak ezagutzen genituenagatik, geratu egin behar zuen, amorrua ateratzeko. Sarrerara herrestatu eta begiratu egin nuen. Orduantxe ikusi nuen Begi Gori berriro malkarrean gora. Makila luze bat zekarren esku batean. Zer asmo zekarren asmatu genuenerako haitzulo sarreran genuen berriro, makila harekin basati baten moduan jo nahiz.

Sekulako kolpeak jotzen zituen. Erraiak aterako zizkigukeen, harrapatu izan bagintu. Alboetako hormen kontra estutu ginen, han haren irismenetik ia kanpo baikeunden. Baina zirika eta zirika, behin edo beste jotzen gintuen, amorrutz, eta ile eta azal puskek eramaten zizkigun makila-puntaz. Oinazez garrasi egiten genuen bakoitzeko poz-orro bat egiten zuen eta gogorrago ekiten zigun.

Ni amorratzen hasi nintzen. Garai hartan oldarkorra nintzen, eta nire ausardia handitxo, oraingo honetan sagu inguratuaren ausardia areago bazen ere. Makilari eskuaz heldu nion; baina halako indarra zuen, non arrakalara jaurti baininduen. Bere beso luzeaz harrapatu ninduen eta erpeaz haragia urratu zidan, jauzi batez atzera egin eta alboko paretaren nolabaiteko babesera nindoanean.

Berriro zitzak ekin zigun, eta izugarritzko kolpea eman zidan ezkerreko bizkarrean. Belarri Makurrek, beldur-ikaraz egon eta jotzen zuenean garrasi egin, ez zuen beste ezer egiten. Neuk ere zizta egiteko makila bat bilatu nuen, baina adaska bat besterik ez nuen aurkitu, hatz bat lodi eta oin bete luzea. Begi Goriri jaurti nion. Ez nion minik egin, baina are amorru gehiagor orro egin zuen bat-batean, erantzun niolako. Amorru bizitan hasi zen zirika. Harri puska bat hartu eta bota egin nion; bete-bete jo nuen bularrean.

Horrek adorea eman zidan; bera bezain amorraturik nengoen, gainera, eta beldur guztia joan zitzaidan. Horatik beste harri puska bat erauzi nuen. Bi edo hiru libra izango zen. Indar guztiaz jaurti eta aurpegi bete-bete jo zuen Begi Gori. Ia akabatu nuen bertan. Atzeraka balantzatu zen, makila lagata, eta ia erori zen malkarretik behera.

Itxura beldurgarria zuen, aurpegia odolez estalita, orroka eta hortzak basurdearen gisan karraskatuz. Begietatik odola garbitu zuen, begirada izugarri bat bota zidan eta amorruz sutan orro egin zuen. Makila galdua zuen; eta harriak erauzi eta harrika hasi zitzaidan. Horrela munizioz hornitzen ninduen. Berak jaurti ahala jaurtitzen nion nik, hobeto gainera, apara bikaina eskaintzen zidan-eta; berak, berriz, ikusi ere ozta-ozta ikusten ninduen, pareta kontra estutzen nintzelako.

Horretan bat-batean desagertu zen berriro. Haitzulo ertzetik jaisten ari zela ikusi nuen. Talde osoa bildurik zegoen, eta isilik eta beldurrez begiratzen zigun. Jaisten ari zela ikusita, beldurtienak lasterka ezkutatu ziren beren haitzuloetan. Oraindik ere ikusten ari naiz Hezur Handi zaharra, ahal zuen bizkorrena, balantzaka. Begi Gorik malkarretik jauzi egin eta hegaldi batean egin zituen azkeneko hogeita gehiago oinak. Ihesian malkarretik igotzen hastera zihoan ama gaixo baten ondoan lurreratu zen. Beldurrez negarretan hasi zen, eta bi urteko haurra, bularrari helduta zihoana, askatu eta Begi Goriren oinetara erori zen. Amak eta Begi Gorik, biek nahi izan zuten harrapatu, baina Begi Gorik harrapatu zuen. Hurrengo unean haurraren gorputza airean jiratu eta haitzaren kontra nola lehertzen zuen ikusi nuen. Ama lasterka joan, besoetan hartu eta garrasika makurtu zen.

Begi Gorik makilaren bila jarraitu zuen. Hezur Handi agureak, ihesian balantzaka, Begi Gorirekin topo egin zuen. Begi Goriren eskutzarra luzatu, eta lepotik heldu zuen agure zaharra. Lepoa bihurritu behar ziola iruditu zitzaidan. Haren gorputza erori egin zen, patuari men eginez bezala. Begi Gorik zalantza egin zuen une batez, eta Hezur Handik, ikara batean, burua makurtu, besoak gurutzatu eta aurpegia estali zuen. Begi Gorik muturrez aurrera jaurti zuen lurraren kontra. Hezur Handik ez zuen zirkinik ere egin. Hantxe geratu zen, heriotzaren beldurrak, negarrez. Bizar Motz ikusi nuen orduan, zabaldian, etsimenez bere bularraren kontra ukabil kolpeka, baina aurrera ausartu ezinda. Eta orduan, bere izaeraren inkoherentziari jarraituz, nonbait, Begi Gorik, agure zaharra bertan behera utzi, eta makila jaso zuen.

Berriro malkarrera itzuli eta igotzen hasi zen. Belarri Makur, nire ondoan baitzegoen begira, haitzulo barrenera abiatu zen laster batean, arrastaka. Garbi zegoen gu hiltzera zetorrela Begi Gori. Etsita eta amorraturik nengoen baina ez nuen beldurrik. Erlaitzetan alde batetik eta bestetik harri kozkor handiak bildu nituen haitzuloaren sarreran. Begi Gori ni baino metro batzuk beherago zegoen, haitz-mutur irten batek ezkutaturik. Gora zetorreanean, haren burua

azaldu zen, harri handi bat bota nion. Ez zuen jo, baina haitzaren kontra jo eta hautsi egin zen; begietara hautsa erori zitzaion, eta atzera egin eta bistatik ezkutatu zen.

Barreak eta algarak entzun ziren taldean, ikuslearen papera egiten ari baitzen. Bazen, azkenik, Begi Goriri aurre egitera ausartzen zitzaion bat. Haien gorak eta txaloak airean entzunda, Begi Gori orro eginez jiratu zitzaion, eta bertatik mututu ziren guztiak. Bere boterearen agiriko froga hark harroturik, burua agerira atera zuen, eta bere begirakuneen, keinuen, hortz karraskaren bidez, ikaratu egin nahi izan ninduen. Keinu ikaragarriak egiten zituen, buru gaineko azala bekainetaraino zimurtuz, kopetatik kaskagainerainoko ile guztia lastuz, arantzazko koroa bat balu bezala tenteturik.

Haren itxurak ikara eragin zidan, baina nire izumena gainditu, eta harri bat hartu eta mehatxu egin nion berriro. Aurrera egiten saiatu zen; harria jaurti nion, baina huts egin nuen. Hurrengoan bete-betea eman nion. Lepoan jo zuen harriak. Atzera egin zuen, bistatik ezkutatu, baina ezkututzen ari zela esku batez haitz irten bati heltzen ziola eta bestea eztarrira zeramala ikusi nuen. Makila zarata batean joan zitzaion beheraino.

Ez nuen Begi Gori ikusten, baina arnasa ezin hartuta, itoka eta eztulka entzun nuen. Taldea heriotza bezain isilik zegoen. Zain geratu nintzen, haitzulo sarreran makurtuta. Itomena eta eztula isildu ziren, baina artean behin eta berriro entzuten zen nola ahalegintzen zen eztarria garbitzen. Handik pixka batera, jaisten hasi zen. Geldiro zihoan, uneoro gelditu eta lepoa luzatu edo eskuaz igurtziz.

Jaisten ari zela ikusi zutenean basora ihes egin zuen talde osoak, izumenezko garrasi basatiak botaz. Hezur Handi agurea ere, balantzaka eta ikaraz, haien atzetik zihoan. Begi Gorik ez zien erreparatu iheslariei. Zabaldira iritsi zenean, malkar ertzetik jarraitu zuen eta bere haitzulora igo zen berriro. Behin ere ez zuen begiratu ingurura.

Belarri Makurri begiratu nion, eta hark niri. Elkarri ulertu genion. Isil-isilik, eta kontu handiz, gailurrera igotzen hasi ginen. Malkarraren tontorrera iritsi ginenean, atzera begiratu genuen. Gure bizilekua huts-hutsik zegoen; Begi Gori bere haitzuloan zegoen, eta talde osoa basoan barrena desagertua zen.

Biratu eta korrika alde egin genuen. Ordeka eta maldetatik zehar jo genuen, belar artean ezkutaturik egon zitezkeen suguez arduratu gabe, basora iritsi ginen arte. Zuhaitzetara igo eta aurrera jarraitu genuen, beti aurrera, zuhaitzik zuhaitz hegan eginez, harik eta haitzuloetatik legoak eta legoak urrundu ginen arte. Eta orduan, ez lehenago, gelditu ginen adar handi batzuen segurtasunean, elkarri begiratu genion, eta barrez hasi ginen. Besoz eta hankaz elkarri heldu, begiak malkoz beterik eta alboak mintzeraino barre eta barre eta barre.

X. KAPITULUA

Nahikoa barre egin genuenean, egindako bidean atzera itzuli ginen Belarri Makur eta biok, eta ahabiak izaten ziren paduran bazkaldu genuen. Urte batzuk lehenago mundu honetan amarekin lehenengo ibiliak egin nituen paraje berberak ziren. Harrez gero oso bakanetan ikusi nuen berriro. Taldeari haitzuloetan bisita egiten zionetan, ni basoan ibiltzen nintzen normalean. Behin edo bitan Kalakari berriro ikusia nuen zabaldian, eta nire haitzuloaren sarreratik aieruak eginez haserrarazteko gozamina hartu izan nuen. Jolas horiez aparte, inoiz ez nintzen arduratu nire familiaz. Ez zitzaidan askorik axola, eta bestela ere ederki moldatzen nintzen neure gisara.

Ase arte ahabiak jan eta, laguntzeko, bi habia bete arrautza ongi txitatu janda, Belarri Makur eta biok kontuz gindoazen basoan zehar ibairantz. Inguru hartan zen nire behinolako zuhaitzeko bizilekua, Kalakarik hartatik kanpora egotzi ninduena. Oraindik ere okupatuta zegoen. Familia handituta zegoen. Nire amari estu-estu helduta haurtxo bat zegoen. Neskatxo bat ere bazen, nahiko hazia, behereneko adarretako batetik kontu handiz guri begira. Nire arreba zen, inondik ere; edo arreba erdia, hobeto.

Amak segituan ezagutu ninduen, baina uxatu egin ninduen, zuhaitzean gora igotzen hasi nintzenean. Belarri Makurrek, zuhurragoa baitzen ni baino, atzera jo zuen, eta ezin izan nion buruan sartu etor zedin. Geroago, ordea, arreba lurrera jaitsi, eta han eta inguruko zuhaitzetan ibili ginen arratsalde osoan, jauzika eta jolasean. Eta orduan hasi ziren arazoak. Arreba izanik ere, oso gaizki tratatzen ninduen, Kalakariren kera txar guztiak zituen-eta. Kolpetik niregana itzuli eta atzamarka egin zidan, ileetatik tira eta hortzak barreneraino iltzatu zizkidan besoan. Pazientzia joan egin zitzaidan. Ez nion min askorik egin, baina bere bizitzan hartu zuen jipoirik handiena eman nion, hori seguru.

Haren garrasiak eta makakorroak! Kalakari, egun osoan kanpoan egon eta orduantxe zetorrena, zarata entzun eta liskarra zegoen lekura oldartu zen. Ama ere lasterka zetorren; baina Kalakari iritsi zen lehena. Belarri Makur eta ni ez ginen hura iritsi zain geratu. Ospa egin genuen, eta Kalakari atzetik, zuhaitzetan zehar.

Jarraialdia bukatu, eta lasai asko barre egin ondoren, gaua zetorrela ohartu ginen. Gaua bazetorkigun, gaueko izu guztiakin, eta ezinezkoa zen haitzuloetaraino itzultzea. Begi Gori han zela, ezinezkoa zen. Besteetatik aparte zegoen zuhaitz batean babestu ginen, beraz, eta haren goreneneko adar batean igaro genuen gaua. Gau negargarria. Lehenengo orduetan euri jasa bat bota zuen, gero hotza, eta azkenik haize izoztu batek jotzen zuen. Blai eginda, dardarka, hortzak karraska, elkarren besoetan estutu ginen. Faltan ematen genuen geure gorputzaren beroaz hain bizkor epeltzen zen haitzulo lehorra.

Hurrengo goizean egoera negargarrian geunden, baina hartua genuen erabakia. Ez genuen hura bezalako gaurik berriro igaroko. Gure gurasoen habiez gogoraturik, geurea egiteko lanari ekin genion. Habia oies baten egitura prestatu genuen, eta goreneko urkiletan estalkiaren euskarria jarri genituen. Eguzkia atera zen, eta haren epelarekin gaueko larritasunak ahazturik, bazkari bila abiatu ginen. Ondoren jolasean hasi ginen, garai hartan gure bizimodua zein

burugabea zen ikus dezazuen. Hilabete bat behar izan genuen, aldika lan eginez, gure zuhaitzeko etxetxo eraikitzeko, eta gero, osatu genuenean, ez genuen behin ere erabili.

Baina aurreraegi noa nire historian. Gure haitzuloetatik alde egin ondorengo bigarren egunean, gosaldu ondoren, Belarri Makurrek ibairaino jarraitu zidan zuhaitzen artetik. Ahabien paduratik ibaiadar bat lotzen zitzaion lekuan topatu genuen ibaia. Ibai-aho hura oso zabala zen, eta urik ia ez zebilen. Ur hiletan, ibai-aho horretan, enbor-anabasa bat zegoen. Batzuk uholdeek gastatuak, beste batzuk uda luzeetan hondardietan geldirik egonak, lehorturik eta adarrak gabe. Oso agerian zeuden ur gainean; gora eta behera mugitu edo irauli egiten ziren, gainean pausatzen ginenean.

Han-hemenka barreiatuak enborren artean ur tarteak zeuden, eta haietan arraintxoak, erreka ezkailek hara eta hona. Belarri Makur eta biok arrantzale bihurtu ginen segituan. Enbor haien gainean etzanik, ezkailek ingurura noiz etorriko, geldi-geldi egon eta esku kolpe arin batez harrapatzen genituen. Harrapatzen genituenak bertan jaten genituen, bizi-bizirik eta bustirik. Gatza falta zutenik ez ginen ohartzeko.

Handik aurrera ibai-aho hura izan genuen gure olgeta-lekurik estimatuena. Orduak ematen genituen egunero ezkailek harrapatzen eta aintziretan jolasean; eta hantxe egin genituen gure lehenengo marinel-ikasketak. Belarri Makur etzanda zegoen enborra jitoan joan zen. Belarri Makur alboka zegoen, lotan. Haizetxo batek enborra geldiro ertzetik kanpora eramane zuten, eta, haren egoera larriaz ohartu nintzenerako, distantzia handiegia zen jauzi egiteko.

Hasieran dibertigarria iruditu zitzaidan. Baina segurtasunik inoiz izaten ez genuen garai hartan izan ohi genuen izumen haietako bat sentitu nuenean, neure bakartasunak ikaratu ninduen. Segituan ohartu nintzen zein urruti zegoen Belarri Makur elementu ezezagun hartan, pauso batzuetara baizik ez bazegoen ere. Oihu handi bat egin nion, ohartarazteko. Izaturik esnatu zen; ohartu gabe enbor gainean pisua zakarki aldatu zuen. Enborra irauli, eta bera uretan hondoratu zuen. Beste hiru bider murgilarazi zuen uretan, enborraren gainera berriro igotzen saiatzen zenean. Azkenean lortu zuen eta gainera igo zen, beldurrak ikaran.

Nik ezin nuen ezer egin; hark ere ez. Igeri egitea zer zen ez genekien: horrez gainera, urrutiegi geunden behe mailako bizimodutik, instintuz igerian egiteko, baina oraindik behar adina gizondu gabe igeri egitea arazo batetik irteteko bidea izan zitekeela ulertzeko. Hondardian hara eta hona nenbilen, ezin kontsolaturik, Belarri Makur aintziran nahi gabe egiten ari zen ibilietan harengana ahal nuen guztia hurbilduz; hura, negarrez eta garrasika; harritzekoa izan zen milia bateko inguruan piztia haragijalaren bat erakarri ez izana.

Orduak joan ziren. Eguzkia gure buruen gainetik igo eta Mendebalderantz jaisten hasi zen. Haizetxo gelditu zen, eta Belarri Makur enborraren gainean utzi zuen ur ertzetik ehunen bat metrora. Eta orduan, ez dakit nola, aurkikuntza handia egin zuen Belarri Makurrek. Eskuez arraunean egiten hasi zen. Hasieran oso geldiro eta noraezean egiten zuen aurrera. Ondoren bizkorxeago, eta neke handiz geroz eta gerturago hurbiltzen ari zen. Ez nuen ulertzen. Eseri eta begira geratu nintzen, bazterrera iritsi zen arte.

Berak gauza bat ikasi zuen; nik ez nuen horrelakorik egin. Arratsaldean geroxeago, nahita urrundu zen ur ertzetik bere enborraren gainean. Eta berekin batera joateko konbentzitu ninduen, eta neuk ere arraunean egiteko trikimailua ikasi nuen. Hurrengo egunetan aintziratik

aterako gintuenik ez zegoen. Jolas berri hartan hain geunden murgildurik, non jatea ere ahaztu egin baitzitzagun ia. Inguruko zuhaitz batean egiten genuen habia. Eta Begi Gori zenik ere ahaztuta geneukan.

Beste enbor batzuk probatzen ari ginen denbora guztian, eta zenbat eta enborra txikiagoa izan, orduan eta bizkorrago ibiltzen zela ohartu ginen. Hala ikasi genuen, orobat, zenbat eta txikiago, orduan eta aiseago itzulikatzen zela, eta uretan murgilarazten gintuela. Gehiago ere ikasi genuen enbor txikiez. Behin, zein bere enborrean baina elkarren ondoan joanez egin genuen arraunean: Eta jolasean, ia nahi gabe, esku batez eta hanka batez bestearen enborrari heltzen bagenion, bi enborrak finko geratzen zirela eta ez zirela iraultzen ohartu ginen. Horrela, elkarren ondoan, kanpoko oina eta hanka libre geratzen zitzaizkigun, arraun gisa erabiltzeko. Azkeneko aurkikuntza horrek erakutsi zigun antolamendu horrekin enbor askoz ere txikiagoak erabil genitzakeela eta abiadura handiagoa hartzen genuela. Eta hor amaitu ziren gure aurkikuntzak. Katamaran primitiboena asmatu genuen, eta ez genuen horretaz ohartzeko adimendurik. Inoiz ez zitzaigun sartu buruan enborrak lotu zitezkeela aihena gogorrez edo sustrai-zuntzez. Aski genuen eskuez eta hankaz enborrak elkarren ondoan edukita.

Marineltza horri hartu genion lehen entusiasmo hura joan eta gauean lotarako zuhaitzeko babesera itzultzen hasi ginen arte, ez genuen topatu Zalu. Gure zuhaitzetik gertuko haritz handi baten adarretatik ezkur berriak biltzen ikusi nuen lehenengo aldiz. Oso lotsatia zen. Hasieran geldi-geldi geratu zen; baina ikusi egin genuela ohartu zenean, lurrera jauzi egin eta itsumustuan ekin zion ihesari. Geroago ere ikusi genuen beste zenbaitetan, eta haren bila aritzen ginen gure zuhaitzetik ibai-ahorako joan-etorrietan.

Eta orduan, egun batez, ez zigun ihes egin. Gu iritsi arte itxaroOn00 zigun, eta bakezko dei gozoak egin zizkigun. Baina ez zigun uzten askorik hurbiltzen. Hurbilegi geundela iruditzen zitzaionean, ihesiari ematen zion kolpetik, eta gero, distantzia segurutik, dei eztiak egiten zizkigun berriro. Zenbait egunez jarraitu zuen horrela. Denbora behar izan genuen harekin adiskidetzeko; baina iritsi zen azkenik eguna, eta zenbaitetan gure jolasetan elkartu ere elkartzen zitzaigun.

Hasiera-hasieratik gustatu zitzaidan. Aparteko itxura atsegina zuen. Otzana eta gozoa zen; haren begiak inoiz ikusi nituen gozoenak ziren. Horretan ez zuen gure taldeko gainerako emakume eta nesken antzik, mari-gizon hutsak baitziren haiek. Inoiz ez zuen garrasirik edo oihurik egiten, eta bazirudien borroketatik ihes egiteko joera zuela, geratu eta borrokan hasteko baino areago.

Bere izaera osoari ezintasuna zeriola zirudien, esan dudan bezala. Gorputzaren eta aurpegiaren itxurak eragiten zuen hori. Begiak taldeko gainerako guztiek baino handiagoak zituen, eta ez hain sartuak; eta betileak haiek baino luzeagoak eta berdinagoak. Sudurra ez zuen haiek bezain lodia eta zapala. Zubia ere bazuen, eta sudurzuloak beheraka zabalduak. Letaginak ez zituen handiak eta goiko ezpaina ere ez luzea eta zintzilikatua, ezta behekoa aurrera irtena ere. Ez zen oso iletua, besoetan eta izterretan eta bizkarrean izan ezik, eta nahiz eta bernak meheak eduki, hankek ez ziruditen bihurrituak eta gogorrunetsuak.

Askotan pentsatu izan dut harengan, hogeigarren mende honetatik ametsen bidez harenganaino itzuliz, eta beti iruditu zait bazitekeela Suaren Gizonen artekoa izatea. Baliteke haren gurasoak goragoko mailako jatorri hartakoak izatea. Gauza horiek oso ohikoak ez baziren ere, gertatzen ziren halakoak, eta neure begiez ikusi izan dut horren froga, taldeko batzuek taldea arbuiatu eta Zuhaitzetako gizonen artean bizitzera joan zirenean.

Horrek guztiak, ordea, ez dio axola honako. Zalu taldeko beste emakume guztiak ez bezalakoak zen, eta hasieratik bertatik gustatu zitzaidan. Haren eztitasunak eta haren adeitasunak erakartzen ninduten. Inoiz ez zen haserretzen, inoiz ez zuen borrokarik egiten. Alde egiten zuen beti, eta horrexegatik eman nion izen hori. Zuhaitzetara igotzen Belarri Makur eta ni baino trebeagoa zen. Harrapaketan jolas egiten genuenean, ezin izaten genuen harrapatu, ustekabeen ez bazen; berak berriz, nahi zuen guztietan harrapatzen gintuen. Bereziki bizkorra zen mugimendu guztietan eta berebiziko erraztasuna zuen distantziak kalkulatzeko, eta ausardia baizik ez zuen hori baino handiagoa. Gainerako guztietan lotsatiegia zen, baina oihaneko zuhaitzetan gora igo eta korrika hasten zenean beldurrik ez zuen; Belarri Makur eta ni baldarrak, oiesak eta koldarrak ginen, haren aldean.

Umezurtza zen. Inoiz ez genuen beste inorekin ikusi, eta ezin esan zenbat denbora bizi izan zen munduan bakarrik. Bere haurtzaroan, babesik gabe, bizkor ikasi behar izan zuen, nonbait, ihesian zegoela salbamendua. Zentzuduna eta oso zuhurra zen. Belarri Makur eta biontzat jolas moduko bat bilakatu zen non bizi zen aurkitzea. Zuhaitzen artean ezkutalekuren bat bazuen, inondik ere, eta ez urruti; baina haren aztarrenak segitzen ahaleginak eginagatik, ez genuen aurkitu. Egunez gustura aritzen zen gurekin jolasean, baina kontu handiz gordetzen zuen bere bizilekuaren sekretua.

XI. KAPITULUA

Gogoratu beharra dago Zaluz egin dizuedan deskribapena ez lizuekeela egingo Hortz-Handik, nire ametsetako beste ni horrek, historiaurreko nire asaba zaharrak. Amets horien bidez begiratzen eta ikusten dut nik, gizon moderno honek Hortz-Handiren begiez.

Horrelako gauza asko dago antzinako egun haiez eskaintzen ari natzaizuen narrazio honetan. Nire inpresioetan badut halako bikoiztasun bat, lausoegia nire irakurleei transmititzeko. Unetxo bat hartuko dut nire kontaktetan, bikoiztasun hau, nortasun-nahaste harrigarri hau azpimarratzeko. Nik, gizon moderno honek, begiratzen dut mendeen gainetik, eta neurtzen ditut nire beste ni haren, Hortz-Handiren emozioak eta arrazoiak. Hura ez baitzen kezkatzen gauzak aztertzeaz eta neurtzeaz. Sinplea zen oso-osorik. Aski zuen gertaerak biziz, noraezoko era berezi hartan zergatik bizi zen pentsatzen ere hasi gabe.

Ni, neure egiazko ni hau, hazi ahala, geroz eta barrenago joan naiz nire ametsen egiazko mamian sartzen. Egin daiteke amets eta ametsaren erdian ere ametsetan ari garela jakitun izan eta, ametsa txarra denean, ametsa besterik ez dela pentsatuz lasaitu. Denok dugu esperientzia hori. Horrelaxe sartzen naiz ni, gizon moderno hau, askotan nire ametsetan, eta horren ondorioz aktore eta begirale, biak batera izan ohi naiz nire nortasun bikoitz honetan. Eta, orobat, askotan haserretu eta asaldatu izan naiz, ni moderno hau, nire ni primitiboaren zentzugabeko txaldankeriaren, baldartasun motzaren eta ergelkeria erabatekoaren aurrean. Eta beste gauza bat, digresio hau bukatu baino lehen. Ez al duzu inoiz amets egin ametsetan ari zinela? Zakurrak amets egiten du, zaldiak amets egiten du, animalia guztiek egiten dute amets. Hortz-Handiren garaietan, erdi gizonek amets egiten zuten, eta amets gaiztoak zirenean, garrasi egiten zuten. Orain ni moderno hau, Hortz-Handirekin batera oheratzen naiz eta haren ametsak amesten ditut.

Honek guztiak adimenaren helmena gaintitzen du, badakit; baina badakit neuk egin dudala hori. Eta zilegi bekit esatea Hortz-Handiren amets iheskor haiek, zuentzat airean erortzearen ametsak bezain biziak izaten zirela harentzat.

Zeren Hortz-Handik ere bazuen beste ni bat eta, lotan zegoenean, haren beste ni hark atzera jotzen zuen bere ametsetan, narrasti hegaldunetaraino, dragoiekiko borroketaraino, eta harago oraindik, lehen ugaztun karraskari iheskorren bizitzaraino, eta atzerago oraindik, hasierako ozeanoaren bazter basatsuetaraino. Ezin dut gehiagorik esan, ez naiz ausartzen. Lausoegia da, konplexuegia, beldurgarriegia. Aztarren batzuk baizik ezin eman ditzaket bizitzak, ez tximinotik gizakiarenganaino, baizik harra zenez gero izan duen bilakaeran lausoki begiztatu ditudan ikuspegi izugarri haiez.

Eta orain gatozen berriro nire historiara. Nik, Hortz-Handik, Zalurengan ez nuen ikusten gorputz eta aurpegi simetrikoko izaki bat, betile luzeko begiak eta are ederragoa bihurtzen zuen sudur-zubi bat zituena. Begirada amultsua eta ahots eztia zuen eta borroka egiten ez zuen eme gazte bare bat zela ikusten nuen. Gustatu egiten zitzaidan harekin jolas egitea, ez nekien zergatik; gustatu egiten zitzaidan janari bila, txori-habiak bilatzera harekin joatea. Eta

aitortu beharra dut, gauza asko erakutsi zidala zuhaitzetara igotzeko moduz. Oso zuhurra, oso indartsua zen, eta ez zizkioten gona estuegiek mugimenduak eragozten.

Garaitu horretan zertxobait urruntzen hasi zen Belarri Makur. Baso aldera bakarrik joateko ohitura hartu zuen, nire ama bizi zen aldera. Nire arreba asmo gaiztokoaz zaletu zen eta Kalakarik onartu egin zuen. Baziren han beste gazte batzuk ere, inguruetan bizi ziren bikote monogamoen umeak, eta haiekintxe aritzen zen jolasean Belarri Makur.

Inoiz ez nuen lortu Zalu haiekin elkartzerik. Ni joaten nintzenean, atzean geratu eta desagertu egiten zen. Gogoan dut behin ahalegin handia egin nuela konbentzitzeko: hark, ordea, urduri begiratzen zuen atzera, alde egiten, eta zuhaitz batetik deitzen zidan. Horrela bada, inoiz Belarri Makur bere lagunak bisitatzera joaten zenean harekin ez joatera ohitu nintzen. Zalu eta biok oso lagun onak ginen; baina, saiatuagatik, ezin izan nuen aurkitu bere zuhaitzetako bizilekua. Ezer gertatu ez balitz, berehala hasiko ginen elkarrekin bizitzen, seguru, elkarrekin gustatzen baikin; baina gertatu egin zen zerbait hori.

Goiz batean, Zalu agertzen ez zenez, Belarri Makur eta biok ibai-ahoan ginen enborretan jolasean. Ur-ertzera ozta-ozta iritsi ginelarik, amorruzko orro batek asaldu gintuen. Begi Gori zen. Zuhaitz erori pila baten atzean zegoen ezkutaturik, eta gorrotoz begiratzen zigun. Izuak ikaraturik geunden; han ez zegoen sarrera estuko haitzolorik bertan babesteko. Nolanahi ere, harengandik apartatzen gintuen hogeitaz oineko urak momentuz babesten gintuen, eta adorea hartu genuen.

Begi Gori zutitu eta ukabilaz bere bular iletsuan kolpeka hasi zen. Gure bi enborrak elkarren ondoan zeuden; haien gainera igo eta burla egin genion. Hasieran beldurrezkoa zen gure barrea; baina Begi Goriren ezintasunaz konbentzitu ginenean, algaraz harrotu ginen. Begi Gorieroz eta haserreago zegoen eta hortzak estutzen zituen alferrikako haserre hartan. Guk, berriz, are eta burla gehiago egiten genion gure leku segurutik. Adimen laburrekoak ginen taldekoak.

Begi Gorik kolpetik utzi zituen bularretako ukabilkadak eta hortz-karraskak eta lasterka hasi zen egur pilaren gainetik ur-ertzerantz. Eta orduan, gure pozak larritasun bihurtu ziren, abiadura berean. Begi Gorik ez baitzuen ohiturarik mendekuari hain erraz uko egiteko. Ikaraz eta dardaraz geratu ginen zer gertatuko. Ez zitzaigun bururatu ere egin arraunean urruntzerik. Egur pilaren gainetik jauzi handiak eginez itzuli zen, bere esku handi haletako bat urak garbitutako errekarri biribilez beteta zekarrela. Poztu nintzen harri handiagoak, bi edo hiru libako harriak, aurkitu ez zituelako; hogeiren bat pausotara baikeunden, eta hilko gintuen seguruenik.

Hala ere, arriskua ez zen txikiagoa. Danba! Harri koskor bat bala baten indarraz igaro zitzaigun burrunba batean. Belarri Makur eta biok arraunean ekin genion itsumustuan. Sast! ziztua. Belarri Makurrek antsia larri batez garrasi egin zuen. Harriak bizkar bien erdi-erdian jo zuen. Nik beste bat hartu nuen, eta garrasi egin nuen. Begi Goriri munizioak ahitu zitzaizkiolako salbatu ginen. Gehiagoren bila joan zen korrika ubazterreko legarretara; bien bitartean Belarri Makurrek eta biok arraunean ihes egin genuen.

Poliki-poliki haren irismenetik urrunduz joan ginen; Begi Gori munizio bila ari zen denbora guztian, eta harriak ingurutik pasatzen zitzaizkigun burrunba eginez. Ibai-ahoaren erdi aldean

ur-korrontetxo bat zegoen eta, gure larritasunean, ez ginen ohartu ibaian barrena ginderamatzala. Arraunean jarraitu genuen; Begi Gorik ahal zuen bezain hurbilenetik jarraitzen zigun, ubazterretik. Orduan harri handiagoak aurkitu zituen. Munizio harekin irismen handiagoa zuen. Bost bat libratoko harri puska bat lehertu zen enborrean nire ondoan; halako kolpea jo zuen non printza xehe mordoa iltzatu baitzitzaidan izterrean, orratzak balira bezala. Betean jo izan banindu, hilko nindukeen.

Orduan ibaiaren ur lasterrak harrapatu gintuen. Halako itsumustuan ari ginen arraunean, non Begi Gori ohartu baitzen lehena, eta haren garaipenezko orroak ohartarazi zigun. Ibaiko ur-lasterrak padurako ura hartzen zuen lekuan uhin eta zurrunbilotxo sail bat zegoen. Haiek gure enbor moldakitzak harrapatu eta aurrera eta atzera biraka eta itzulika erabili zituzten. Arraunketari utzi eta enborrak elkarren ondoan edukitzen ahalegindu ginen indar guztiaz. Bien bitartean Begi Gori harrika ari zitzaigun; harriak inguruan erortzen zitzaizkigun, urez ziprztinduz, eta gure biziak arriskutan jarritz. Eta bera gozatzen ari zen, basatien moduan, oihuka.

Ibaiak bihurgune estu bat eratzen zuen ibai-adarra ibai nagusira sartzen zen lekuan, eta ur-laster nagusia beste aldeko ertzera desbideratzen zen. Beste ezponda horretara, iparreko ezpondara, eraman gintuen urak, ibaian behera joanez. Berehalaxe geratu ginen Begi Goriren irismenetik urrutiti; azkeneko aldiz ikusi genuenean, ertzeko tontortxo batean zegoen, jauzika, garaipenezko guda-abesti bat kantatuz.

Enborrak elkarren ondoan eduki, besterik ez genuen egiten Belarri Makurrek eta nik. Zorteak zer ekarriko geunden, eta etsita, harik eta ohartu ginen arte ur-lasterrak, iparreko ezpondatik ehun oin baino gutxiagora ginderamatzala ubazterrean zehar. Harantz arraunean egiten hasi ginen berriro. Leku hartan ur-lasterra hegoaldeko ezpondarantz bihurtzen zen berriro; baina gure arraunketari esker lekurik estuenean igaro genuen. Ohartu orduko kanpoan ginen, baregune batean.

Enborrak poliki-poliki joan ziren irristatuz, eta azkenean hondarra jo zuten geldiro. Belarri Makur eta biok lehorrera atera ginen. Eta enborrak baregune hartatik kanporatu eta ur-lasterrak beherantz eraman zituen. Elkarri begiratu genion, baina ez genuen barrerik egin. Gurea ez zen lurralde batean geunden, eta ez genuen pentsatu etorri bezala joan gintezkeenik geure lurraldera.

Ibaia gurutzatzen ikasi genuen, aurrez batere jakin gabe. Gure taldean ordu arte inork ez zuen egin halakorik. Gu ginen lehenengoak, eta azkenekoak ere bai, uste dut, oina ibaiaren iparreko ezpondan jartzen genuenak. Gure taldeak egunen batean beste horrenbeste egingo zuela dudarik ez dago; baina Suaren Gizonen migrazioak eta haren ondorioz gure taldetik bizirik geratuek egin behar izan zutenak mendetarako geldiaraziko zuten gure eboluzioa.

Suaren Gizonen inbasioak zein ondorio penagarriak izan zituen kontatzeko modurik ez dago. Ia seguru nago ia erabat suntsitu zuela gure taldea; gu, gizaki izateko bidea egiten ari ginen behe-mailako adar hau, guztiz moztu zuela eta ibaia itsasoratzen zen lekuko olatu zaratatsuetan akabatu zela dena. Ni, jakina, bizirik atera nintzen gertaera haietatik, hura kontatu ahal izateko; baina jarrai dezadan aurrera nire kontaketa, eta bukaera baino lehen kontatuko da gainerako guztia.

XII. KAPITULUA

Ideiarik ere ez dut zenbat denbora ibili ote ginen batera eta bestera ibaiaren iparraldean. Uhartea desertu batean galdutako marinela ginen, berriro etxera itzultzeko aukerari zegokionez. Ibaiari bizkarra eman eta asteak eta hilabeteak igaro genituen lurralde basati hartan, taldeko kide bat bera ere ikusi gabe. Oso zaila gertatzen zait gure ibilbidea nola izan zen berriro osatzea, eta ezinezkoa egunez egun zehaztea. Lauso eta nahasirik daukat gehiena, baina baditut oroitzapen bizi batzuk gertatu ziren zenbait gauzaz.

Aintzira Luzearen eta Urrutiko Aintziraren artean dauden mendietan nolako goseak pairatu genituen dut batez ere gogoan. Gogoan ditut Aintzira Luzetik mendietara bitarteko oihanean bizi ziren Zuhaitzetako Gizonak ere. Mendietara ihesarazi ziguten eta Urrutiko Aintzirara joatera behartu.

Ibaia utzi eta, lehenengo gauza, mendebaldera jo genuen, harik eta istinga artean zihoan errekatxo batera iritsi ginen arte. Han iparralderantz hartu genuen, istingadien ertzetatik, eta handik egun batzuetara Aintzira Luzea deitu dudanera iritsi ginen. Gorenako bazterrean alditxo batez geratu ginen, nahikoa janari aurkituta; eta orduan, egun batean, Zuhaitzetako Gizonen eskuetan erori ginen. Tximino basatiak besterik ez ziren. Baina ez ziren gure oso desberdinak. Iletsuagoak, hori bai; hankak okerragoak eta kozkortsuagoak zituzten, begiak txikixagoak, lepoa lodiagoa eta motzagoa; eta sudur-zuloak azalean egindako zulo batzuen antzekoagoak; baina ez zuten ilerik aurpegian, esku-ahurretan eta hanka azpian, eta gurean antzeko hotsak egiten zituzten, antzeko esanahiekin. Gure taldekoak eta Zuhaitzetako Gizonak ez ziren, izan ere, oso-oso desberdinak.

Nik topatu nuen Zuhaitzetako lehenengo gizona, agure ihar, aurpegi-zimur, begi-makartsu, balantzati bat. Ehizaki zilegizkoa. Gure munduan geure kideekiko ere ez zegoen gehiegizko sinpatiarik, eta hura kidekoa ere ez zen. Zuhaitzetako Gizon bat zen, eta oso zaharra gainera. Zuhaitz baten orpoan zegoen eserita –bere zuhaitza, inondik ere, adar artean ikusten baitzen gauak igarotzeko zuen habia hondatua.

Belarri Makurri keinu egin, eta gainera oldartu gintzaizkion. Igotzen hasi zen, baina geldiegi zihoan. Hankatik heldu eta lurrera bota nuen. Ederki jostatu ginen. Ziztatu egiten genuen, ileetatik tiratzen, belarriak bihurritzen, makilaz zirikatzen genuen, barrez eta barrez begiak malkoz betetzen zitzaizkigun arte. Haren alferreko haserrea gauzarik absurdoena zen. Barrea eragiten zuen ikusteak nola ahalegintzen zen gaztetako errauts hoztua berriro pizten, hil eta urteek eramandako indarra berpizten, jarri nahi zuen aurpegi basatiaren orde zoinaze-aieruak eginez, hortz gastatuz karraska eginez, eta bere bular eskasa ukabil indargabeez joz.

Eztula egiten zuen, eta arnasa estutzen zitzaion, hots harrigarriak egiten zituen, marmarka. Zuhaitzera igotzen saiatzen zen bakoitzeko lurrera botatzen genuen berriro, bere ahuleziagatik etsi eta negarrez eseri zen arte. Belarri Makur eta biok berekin eseri ginen, besoez elkarri heldu eta haren zoritxarragatik barrez egon ginen.

Negarretik zotinera eta zotinetik arrantzara eta azkenean garrasira igaro zen. Horrek larritu egin gintuen, baina zenbat eta gehiago saiatu isilarazten, orduan eta garrasi ozenagoak egiten

zituen. Eta orduan oihan aldetik, baina ez oso urrutitik, “guk! guk!” bat iritsi zitzaigun belarrietara. Haiei erantzunez beste “guk! guk! guk!” batzuk entzun ziren, eta oso urrutitik beste “guk! guk! guk!” ozen, sakon bat entzun genuen. Eta “hu-hu!” deia entzuten zen gure inguruko oihan guztitik.

Eta orduan ehiza hasi zen. Bazirudien ez zuela inoiz bukatu behar. Tribu osoa ondotik segika genuen zuhaitzetan zehar, eta ia-ia harrapatu gintuzten. Lurrera jaistera behartu ginen; han abantaila genuen, haiek Zuhaitzetako gizonak baitziren, eta adarretan gu baino bizkorragoak ziren bezala, lurrean lasterka guk irabazten genien. Iparralderantz jo genuen, tribua oihu batean segika genuela. Zabaldietan aldea kentzen genien, baina gero oihanean berriro harrapatzen gintuzten eta behin baino gehiagotan heldu ere heldu ziguten. Pertsekuzio horretan ohartu ginen ez zirela gure arraza berekoak, haien eta gure arteko loturak sinpatiazkoak ez beste edozein eratakoak zirela.

Ordutan eta ordutan jarraitu ziguten. Bazirudien oihanak ez zuela inoiz amaitu behar. Ahal genuen guztian soilguneetara jotzen genuen; baina soilguneek oihan itsura eramaten zuten beti. Batzuetan ihes egin geniela uste genuen eta atsedeteko esertzen ginen; baina arnasari buelta eman orduko berriro entzuten genituen “hu! hu! hu!” gorrotagarri haiek eta “guk, guk, guk” beldurgarri haiek. Hori, “ja, ja, ja, jaaa!!!” basati batez bukatzen zen batzuetan.

Horrela ehizatu nahi izan gintuzten oihanetan zehar Zuhaitzetako Gizon haserreek. Azkenean, arratsalde erdi inguruan, malkarrak geroz eta pikoagoak bihurtzen hasi ziren eta zuhaitzak txikiagoak. Eta mendiko malda belartsuetara atera ginen. Han kendu genien aldea, eta han etsi zuten Zuhaitzetako Gizonek, eta itzuli ziren berriro beren oihanera.

Mendiak ezatseginak eta bertan geratzeko txarrak ziren, eta arratsalde hartan hiru bider saiatu ginen berriro basoetara itzultzen. Baina Zuhaitzetako Gizonak zain geneuzkan, eta atzera itzultzera behartzen gintuzten. Belarri Makurrek eta biok zuhaitz txiki batean egin genuen lo gau hartan. Han ez zegoen segurtasunik; edozein piztia ehiztarik harrapatuko gintuzkeen handik ibiliz gero.

Goizean Zuhaitzetako Gizonek eragin ziguten errespetuak bultzaturik, mendietan barneratu ginen. Ez plan zehatzik ez ideiarik ez genuela seguru nago. Saihestu genuen arriskuaren beldurrak bultzatzen gintuen. Mendietan zehar egin genituen ibilietatik, oroitzapen lauso batzuk baizik ez ditut. Hainbat egun egin genituen lurralde mortu hartan, eta asko sufritu genuen, beldurragatik batez ere, hain berria eta bitxia baitzen dena. Hotza ere izan genuen, eta azkenik gosea ere bai.

Haitz malkartsuz, erreka apartasuz eta ur-jauzi durunditsuz betetako lurralde mortu bat. Sekulako mendi-zintzurak eta arroilak igo eta jaitsi genituen, eta edozein lekutatik begiratuta, mendiak eta mendiak hedatzen ziren amaierarik gabe gure aurrean. Zokoetan eta arrakaletan lo egiten genuen, eta hotz handia ari zuen gau batean zuhaitz baten antza zuen haitz tontor batera igo ginen.

Azkenik, eguerdi bero batez, goseak erdi zorabiatuak, banalerrera iritsi ginen. Lurraren bizkarrezur goren hartatik, geroz eta mendi txikiago batzuen beste aldean, urrutiko aintzira bat ikustatu genuen. Eguzkiak uretan dizdiz egiten zuen, eta belaze zabalak zituen inguruan; ekialderantz, berriz, oihan amaigabeko baten lerro iluna.

Beste bi egun eman genituen aintzirara iristeko; goseak eta akituta geunden; baina bazter hartan, txahal jaio berri bat aurkitu genuen, sastraka batean lo. Lana eman zigun hura hiltzeak, geure eskuak beste baliabiderik ez baikenuen ezagutzen horretarako. Ase ginenean, sobratu zitzaigun haragia ekialdeko oihanera eraman eta zuhaitz batean ezkutatu genuen. Ez ginen berriro zuhaitz hartara itzuli, zeren itsasotik errutera etorritako izokinez beteta baitzegoen aintziratik ateratzen zen ibaia.

Aintziratik mendebaldera belazeak hedatzen ziren, eta bisonte eta basabere andana handiak zebiltzan. Basazakur saldoak ere ugari zeuden, eta zuhaitzik ez zegoenez, ez zen leku segurua guretzat. Ibaiaren ertzetik iparralderantz jarraitu genuen egun askoan. Orduan, ez dakit zergatik, ibaia utzi eta oihan handian zehar jo genuen ekialderantz eta gero hego-ekialderantz. Ez zaituztet aspertu nahi bidaia kontatuz. Suaren Gizonen lurraldera nola iritsi ginen adierazteko kontatu dizuet hau, soil-soilik.

Ibai batera iritsi ginen, baina ez ginen ohartu gure ibai bera zenik. Hainbeste denbora egon ginen galdurik, non galduta egotera ohituta baikeunden. Atzera begiratzen dudanean, garbi ikusten dut halabehar soilak moldatzen dituela gure bizitza eta gure patua. Ez ginen ohartu gure ibaia zenik, ezerk ez zuen adierazten; beste aldera igaro izan ez bagina, beharbada ez ginateke gure taldera itzuliko; eta ni, gizon moderno hau, milaka mende geroago jaioa, ez nintzatekeen inoiz jaiko.

Eta hala ere Belarri Makurrek eta biok gogo bizia genuen itzultzeko. Gure bidaiari geure lurraldearen mina eta geure jendearen eta gure lurraren mira sentitu genuen; askotan gogoratzen nintzen nire Zaluz, hots gozoak egiten zituen eme gazteaz, elkarrekin gustura egoten ginen eta bakar-bakarrik non bizi zen inork ez zekien eme gazte hartaz. Haren oroitzapenak gose-sentsazioarekin batera izaten nituen, eta sentsazio berdinak izaten nituen goseak ez nengoenean eta jan berritan ere.

Baina itzul gaitezen ibaira. Han janari ugari zegoen, baiak eta sustrai mamitsuak batez ere, eta egunak eman genituen hondardian jolasean eta olgetan. Eta orduan ideia bat bururatu zitzaion Belarri Makurri. Ideiaren bururatzea prozesu ikusgarria zen. Neuk ikusi nuen. Begikera erreguzkoa eta kexatia bihurtu zitzaion eta oso asaldatuta zegoen. Gero begiak lausotu zitzaizkion, hasi berria zuen ideia atxikiko ez balu bezala. Horren ondoren, erreguzko eta oinazezko aurpegieraren arabera, bazirudien han jarraitzen zuela ideiak, eta atxiki zuela. Niri begiratu zidan, ondoren ibaira eta gero ubazter urrunera. Hitz egiten ahalegindu zen; baina ideia hura adierazteko hotsik ez zuen. Barrea eragin zidan mordoilo bat izan zen emaitza. Haserretu egin zen; bat-batean heldu eta lurrera bota ninduen. Esan beharrik ez dago borroka egin genuela, eta azkenean zuhaitz bateraino esetsi nuela, eta han, harrapatzen saiatzen nintzen bakoitzean jo egiten ninduen, adar batez armaturik.

Eta ideia ezabatu egin zen. Nik ez nekien, eta berak ahaztu. Baina biharamun goizean berriro piztu zitzaion. Baliteke etxerako joera izatea bere baitan indartu zitzaion ideiarri eutsi arazten ziona. Edozeinetara ere, han zegoen, eta lehen baino ere argiago gainera. Uretara eraman ninduen; ur geldiko gune batean enbor bat hondoa jota zegoen. Jolas egin nahi zuela uste nuen, beste garai batean ibai-ahoa bezala. Eta ez nuen besterik pentsatu, hondardian urrutixeago zegoen beste enbor bat ekartzen ikusi nuenean.

Ez nion ulertu zer nahi zuen harik eta bi enborrak elkarren ondoan jarri, eta haiei eutsiz gainera igo eta ur-lasterrean sartu ginen arte. Gelditu eta urruneko beste aldeko ertza erakutsi zidan, eta berriro ekin zion arraun egiteari, animatzeko oihuak eginez aldi berean. Ulertu nion, eta indar guztiaz egin genuen arraunean. Ur-laster biziak harrapatu gintuen, eta hegoaldeko urertzerantz eraman gintuen; baina lehorrera iritsi baino lehen iparreko ibai-bazterrera itzuli gintuen berriro.

Tirabira izan genuen han. Ni, iparreko ubazterra hain hurbil ikusirik, harantz hasi nintzen arraunean. Belarri Makurrek berriz, hegoalderantz egiten zuen. Enborrak biribilean mugitzen hasi ziren, eta ez gindoazen inora, eta oihana bizkor igarotzen zitzaigun aurretik, ur-lasterrean behera gindoazen heinean. Ezin genuen elkarri joka hasi. Bagenekien hobe genuela hankeztatik eta eskuez enborrei heltzea eta lotuta edukitzea. Baina zarata batean eta irainka jarraitu genuen, harik eta ur-lasterak azkenean berriro hegoaldeko ubazterrera eraman gintuen arte. Hura zen orain gure helbururik hurbilena, eta biok berriro elkaturik, adiskidetasunez, harantz ekin genion arraunean. Urgeldi batean lehorreratu, eta zuhaitzetara igo ginen segituan, ingurua aztertzeke.

XIII. KAPITULUA

Ibaiaren Hegoaldeko ubazterrean igaro genuen lehenengo gauera arte ez genituen topatu Suaren Gizonak. Belarri Makur eta biok gau hura igarotzeko aukeratu genuen zuhaitzetik urrutira gabe kanpatuta zegoen ehiztari ibiltari taldetxo bat zen, nonbait. Hasieran gizon haien ahotsek larritu egin gintuzten; baina gero, ilundu zuenean, suak erakarri gintuen. Kontuz-kontuz eta isilik hurbildu gintzaizkien, zuhaitzez zuhaitz, eszena ikusteko leku on bat aurkitu genuen arte.

Zuhaitz arteko soilgune batean, ibaitik hurbil, sua piztuta zegoen. Haren inguruan, Suaren Gizonetako dozena erdi bat. Belarri Makurrek heldu zidan bat-batean, eta haren ikara sentitu nuen. Arreta handiagoz begiratu nuen, eta zenbait urte lehenago Hagin Mailatu zuhaitzetik bota zuen ehiztari zahar zimurtua ikusi nuen. Altxatu eta suari egur gehiago botatzeko mugitu zenean, hanka elbarritik errenka zebilela ohartu nintzen. Edozer zela ere, betirako lesioa zuen. Lehen baino ere iharragoa eta zimurragoa zirudien, eta aurpegiko ilea erabat grisa zuen.

Gainerako ehiztariak gazteak ziren. Inguruan beren arkuak eta geziak ikusi nituen lurrian, eta banekien zertarako ziren arma haiek. Suaren Gizonek animalia-larruak zerabiltzaten gerri inguruan eta bizkarrean. Besoak eta hankak, aldiz, biluzik zeuzkaten, eta ez zerabilten oinetakorik. Lehen ere esan dut ez zirela gure taldekoak bezain iletsuak. Burua ez zuten handia, eta gure taldekoen eta haien artean oso alde txikia zegoen kopetak begietatik atzera zuen etzantasunari dagokionez.

Ez ziren gu bezain makurturik ibiltzen, eta mugimenduetarako ez ziren gu bezain malguak. Haien bizkarrezurrak, aldakak, belauetako giltzadurak, gureak baino zurrunagoak zirela zirudien. Besoak ez zituzten guk bezain luzeak, eta ez nuen ikusi oinez zebiltzanean balantzaka egiten zutenik, ibiltzean eskuetako hatz-koskoez lurra ukituz. Haien giharrak gureak baino biribilagoak eta simetrikoagoak ziren, eta aurpegiak atseginak. Sudur-zuloak beherantz zabaltzen zitzaizkien; sudur-zubia ere guk baino handiagoa zuten, eta ez zuen gureak bezalako itxura zapala. Ezpainak ez zituzten gureak bezain bigun eta eroriak, eta haien betortzek ez zuten animalia haragizaleen letaginen antzik, gureek bezala. Nolanahi ere, gu bezain aldaka-estuak ziren, eta ez askoz ere astunagoak. Laburtuz, gurekin alderatuta, alde txikiagoa zuten guk Zuhaitzetako Gizonekin alderatuta genuena baino. Hiru gizaki motak oso hurbilekoak ziren, eta ez urrutikoak.

Erdian zeukaten sua batez ere oso erakargarria zen. Belarri Makur eta biok ordutan egon ginen eserita, garrei eta keari begira. Liluragarria zen batez ere erregai gehiago bota eta airean gora txinparta mordoak igotzen zirenean. Nik hurbilago joan nahi nuen sua ikusteko, baina ez zegoen modurik. Zuhaitz baten adarretan ezkutaturik geunden, soilgunearen ertz-ertzean, eta ez ginen ausartu ikusteko arriskuan jartzera.

Azkenean suaren inguruan zeuden Suaren Gizonek lo hartu zuten, buruak belaunen gainean bermaturik. Lo sakonik ez zuten hartzen, ordea. Lotan zeuden bitartean belarriak mugitzen zituzten, eta urduri zeuden. Aldian behin bat jaiki eta erregai gehiago botatzen zuen sutara. Argi-zirkulu haren inguruan, oihanean, iluntasunean ezkutaturik, piztia ehiztariak zebiltzan.

Belarri Makurrek eta biok ongi bereizten genituen beren hotsen arabera. Baziren basazakurrak eta hiena bat, eta une batean haien zaunkak eta zaratak lotan zeuden Suaren Gizonen zirkulu osoa esnatu zuen.

Geroago lehoi arra eta emea ikusi genituen geure zuhaitzaren azpian suari begira, kalparra lasturik eta begiak dizdizka. Lehoi arra muturra miazten ari zen, urduri eta asaldaturik, aurrera jarraitu eta janaldi on bat egin nahiko balu bezala. Lehoi emea, berriz, zuhurragoa zen. Hark ikusi gintuen, eta gelditu eta begira egon zitzaizkigun, isilik, muturrak bihurrituz, usnan. Orro egin zuten, berriro suari begiratu, eta oihanean barrena sartu ziren.

Belarri Makur eta biok luzaro geratu ginen oraindik begira. Aldian behin azpiko sastraken artetik gorputz astunen hotsak sentitzen genituen, eta zirkuluaren beste aldetik, iluntasunean begi distiratsuak ikusten genituen, suaren argitan. Eta urruti lehoi baten orroak, eta urrutiagotik piztia zaurituren baten garrasia, edalekuren batean uretan plastaka eta mugitzen. Ibaitek errinozeronteen marraka ozenak iristen ziren.

Goizean, lo egin ondoren, suaren ondoraino herrestatu ginen. Txingarrak piztuta zeuden artean, eta Suaren Gizonak alde eginak. Bira bat egin genuen basoan, seguru egoteko, eta lasterka joan ginen sua zegoen lekura. Irrikatzen nengoen zer zen jakiteko, eta ilinti bat hartu nuen behazetan Egin nuen oinaze eta beldurrezko garrasiak Belarri Makur izutu eta harrapaka ihesarazi zuen zuhaitzetara, eta harexek neu izutu eta atzetik joanarazi ninduen.

Hurrengo aldian kontu gehiagoz itzuli ginen, eta ez genuen ilintirik hartu. Suaren Gizonak imitatzen hasi ginen. Su hondarraren inguruan eseri eta, burua belauen gainean jarririk, lotan bageunde bezala egiten genuen. Haien hizketa-aieruak imitatu genituen, gure artean haien modura hitz eginez, mordoilo batean. Nik ikusia nuen ehiztari zahar zimurtua sua makila batez harrotzen. Nik ere sua harrotu nuen eta txingarrak errautsa atera eta errauts zurizko hodeiak jaso nituen. Hura bai jostagarria, eta segituan ginen biak errautsez zuri-zuri.

Ezin gera gintezkeen Suaren Gizonak bezala garrak pizten ahalegindu gabe. Abartxo batzuez saiatu ginen hasieran. Eta lortu egin genuen. Egurra piztu eta zartaka hasi zen, eta guk pozez ekin genion dantzan eta garrasika. Orduan egur puska handiagoak bota genizkion. Eta bota eta bota aritu ginen harik eta su handi bat egin zen arte. Itsumustu batean ari ginen lasterka batera eta bestera, oihaneko adar eta enbor eroriak arrastaka eramanez. Garra geroz eta gorago igotzen zen, eta kea zuhaitz garaienetatik gora. Suaren zarta-hotsa eta zarata beldurgarria zen. Gure eskuez inoiz egin genuen gauzarik handiena zen, eta harro geunden. Suaren Gizonak ginela iruditzen zitzaigun, suaren inguruan gnomo zuriak bagina bezala dantzan.

Belar lehorrak eta sastrakek sua hartu zuten, baina ez ginen ohartu. Bat-batean soilgunearen ertz-ertzeko zuhaitz handi batek su hartu zuen.

Txunditurik geratu gintzaizkion begira, begiak zabalik. Suaren beroak atzera eragin zigun. Beste zuhaitz batek su hartu zuen, eta beste batek, eta beste dozena erdi batek. Izututa geunden. Munstroa martxan zegoen. Izua izuz kuzkurtu ginen, suak inguratu eta zirkuluan biltzen gintuen bitartean. Belarri Makurren begietan zerbait ulertu ezin zuenean izaten zuen erreguzko eta oinazezko begirada agertu zen, eta nire begietan ere begirada berbera azalduko zen, badakit. Elkarren kontra estutu ginen, harik eta beroa iritsi eta ile errearen usaina

sudurretik sartu zitzaigun arte. Orduan kanpora jauzi egin eta mendebalderantz jo genuen oihanean zehar, lasterka gindoazen bitartean atzera begiratu eta barre eginez.

Eguerdi aldera lur-mihi batera iritsi ginen; ia biribil osoa egiten zuen ibaiaren bihurtune handi batek eratzen zuen, geroago ikusi genuen bezala. Estugunean muino apal samar basotsu batzuk zeuden. Gorenera igo eta oihan aldera begiratu genuen; haizeak, harrotuta, ekialderantz bultzatzen zuen suzko itsaso bat bihurtuta zegoen. Ibaiertzetik mendebalderantz jarraitu genuen, eta ohartu ere baino lehenago Suaren Gizonak bizi ziren lekuaren erdi-erdian geunden.

Bizileku hura oso aukera estrategiko bikaina zen. Penintsula bat, hiru aldeetatik ibaiaren bihurtuneak babestua. Leku batetik baizik ez zuen sarbidea: penintsularen lepo estutik, eta muino apal haiek oztopo natural bat ziren han. Munduko gainerako guztitik apartaturik, aspaldidanik bizi ziren han, itxura zenez, Suaren Gizonak. Hain zuzen ere, haien aurreramenduak eragin zuen, nik uste, gure taldeari hainbesteko hondamendia ekarriko zion migrazioa. Suaren Gizonak hainbestearaino ugaltu ziren, izan ere, non beren eskualdearen mugak zabaltzera beharturik aurkitu baitziren. Hedatuz eta hedatuz joan ziren, eta hedapen horretan aurrean zeramaten gure taldea, eta beraiek kokatu ziren lehen gureak izandako haitzuloetan eta lurraldeetan.

Horrelakorik ez genuen askorik pentsatu Belarri Makurrek eta nik Suaren Gizonen gotorleku hartan aurkitu ginenean. Ideia bat baizik ez genuen: lehenbailehen urrundu handik; baina herritxoa begiratzeko geurez geneukan jakin-mina ezin izan genuen ito. Hala ikusi genituen lehenengo aldiz Suaren Herriko emakumeak eta haurrak. Haurrak ia denak biluzik zebiltzan, eta emakumezkoak basapiztien larruez jantzirik.

Suaren Gizonak haitzuloetan bizi ziren, gu bezala. Haitzuloen aurreko zabaldua aldapa leun bat eratuz jaisten zen ibairaino, eta han baziren zenbait su txiki. Baina beren janariak sutan prestatzen zituzten ala ez, hori ez dakit. Belarri Makurrek eta nik ez genituen horretan ikusi. Nolanahi ere, nire iritzirako, bazekiten halako sukaldaritzako zertxobait egiten. Guk bezala kalabazez baliatzen ziren ibaitik ura ekartzeko. Emakumeen eta haurren joan-etorri eta oihi asko sumatzen zen. Haurrak jolasean ari ziren eta bihurrikeriak egiten zituzten, gure taldekoek bezalaxe, eta haien arteko jende haziak gure taldeko haurren antz handiagoa zuten gure taldeko jende haziarena baino.

Belarri Makur eta ni ez ginen asko luzatu han. Mutiko batzuk arkuez geziak jaurtitzen ikusi genituen; eta oihan itsuan ezkutatu ginen; gero ibai aldera jarraitu genuen. Eta han katamaran bat aurkitu genuen, egiazko katamaran bat, Suaren Gizonen eginga, zalantzarik gabe. Bi enborrak txikiak eta zuzenak zituen, gainean gurutzatutako beste adar batzuei sustrai gogorrez lotuak.

Oraingo honetan bioi batera bururatu zitzaigun ideia berbera. Suaren Gizonen lurraldetik ihes egin nahi genuen. Zer hoberik enbor haien gainean ibaiak beste aldera igarotzea baino? Gainera igo eta bultzada bat eman genion. Zerbaitek kolpetik gelditu zuen katamarana, eta ur-lasterrak ertzaren kontra bota zuen. Bat-bateko kolpe hark ia bota gintuen uretara. Katamarana sustrai bihurrituzko soka batez lotuta zegoen. Askatu eta berriro bultza egin genion.

Ur-lasterren erdiraino arraun egin genuenean, hain behera joan ginen ur-lasterrean, non Suaren Gizonen bizileku osoaren bistan baikeunden. Hain kontzentratuta geunden arraunketan, begiak beste ezpondan jarrita, non ez ginen ezertaz ohartu harik eta ibai-bazterretik oihu bat iritsi zitzaigun arte. Ingurura begiratu genuen. Suaren Gizon batzuk, asko, guri begira eta gu seinalatzen ari ziren, eta beste asko haitzuloetatik arrastaka ateratzen. Baltsan eseri ginen, begiratzeko, eta arraunean egitea ahaztu zitzaigun. Ibaiertzean sekulako iskanbila hasi zen. Suaren Gizonetako batzuek geziak jaurti zizkiguten; batzuk nahikoa hurbil erori zitzaizkigun; baina distantzia handiegia zen.

Egun gogoangarria izan zen Belarri Makurrentzat eta niretzat. Ekialdean zeru-ertza ia estalirik zeukan guk oihanean piztu genuen suaren keak. Eta han geunden, ibaiaren erdian salbu, Suaren Gizonen gotorlekuari itzulia eginez. Eseri eta barre egin genien, urrundu ahala, lehenik hegoalderantz eta gero hego-mendebaldetik ekialderantz, ipar-ekialderantz eta gero berriro ekialderantz, ibaiak ia begizta bat eratuz egiten zituen bi bihurgune handiei jarraituz.

Berriro mendebalderantz gindoazela, Suaren Gizonak oso atzera utzirik, ezaguna genuen eszena batek jo gintuen begietan.

Edatera joaten ziren animalien joan-etorriak ikustera behin edo bitan joan izan ginen edaleku handia zen. Hura pasata azenario-sailak egon behar zuen, eta aurrerago haitzuloak eta gure taldearen bizilekuak. Ibaiertzerantz arraunean hasi ginen, bizkor igarotzen zela baitzirudien, eta ohartu ere baino lehen gure taldeak erabiltzen zuen edalekuan geunden. Han zeuden emakumeak eta hurrak, ur-garraiataileak, mordoxka bat, beren kalabazak urez betetzen. Ikusi gintuztenean zalaparta batean alde egin zuten, eroen moduan, malkarretan zehar, kalabaza pila bat bertan erorita utzirik.

Lehorreratu ginen eta, jakina, ahaztu katamarana lotzea, eta ibaian behera jarraitu zuen ur-lasterrean. Kontu handiz igo ginen bidezidor batetik. Talde guztia bere zuloetan ezkutatuta zegoen, baina ikusten genuen, hala ere, han-hemenka bururen bat guri zelatan. Begi Goriren aztarrenik ez zegoen. Etxean ginen berriro. Eta gau hartan bertan malkar gorenean genuen haitzulotxoan lo egin genuen, ez ordea lehendabizi hartaz jabetuak ziren mutiko pare temati bat bertatik kanpora bidali gabe.

XIV. KAPITULUA

Hilabeteak etorri eta hilabeteak joan ziren. Etorkizuneko drama eta tragedia zehaztu gabe zeuden oraindik eta, bitartean, intxaurrak puskatzen genituen eta bizi egiten ginen. Gogoan dut intxaur-urte ona izan zela hura. Kalabazak intxaurrez bete eta tontortuta eramaten genituen puska-lekuetara. Intxaurrak harri-zulotxo batean jarri, beste harri bat eskuan hartu, jo, eta puskatu ahala jan egiten genituen.

Udazkena zen Belarri Makur eta ni gure abentura-bidaia luzetik itzuli ginenean, eta hurrengo negua nahikoa epela izan zen. Maiz joaten nintzen nire behinolako zuhaitzeko etxera, eta sarritan aritzen nintzen bila ahabien paduraren eta Belarri Makurrek eta biok marineltza asmatu genuen ibai-ahoaren artean zegoen lurralde osoan; baina ez nuen Zaluren aztarrenik aurkitu. Desagertu egin zen. Haren gogoa nuen. Lehen ere aipatu dudan gose hark bultzatzen ninduen; gose fisikoaren oso antzekoa zen, eta urdaila ondo beteta neukanean ere askotan etortzen zitzaidan. Baina alferrik izan ziren nire bilaketa guztiak.

Haitzuloetako bizitza ez zen monotonoa, nolana ere. Kontuz ibili behar zen Begi Gorirekin. Belarri Makurrek eta biok ez genuen sosegurik, gure haitzulotxoan geundenean ez bada. Sarrera zabaldu izanagatik, estututa sartu behar izaten genuen. Eta aldian behin berriro handitzen genuen arren, txikiegia zen, zorionez, Begi Goriren gorputz munstroarentzat. Baina ez zigun haitzuloan erasorik egin. Ongi ikasia zuen nonbait lezioa; lepoan kozkor handi bat zuen oraindik, nire harrikadak non jo zuen seinale. Kozkor hori ez zitzaion inoiz joan, eta nahikoa handia zuen, urrutitik ikusten zitzaion-eta. Behin baino gehiagotan poztu nintzen neure eskuez egindako lan hura ikusiz; eta leku seguruan nengoenean, barre egiten nuen hari begira.

Begi Gorik beren aurrean zati-zati egingo bagintu ere gure taldeko gainerako guztiak laguntzera etorriko ez zitzaizkigun arren, gure alde zeuden, egon. Baliteke adiskidetasuna ez izatea, Begi Goriri zioten gorrotoa adierazteko modu bat baizik, baina beti jakinarazten ziguten inguruan zela. Oihanean, edalekuan, haitzuloen aurreko zabaldian izan, beti zeuden prest abisua emateko. Horrela bada, begi asko izateko abantaila genuen Begi Gorirekin, atabismoarekin, genuen borrokan.

Behin ia-ia harrapatu ninduen. Goiz-goiza zen oraindik, eta gure taldea jaiki gabe zegoen. Erabateko ustekabea izan zen. Labarrean gora haitzulorako bidea moztu zidan. Tximista batean haitzulo bikoitzean sartu nintzen, urte batzuk lehenago Belarri Makurrek ihes egin zidan eta Ezpata Hagin tigre zaharra taldeko bi kide harrapatzen alferrik ahalegindu zen haitzulo hartan. Bi haitzuloen arteko pasabidean sartu nintzenean, segituan ohartu nintzen Begi Gorik ez zidala jarraitzen. Hurrengo momenturako beste sarreratik sartu zen haitzulora. Nik atzera egin nuen berriro pasabidetik, eta hark kanpora eta bestetik ekin zidan, behin eta berriro. Nik, berriz, pasadizotik batera eta bestera irristatu besterik ez nuen egiten.

Egun erdiz eduki ninduen horrela, etsi zuen arte. Harrez gero, Belarri Makur edo ni haitzulo bikoitz horretara iristeko seguru samar geundenean, ez ginen haitzulo txikian ezkututzen Begi Gori azaltzen zenean. Hari begirik ez kendu, horixe egiten genuen, eta ihesbidea moztu ez ziezagun kontu hartu.

Negu hartan hil zuen Begi Gorik bere azkeneko emaztea tratu txarrez eta jipoien ondorioz. Atabismoa zela esan dut; baina atabismoa baino okerragoa zen, zeren behe-mailako animalia arrek ez baitituzte gaizki tratatzen eta hiltzen beren bizikideak. Horregatik diot Begi Goriri buruz, bere ikaragarritzko joera atabikoak gorabehera, etorkizuneko gizonaren etorrera iragartzen zuela, zeren giza espezieko harrak baizik ez baitu hiltzen bere bizilaguna.

Uste izatekoa zen bezala, azkeneko emaztea hil ondoren beste baten bila hasi zen Begi Gori. Kantari aukeratu zuen, Hezur Handiren biloba eta Bizar Motzen alaba. Gaztetxoa, ilunabarrean bere haitzuloko sarreran kantuan egon zalea, eta artean aspaldi ez zela Hanka Okerrekin bizitzen hasia. Hanka Oker mutil lasaia zen, inori trabarik egiten ez ziona, inorekin borrokan jarduteko joerarik ez zuena. Ez zen borrokalaria. Txikia eta argala zen, eta ez gu bezain zalua. Hura izan zen Begi Gorik egin zuen ekintza higuingarriena. Ilunabarreko ordu barean gertatu zen, nor bere haitzulora erretiratu baino lehen zabaldian biltzen hasi ginenean. Bat-batean non ikusten dugun Kantari edalekutik gorako malda lasterka igotzen, atzetik Begi Gori zuela. Senarrarengana joan zen lasterka. Hanka Oker gaixoa izuak jota zegoen. Baina heroia izan zen. Bazekien hiltzera zihoala, baina ez zuen ihes egin. Hantxe geratu zen, zutik, orroka, eta hortzak erakutsiz.

Begi Gori orroka ari zen, amorruz. Irain bat zen harentzat taldeko norbait erronka egitera ausartzea. Eskua jaurti eta Hanka Oker gaixoari zintzurretik heldu zion. Hark Begi Goriri hortzak besoan iltzatu zizkion, baina handik une batera Hanka Oker lurrean zetzan, zintzurra etenda, ikaraz eta bihurritzen. Kantari garrasika eta oihuka ari zen. Begi Gorik buruko ileetatik heldu eta arrastaka zeraman bere haitzulorantz. Zakarki zeraman igotzen hasi zenean, eta tarraska eramanean zuen haitzulo barreneraino.

Gu, amorratuta, erotzeko moduan, oihuka ari ginen. Bularra ukabilez joka, ilea lazturik, eta hortz-karraskan, gure amorruan elkarrekin baturik. Elkartasunaren sena sentitzen genuen, ekintza elkarrekin burutzeko bultzada, elkarlanerako joera. Ekintzarako elkartzeko premia hori markaturik zegoen gure baitan, artean oso lausoa bazen ere. Baina nola buruturik ez zegoen, adierazteko modurik ez genuelako. Ez genion denek Begi Goriri aurretik eta bertan eraso, horretarako hitzik ez genuelako. Pentsamendu lauso batzuk genituen; baina ez genuen pentsamendua adierazteko sinbolorik. Pentsamenduaren sinbolo horiek geroago asmatuko ziren, geldiro eta nekez.

Gure hotsak gure kontzientzian itzalak bezala hegaka zebilzkigun gogoetez kargatzen ahalegintzen ginen. Bizar Motz oihuka hasi zen. Hots haien bitartez Begi Goriri zion gorrotoa eta jotzeko gogoia adierazten zuen. Horretaraino iritsi zen, eta horretaraino ulertu genion. Baina barruan zebilkion elkarlanerako bultzada adierazi nahi izan zuenean, mordoilo hutsa bihurtu ziren haren hotsak. Ondoren Aurpegi Zapal ere zarataka hasi zen, ilea lazturik eta bularra ukabilaz joz. Eta gero beste bat, eta azkenean guztiok batu ginen gorrotozko eztanda hartan, eta Hezur Handi zaharra bera ere garrasika eta oihuka ari zen bere ahots kraskatuarekin eta ezpain eroriekin. Norbait makila bat hartu eta enborren bat jotzen hasi zen. Handik une batera erritmoan ari zen jotzen. Ohartu gabe, gure alarauek eta oihuek erritmo hari jarraitzen zioten. Horrek sosegatu egin gintuen; eta, ohartu orduko, amorrua ahazturik, kuru batean bezala ari ginen abesten.

Abesti modu horrexek erakusten du ederki gure taldearen logika eta kemen urria. Han geunden, guztion amorruek eta elkarlanerako bultzadak bildurik, baina erritmo oies batek dena ahanztera desbideraturik. Sozialak eta taldekoiak ginen, eta abesti- eta barre-bilera horiek asebetetzen gintuzten. Bilera horiek gizaki primitiboen bilkuren aitzindariak ziren nolabait, etorkizunean izango ziren gizakien herri-biltzar handien, nazioarteko konbentzioen aitzindariak. Guk, ordea, mundu berri hartako izakiok, hizkuntzarik ez genuen, eta hala biltzen ginen guztietan Babel baten nahasmenduan erortzen ginen, eta handik sortzen zen geroago jaioko zen artearen esentzia barnean zeraman erritmo-batasun hori. Artearen jaiounea zen. Guk jotzen genituen erritmo horiek ez zuten jarraitasunik. Berehalaxe galtzen genuen konpasa eta mila deabruren iskanbila sortzen genuen, berriro erritmoa hartu edo beste bat hasten

genuen arte. Zenbaitetan dozena erdi erritmo eramaten genituen batera, talde desberdinetan, bakoitzak bere hotsarekin gainerako guztien zarata ito nahian.

Iskanbila haren erdian bakoitzak bere jauziak, purrustadak, zaratak eta dantzak egiten zituen, nork beretzat, bere nahikundeak eta gogoetak aski zituela, beste guztiak ahazturik, unibertsoaren erdi-erdia bailitzan, une batez behintzat, bere inguruan jauzi eta uluka zebilzkion gainerako unibertso zentro guztietatik bakarturik. Orduan erritmoa hasiko zen berriro: txaloak; makila bat enbor bat jotzen; errepikaz jauzika ari zen norbaiten eredua, edo erritmo uniforme ahotsez gora eta behera, eztanda baten moduan, "a-bang, a-bang, a-bang!" errepikatzen zuen norbaiten inflexiozko kantua. Lehenengo bat, gero bestea, beren baitan murgilduta zeudenak erritmo hartara moldatu, eta berehalaxe koruan abestuko zuten. "A-a, a-a, a-a-a!", horixe genuen gehien gustatzen zitzaigun koruetako bat edo, beste bat, honako hau: "E-uaj, e-uaj, e-uaj-aj!".

Eta horrela, ibilera ero horiekin jiraka eta balantzaka, kantu eta dantza egiten genuen, mundu primitiboaren ilunabar itzaltsuetan, ahazten saiatuz, unanimitate bila eta gozamenezko frenesi batean barrena murgilduz. Eta horrela baretu zitzaigun Begi Goriren kontrako amorrua, arteak leundurik, eta gure biltzarretako koru basatiak kantatuz jarraitu genuen, harik eta gauak bere izuak ekarri eta haitzetako zuloetara igo ginen arte, elkarri ahots apalez hots eginez, izarrak piztu eta iluntasuna zabaltzen zen bitartean.

Iluntasunak baizik ez gintuen beldurtzen. Ez genuen erlijio-aztarrenik, ez mundu ikusezinaren kontzepturik. Mundu erreala baino ez genuen ezagutzen, eta gauza errealei genien beldurra, arrisku zehatzei, ehizan jarduten zuten haragi-odolezko piztiei. Haiiek izutzen gintuzten iluntasunean, iluna animalia haragijalearen erreinua baitzen. Orduan ateratzen ziren beren zuloetatik, eta orduan jauzi egiten gure kontra, gure zelatan zeuden ilunpetik.

Ilunpetako izaki egiazko eta ukigarriei genien beldur horretatik sortuko ziren beharbada geroago izaki irrealekiko beldurrak, azkenean ikusi ezin den mundu oso eta ahaltzu bat gauzatzeko. Baliteke, irudimena azkartu ahala, heriotzaren beldurra ere indartu izana gure taldeko kideen artean, gerora izango zen Herriak beldur hori iluntasunean proiektatu eta espirituz betetzeraino. Uste dut Suaren Gizonak hasiak zirela ilunaren beldur hori izaten; gu ez. Baina Ezpata Hagin, lehoiak, txakalak, basazakurrak, otsoak, eta haragijale goseti guztiak ziren taldea bere kantua utzi eta haitzarteetako haitzuloetara igotzera bultzatzen zuten arrazoiak.

XV. KAPITULUA

Belarri Makur ezkondu egin zen. Gure abentura-bidaiaren ondoko bigarren neguan izan zen hori, eta gutxien uste zen moduan gertatu zen, gertatu ere. Niri ez zidan ezer esan. Ilunabar batean labarretako haitzulora igo nintzenean jakin nuen. Sarreran estutu eta hantxe gelditu nintzen. Ez zegoen lekurik niretzat. Belarri Makur eta haren lagunak berentzat hartuta zeukaten; nor izango laguna, eta neure arreba zen, nire aitaorde Kalakariren alaba.

Indarrez sartzen ahalegindu nintzen. Birentzat baizik ez zegoen lekurik, eta zegoena hartuta zegoen. Alderik txarrena nik nuen, gainera, eta, haiek eman zizkidaten atzaparkadak eta ile-tirakadak ikusita, alde egin behar izan nuen. Gau hartan eta hurrengo batzuetan, bi haitzuloen arteko pasabidean lo egin behar izan nuen. Neure esperientziak erakutsita, nahikoa leku segurua iruditzen zitzaidan. Nola gure taldeko bik han Ezpata Hagin tigrearri ihes egin baitzioten, eta neuk ere bai Begi Goriri, pasabidean aurrera eta atzera ehiza-piztia guztiei ihes egin ahal izango niela uste nuen.

Basazakurrez ez nintzen gogoratu. Haiek aise sartzen ziren ni sar nintekeen edozein pasabidetan. Gau batean usaina hartu zidaten. Bi haitzuloetan batera sartu izan balira, zalantzarik gabe harrapatuko ninduketen. Haietako batzuek pasadizotik jarraitu zidatenez, beste haitzulo-sarrerara atera nintzen. Hantxe zeuden gainerako basazakur guztiak. Gainera oldartu zitzaizkidan, nik labarrera jo eta igotzen hasten nintzen une berean. Haietako batek, piztia zalu eta gosetu batek, jauzian bertan hozka egin zidan. Izterreko giharretan iltzatu zidan hagina, eta ia bota ninduen atzera. Ondo heldu zidan, baina ez nintzen ahalegindu askatzen, eta gainerako piztien irismenetik gorago igotzen egin nuen ahalegin guztia.

Nire burua salbu ikusi nuen arte ez nintzen larritu izterrean sentitzen nuen oinaze biziaz, eta orduan, dozena bat oin beherago jauzika, hormari atzamarka igo nahi eta berriro behera erortzen zen zakur saldo hura nuela, zakurrari zintzurretik heldu eta ito egin nuen. Denboratxo eraman zidan horrek. Atzamarka egiten zidan, eta atzeko hankez ilea eta azala urratzen zidan, gorputz osoarekin ikaragarritzko astinduak ematen zituen, hormatik behera bota nahiz.

Azkenean hortzak askatu eta haragi urratua askatu zidan. Gorpua labarraren tontorrera eraman, eta gau hartan nire behinolako haitzuloaren sarreran babestu nintzen, eta barruan Belarri Makur eta nire arreba. Hori baino lehen, ordea, taldearen irain-eraso bat pairatu behar izan nuen, iskanbila hura sortu nuelako. Baina mendekua hartu nuen. Aldian behin, azpiko zakur saldoaren zarata baretzen zenean, harri bat botatzen nien eta berriro hasten zen iskanbila. Eta berriro hasten ziren alde guztietatik talde haserretuaren irainak. Goizean, Belarri Makur eta bere emaztearekin batera banatu nuen zakurra, eta zenbait egunez ez ginen ez landarez ez fruituz elikatu.

Belarri Makurren ezkontza ez zen zoriontsua izan baina, bere kontsolamendurako, ez zuen askorik iraun. Aldi hartan ez bera ez ni ez ginen zoriontsuak. Ni bakarrik nengoen. Nire haitzulotik kanpora egotzi izanaren ondorio txarrak pairatu behar izan nituen, eta ez nintzen

gure taldeko beste mutikoteetako inorekin elkartu. Susmoa dut Belarri Makurrekiko adiskidetasuna ohitura bihurtua nuela.

Ni neu ere ezkon nintekeen, egia da, eta gustura ezkonduko nintzatekeen, gure taldean genuen emakume urritasunagatik izan ez balitz. Aise ulertuko da Begi Goriren gehiegikeriak zirela eskasia horren arrazoa, eta horrexek erakusten du zelako mehatxua zen hura gure taldeak irauteko. Zalu ere bazen, gainera, eta ez neukan ahaztuta.

Nolanahi ere Belarri Makur ezkondata egon zen bitartean aterik ate deika ibili nintzen, hara eta hona, lotan nengoenean arriskuan gauero, eta behin ere erosotasunik gabe. Taldeko bat hil zen, eta haren emaztea beste baten haitzulora joan zen. Haitzulo abandonatu hartaz jabetu nintzen, baina sarrera zabala zeukan, eta Begi Gorik ia harrapatu ninduen behin; horregatik pasadizoa zuten bi haitzuloetara joan nintzen berriro lotara. Udan, nolanahi ere, aste osoak igarotzen nituen haitzuloetatik kanpo, zuhaitzetan egiten nuen habia batean lo eginez, ibai-ahotik hurbil.

Esan dut Belarri Makurrek ez zuela zorionik. Nire arreba Kalakariren alaba zen, eta bizimodu negargarria eman zion Belarri Makurri. Beste inongo haitzulotan ez zen izaten hainbeste iskanbila eta sesio. Begi Gori Bizar Urdin bat baldin bazen, Belarri Makur emakumearen mendeko bat zen, eta Begi Gori zuhurregia zen Belarri Makurren emaztea desiratzeko, nik uste.

Haren zorionerako, hil egin zitzaion emaztea. Gauza bitxi bat gertatu zen uda hartan. Ia uda-amaiera zela, sustrai haritsuko beste azenario-uzta bat erne zen. Espero ez zen uzta horretako azenarioak sustrai gozo lodikoak ziren; horregatik, azenario-saila izan zen aldi batez gure taldearen janari leku gustukoena. Goiz batean, aski goiz, gutako zenbait gosaltzen ari ginen. Alde batean Bizar Motz neukan. Urrutixeago haren aita eta semea, Hezur Handi eta Ezpain Luze. Beste aldean Belarri Makur eta nire arreba, arreba niregandik hurbilago.

Ez zegoen ezeren abisurik. Horretan Bizar Motz eta nire arreba korrika eta oihuka hasi ziren bat-batean. Une horretan bertan alderik alde igaro zituzten gezien ziztua entzun nuen. Handik une batera bihurrika eta arnasestuka zeuden lurrean, eta gainerako guztiak zuhaitzetara gindoazen itsumustuan. Gezi bat ondotik igaro zitzaidan, eta lurrean iltzatu zen; haren kirteneko luma dardaraz geratu zen lurra jo zuenean. Oraindik gogoan dut zer bihurrera egin nuen, saihesteko, eta zein alferreko bira handia egin nuen. Zaldiak beldurra dionari ihes egiten dion bezala ihes egin nuen, nonbait.

Belarri Makur, ondoan lasterka zihoala, estropezu egin eta lurrera erori zen. Hanka gezi batek alderik alde igarota zeukan, eta estropezu eragin zion. Lasterka egiten ahalegindu zen, baina trabaturik zegoen eta berriro erori zen. Eseri, makurtu, beldurrak ikaratan, eta erreguka deitzen zidan. Biratu nintzen. Gezia erakutsi zidan. Heldu eta tira egin nion, baina horrek eragiten zion oinazeagatik eskutik heldu eta geldiarazi zidan. Beste gezi bat pasatu zitzaigun ziztuka bion artetik. Beste batek harri bat jo, botea egin eta lurrera erori zen. Gehiegi zen. Indar guztiaz tira egin nuen, kolpetik. Belarri Makurrek oinazezko alarau bat egin zuen gezia ateratzean. Handik une batera ihesi batean geunden berriro.

Atzera begiratu nuen. Hezur Handi zaharra, bakarrik eta atzeraturik, zabuka eta isilik zihoan lasterka, heriotzarekin lehian. Batzuetan ia erortzen zen, eta behin osorik erori zen; baina ez

zetozen gezi gehiago. Ozta-ozta jaiki zen oinen gainean. Adinak pisu astuna zeukan harengan, baina ez zuen hil nahi. Oihaneko zelata-lekutik lasterka abiatu ziren Suaren hiru gizonak aise harrapatuko zuketena, baina ez ziren saiatu ere egin. Zaharregia eta gogorregia iruditu zitzaizena beharbada. Bizar Motz eta nire arreba nahi zituzten, zeren, zuhaitzetatik atzera begiratu nuenean, han ikusi nituen Suaren Gizonak harri puska batzuez buruan jotzen. Suaren Gizonetako bat herrenka zebilen ehiztari zahar zimurtua zen.

Zuhaitzen artetik haitzuloetarantz jo genuen, jende pila aztoratu eta ordenarik gabea, beren zuloetara bidean oihaneko piztia txo bizi guztiak aurrean hartuz, eta eskinosoei lotsagarriro garrasi eginaraziz. Han, hurbileko arriskurik ez zegoenez, bere aitona Hezur Handiren zain geratu zen Ezpain Luze; eta zaharrek eta gazteek, bien artean belaunaldi baten aldea zutelarik, gure atzeguardia osatzen zuten.

Horrela berriro ezkongabetu zen Belarri Makur. Gau hartan bertan harekin lo egin nuen behinolako haitzuloan, eta berriro hasi genuen gure behinolako adiskide-bizitza. Ez zirudien bere bizikidearen heriotzak samin handirik eragin zionik. Samin-seinalerik ez zuen erakutsi behintzat, ez haren faltarik ere. Hankako zauriak zirudien traba egiten ziola, eta astebete baino gehiago eman zuen lehen zuen zalutasuna berriro iritsi zuen arte.

Hezur Handi zen gure taldeko agure bakarra. Batzuetan, iragan hartara begiratzuz, garbiago ikusten dudanean, harrigarriko antza sumatzen dut haren eta nire aitaren baratzezainaren aitaren artean. Lorazainaren aita agure ximur, ihar bat zen, eta bere begitxo makartsuez begiratzen zuenean, edo ohi horzgabe bez marmarka egiten zuenean, Hezur Handi zaharraren itxura zuen eta hark bezalaxe jokatzeko zuen. Haurra nintzenean antz horrek izutu egiten ninduen. Agure hura bere bi makuluen gainean balantzaka etortzen ikusten nuenean ihes egiten nuen beti. Hezur Handi zaharrak bazuen bizar bakandu zuri bat, agure haren bibotearen berdina-berdina iruditzen zitzaidana.

Esan dudana bezala, Hezur Handi zen gure taldeko agure bakarra. Salbuespena zen. Gure taldekoak inoiz ez ziren zahartzarora iristen. Erdi mailako adinekoak ere bakanak ziren. Bortxazko heriotza izaten zen ohikoena. Nire aita hil zen bezala edo Hagin Mailatu hil zen bezala hil ohi ziren, Bizar Motz eta nire arreba hil berriak ziren bezala, bat-batean, bortxaz, sasoirik onenean, indarrez beterik, eta bizitzaren ederrenean. Heriotza naturala? Bortxazko heriotza zen egiazko heriotza naturala garai haietan.

Gure taldean inor ez zen hil zaharrez. Nik behintzat inor ez nuen ezagutu. Hezur Handi bera ere ez zen hala hil, eta huraxe zen nire belaunaldian hori gerta zekioken bakarra. Kolpe txar batek, senaren une bateko lausotasunak, bat-bateko heriotza esan nahi zuen. Heriotza horien lekukorik ez zen izaten normalean.

Taldeko kideak bistatik desagertu egiten ziren, besterik gabe. Goizean haitzulotik irten, eta ez ziren gehiago itzultzen. Desagertu egiten ziren... piztia ehiztarien urdail goseetan.

Suaren Gizonen azenario-sailean egin zuten sarraldi hura gure taldearen amaieraren hasiera izan zen, nahiz gu konturatu ez. Denbora joan ahala Suaren Gizonetako ehiztariak geroz eta sarriago hasi ziren azaltzen. Pareka edo hirunaka etortzen ziren, oihanean isil-isilik ibiliz; haien gezi hegalaria ezerez bihurtzen zuten distantzia, eta zuhaitzik garaienetatik botatzen zituzten biktimak, beraiek goraino igo beharrik gabe. Arkuak eta geziak beren jauzien eta heldukaden

luzamendu ikaragarri batzuk ziren, eta hala gai ziren ehun oin eta gehiagoko distantziatara norbait jo eta hiltzeko. Ezpata Hagin berbera baino askoz beldurgarriago bihurtzen zituen horrek. Eta oso burutsuak ziren gainera. Bazekiten hitz egiten eta horrek arrazoitzeko gauza egiten zituen eta, azkenik, bazekiten zein ziren elkarlanaren abantailak.

Gu, taldekook, errezelotsuak eta fidakaitzak bihurtu ginen oihanean genbiltzanean. Horregatik begia azti ibiltzen ginen beti, zelatari eta izukor. Zuhaitzak ez ziren, jada, fidatzeko babesleku ziurra. Ezin ginen zuhaitz-adarretatik zintzilikatu, eta azpian zeuden animalia etsai haragizaleei barre egin. Suaren Gizonak haragijaleak ziren, ehun oin luzeko erpe eta hortzekin: hasierako mundu hartan zebiltzan piztia ehiztari guztietan beldurgarrienak.

Goiz batean, gure taldea oihanean zehar barreiatu aurretik, beldurra zabaldu zen ur-garraiatazaileen eta ibaira edatera joandakoen artean. Talde guztia haitzuloetara bildu zen lasterka. Halakoetan ohitura genuen lehendabizi ihes egin eta arrazoiak gero aztertzea. Haitzulo-sarreretan geratu ginen zain eta begira. Handik pixka batera, Suaren Gizonetako bat zabalduan sartu zen kontuz-kontuz. Aguretxo ximur iharra zen, ehiztari zaharra. Luze geratu zen, guri begira, gure haitzuloak eta malkarreko horma goitik behera begiratzen. Bidezidor batetik edaleku batera jaitsi zen, eta minutu batzuk geroago beste bidezidor batetik itzuli zen. Berrito geratu zitzaigun arretaz begira, luzaro. Ondoren, etorri zen lekutik berrito itzuli eta oihanean barrenera alde egin zuen herrenka, gu sarrera batetik bestera triste eta kexu elkarri deika utzirik.

XVI. KAPITULUA

Bere behinolako bizilekuan aurkitu nuen Zalu, fruituak biltzen genituen paduretatik gertu, nire ama bizi zen eta Belarri Makurrek eta nik lehenengo habia egin genuen lekuan. Ustekabean izan zen. Zuhaitzaren azpira hurbildu ahala, ahots gozo ezaguna entzun eta gora begiratu nuen. Hantxe zegoen, nire Zalu, adar batean eserita, hankak aurrera eta atzera zintzilik zituela, niri begira.

Puska batean geldi egon nintzen. Ikusteak poztu egin ninduen. Baina orduan larritasuna eta samina hasi zitzaizkidan poz hartan nahasten. Zuhaitzean gora bere atzetik igotzen hasi nintzen, eta bera poliki-poliki adarretik erretiratuz zihoan. Ia iristen ari nintzaiola, airean salto egin eta ondoko zuhaitzera alde egin zidan. Hosto-hotsaren artetik azalduz begiratzen zidan, eta hots gozoak egin zizkidan berriro. Zuzen-zuzenean egin nuen jauzi beregana, eta pertsekuzio bizi baten ondoren lehengo egoera berbera errepikatu zen; zeren han baitzegoen berriro, beste zuhaitz baten adarren artetik, bere hots gozoak eginez eta begiraturaz.

Belarri Makur eta biok abenturara abiatu ginen garai hartan ez bezalako zerbait erne zitzaidala konturatu nintzen. Haren desioa nuen, eta banekien desiratzen nuela. Eta berak ere bazekien. Horregatik ez zidan uzten hurbiltzen. Ahaztu egin nuen zalua zela benetan, eta berak irakatsi zidala adarretan ibiltzen. Zuhaitzik zuhaitz jarraitu nion, eta itzuri egiten zidan beti, bere begi amultsuez atzera begiraturaz, hots gozoak eginez eta nire aurrean dantza eta zabu eginez, baina nire irismenetik kanpo beti. Zenbat eta gehiago ihes egin, orduan eta desio handiagoa nuen atzemateko, eta arratseko itzal luzeak izan ziren nire ahaleginaren alfertasunaren lekukoak. Segika nindoala edo batzuetan hurbileneko zuhaitzetik begiraturaz atsedean hartzen nuen bitartean, beregan gertatua zen aldakuntzaz ohartu nintzen. Garaiagoa zen, astunagoa, haziagoa. Itxura biribilagoa zuen, giharrak beteagoak, eta bazuen zehaztu ezinezko heldutasun berri bat, kitzikatzen ninduen. Hiru urtez ibili zen kanpoan, hiru urte gutxienez, eta aldaketa nabarmentzen zitzaion. Hiru urte diot; ezin dut zehatzago neurtu. Baliteke lau ere izatea, eta hartan gertatuak hiru urte horietan gertatuekin nahastea nik. Baina zenbat eta gehiago pentsatzen dudan horretan, orduan eta argiago iruditzen zait lau urte gutxienez egin zituela kanpoan.

Nora joan zen, zergatik joan zen, eta bitarte horretan zer gertatu zitzaion, ez dakit. Niri esateko modurik ez zuen, Belarri Makurrek eta nik kanpoan ginen bitartean ikusitakoak taldeari esateko modurik ez genuen bezala. Baliteke berak ere abentura-bidaiaren bat egin izana, guk bezala, berak bakarrik. Beste alde batetik, baliteke alde egiteko arrazoia Begi Gori izana. Ia gauza segurua da hark topatuko zuela inoiz basoan hara eta hona zebilenean; eta, pertsegitu baldin bazuen, zalantzarik ez dago aski izango zela hori Zalu urrutzeko. Geroztik gertatu zirenengatik, pentsatu izan dut oso urrutira egin zuela bidaia, hegoaldera, mendi sail osoak igaroz, gero ibai ezezagun baten ertzetara jaisteko, bere kideko guztiengandik urruti. Zuhaitzetako Gizon asko bizi ziren han, eta haiek bultzatu zuten azkenean, nik uste, berriro taldera eta niregana itzultzera. Geroago azalduko zut zergatik uste dudan hori.

Itzalak luzatzen ari ziren, eta ni geroz eta sutsuago ari nintzaion segika, baina ezin nuen harrapatu. Niregandik desesperatuta ihesi balihoa bezala itxura egiten zuen, eta beti moldatzen zen irismenetik ozta-ozta kanpoan egoteko. Dena ahaztu nuen, denbora, gaua bazetorrela, etsai haragijale odolzaleak. Amodioak erotuta nengoen, eta haserre orobat, bere ondora hurbiltzen uzten ez zidalako. Bitxia zen haserre horrek zenbateraino zirudien hartaz nuen desiraren parte bat zela.

Esan dudan bezala, dena ahaztu nuen. Zabaldi batean lasterka nindoala, suge pila batean sartu nintzen. Ez zidaten atzera eragin. Eroturik nengoen. Eraso egin zidaten, baina, jauzika eta saihestuz, aurrera jarraitu nuen lasterka. Pitoi bat topatu nuen; bestelako batean, zuhaitz puntaraino uxatuko nindukeen garrasika. Zuhaitz batera ihes eginarazi zidan; baina Zalu bistatik galtzen ari nintzen, eta lurrera jauzi egin eta aurrera jarraitu nuen. Ozta-ozta libratu nintzen. Gero betiko etsaia azaldu zen, hiena. Nire jokaeragatik seguru egongo zen zerbait gertatuko zela, eta ordubetez jarraitu zidan. Aurrerago basurde saldo bat asaldatu genuen, eta haiek ere atzetik hasi zitzaizkigun. Zalu zuhaitzen artean ikaragarritzko jauzi bat egitera ausartu zen; niretzat gehiegizkoa zen. Nik lurrera jaitsi behar izan nuen. Han zeuden basurdeak. Ez zitzaidan axola. Hurbilenekotik arrabete baino gutxiagora lurreratu nintzen. Lasterka nindoanean ondoan jarri zitzaizkidan, eta bi bider behartu ninduten zuhaitzetara igotzera, Zaluren bidetik desbideratuz. Berrito lurrera menturatu nintzen, atzera itzuli eta tarte luze bat egin nuen lurrean, saldo osoa marraka, ilea lasturik, eta neure orpoen ondo-ondoan hortz karraska eginez atzetik nuela.

Zabaldian pauso huts bat, estropezu bat, eta ez zegoen salbamenik niretzat. Baina ez zen gertatu. Eta ez zidan axola. Halako aldardean nengoen, non Ezpata Hagin berari edo Suaren Gizon gezi-jaurtitzaileri ere aurre egingo bainiekeen. Horretarainokoxe amodiozko eromena nuen. Zaluri ez zitzaion horrelakorik gertatzen. Hura zuhurra zen oso. Ez zuen egiazko arriskurik hartzen, eta oraindik gogoan dut, mendetan zehar nire begiak maitasun-pertsekuzio hartara bihurtuz, basurdeek geldiarazi nindutenean berak ez zuela oso bizkor lasterka egiten, nik berriro jarraitzeko. Berak gidatzen zuen ihesa, gehien komeni zitzaion bidetik joanez beti. Azkenik ilundu egin zuen. Orduan zuhaitz artean ageri zen zintzur baten malda goroldiotsuan zehar gidatu ninduen Zaluk. Gero sastrakadi itsu batean barrena sartu ginen; handik igarotzean niri urratuz bete zitzaidan azala. Hari ile bat ere ez zitzaion kateatu. Ongi ezagutzen zuen bidea. Sastrakadiaren erdian haritz handi bat zegoen. Zalu zuhaitz hartara igo zenean ni oso gertu nengoen; eta adar urkulduetan, hainbeste bider eta alferrik bila aritutako habian, han harrapatu nuen.

Hienak berriro hartu zuen gure aztarrenen usna eta zuhaitzpean zegoen, gose-hotsak eginez. Baina ez ginen kezkatu, bestela baizik, barre egiten genion, hortzak erakutsi eta sasi artetik alde egin zuen arte. Udaberria zen, eta era askotako zaratak entzuten ziren gauean. Urtaro horretan ohitura zen bezala, borroka asko izaten zen animalien artean. Habiatik aise entzuten genituen basazaldien irrintziak, elefanteen tronpeta hotsa, eta lehoien orroa. Baina ilargia atera zen, airea epela zegoen, eta guk pozik egin genuen barre, beldurrik gabe.

Gogoan dut hurrengo goizean bi txori ar hain itsuturik ikusi genituela borrokan, non joan eta lepotik helduta harrapatu baintuen. Horrela ospatu genuen Zaluk eta nik gure ezkontza

ondoko lehenengo gosaria. Gozo-gozoak zeuden. Udaberrian oso erraz harrapatzen ziren txoriak. Urte hartako beste gau batean bi altze ilargiaren argitan borrokan ari ziren, Zalu eta biok zuhaitzetatik begira ginela; eta lehoi ar bat eta eme bat ezkutuan hurbiltzen ari zitzaizkiela ikusi genuen, eta borrokan ari zirela hil zituzten.

Egiaz ez dakit zenbat denboraz bizi izan ginen Zaluren habia hartan. Egun batean, ordea, gu kanpoan ginela tximistak jo zuen zuhaitza. Adar handiak erauzi zituen eta habia erabat desegin. Berriro egiten hasi nintzen, baina Zaluk ez zuen ezer nahi izan. Geroago ikasiko nuen bezala, izutu egiten zuen tximistak, eta ezin izan nuen konbentzitu gure zuhaitzera itzultzeko. Horrela, bada, gure eztei-bidaiaren ondoren, haitzuloetara itzuli ginen bizitzera. Eta Belarri Makurrek, ezkondu zenean, haitzulotik kanpora bota ninduen bezalaxe, neuk ere halaxe egotzi nuen handik kanpora; Zaluk eta biok hartu genuen lekua; bien bitartean Belarri Makurrek haitzulo bikoitzeko pasadizoan egiten zuen lo.

Eta Taldearekin bizitzera itzultzearekin batera, arazoak etorri ziren. Nik ez dakit zenbat emazte eduki zituen Begi Gorik Kantariren ondoren. Hark ere besteen akabera berdina izan zuen. Orain izaki gaixo, koldartu bat zeukan; negarrez aritzen zen denbora guztian, jotzen bazuen edo jotzen ez bazuen ere; haren heriotza berehalaxe etorriko zen. Hil baino lehenago ere, Begi Gorik nire Zalu jo zuen begiz; eta hura hil bezain laster Zaluren bila hasi zen.

Eskerrak Zalu bizkorra zen, eta zuhaitzetatik zehar ihes egiteko trebezia hura zuen. Trebezia eta ausardia guztia behar izan zuen Begi Goriren erpeetatik ihes egiteko. Nik ezin bainiezaiokeen lagundu. Hain zen munstro indartsua, non aise zatituko bainindukeen atalez atal. Hil nintzen arte bizkar bat elbarriturik erabili nuen, hark hondatuta, euria zenean oinazea eragiten eta ezertarako ez nintzela uzten ninduen.

Zaurituta egon nintzen garai horretan Zalu gaixotu egin zen. Malaria puntu bat izango zen seguruenik, aldi behin izaten baikenuen; baina, edozer zela ere, ahulduta eta astun utzi zuen. Bere giharretan ez zuen ohiko oldarra, eta nahiko egoera txarrean zegoen ihes egiteko Begi Gorik, haitzuloetatik hegoaldera zenbait miliatara, basazakurren habietatik gertu zokoratu zuenean. Beste batean izan balitz, ingurubira egin, lasterka irabazi, eta gure sarrera estuko haitzuloaren babesean gordeko zen. Baina ezin izan zion ihes egin. Ahulegi zegoen eta geldiroegi zebilen. Begi Gorik ez zion uzten, harik eta Zaluk etsi eta ahalegin guztia haren atzaparretatik ihes egiten jarri zuen arte.

Gaixo egon izan ez balitz, haurren jolasa izango zukeen hari ihes eragitea: baina, orain zegoen bezala egonda, zuhurtasun eta maltzurutasun guztia beharko zituen horretarako. Ihes egiteko adar mehegoez baliatu ahal izatea zeukan bere alde, eta jauzi handiagoak egin ahal izatea. Distantziak neurtzen trebea zen gainera, eta aparteko begia zuen adarren eta egur ustelduaren gogortasuna antzemateko ere.

Bukaerarik gabeko pertsekuzioa izan zen. Aurrera eta atzera, batera eta bestera, sekulako lasterraldi luzeak oihanean zehar. Taldekoak oso asaldatuta zeuden. Sekulako iskanbila basatia antolatu zuten, zenbat eta Begi Gori urrutiago, orduan eta ozenagoa, eta pertsekuzioak hurbiltzen zuenean isilagoa... Ezer egiteko gauza ez ziren ikusleak ziren. Emakumeek garrasiak eta oihuak egiten zituzten, arrek ukabilez bularra jotzen zuten,

alferreko amorruez. Aurpegi Zabal, batez ere, oso haserre zegoen, eta Begi Gori hurbiltzen zenean isiltzen bazen ere, ez zen besteak adina isiltzen.

Nik, nire aldetik, ez nuen ausardia berezirik erakutsi. Badakit ez nintzela heroia, ezta gutxiagorik ere. Zertarako balio behar zidan, gainera, Begi Goriri aurre egiteak? Munstro ahaltzua, piztia izugarria zen, eta indarrez indarreko borroka batean ez zegoen esperantzarik niretzat. Hilko ninduen, eta egoera ez zen batere aldatuko. Zalu haitzulora iritsi baino lehenago harrapatuko zuen. Ezintasunezko amorru batean begiratu besterik ezin egin nezakeen beraz, bidetik kanpo egon, eta hurbiltzen zitzaidanean amorrua baretu.

Orduak joan ziren. Arratsaldea aurrera zihoan, eta erasoak lehen bezala jarraitzen zuen. Zalu akitu egin nahi zuen Begi Gorik. Nahita nekatzen zuen. Handik puska batera, Zalu nekatzen hasi zen eta ezin zuen itsumustuan ihes egiten jarraitu. Orduan ahal zuen adarrik meheenetara igotzen hasi zen, Begi Gorik jarraitu ezingo zion lekuraino. Han atseden pixka bat hartzeko aukera zuen, baina Begi Gori deabrua zen. Haraino jarraitu ezin zionez, adarrak astinduz saiatzen zen botatzen. Bere pisuarekin eta indarrarekin, adarra inarrosi eta zigor baten puntatik eulia botatzen den bezala bezalaxe astindu zezakeen. Lehenengo aldian beheragoko adarretara eroriz salbatu zen Zalu. Beste batean, adar haiek lurreraino erortzea eragotzi ez bazioten ere, kolpea arindu zioten. Beste batean, hain bortizki askatu zuen adarretik, non hegan igaro baitzuen beste zuhaitz baterainoko tartea. Harrigarria da nola heldu zion eta nola salbatu zen. Behartzen zenean baizik ez zen babesten Zalu unetxo batez goiko adar meheetan. Baina hain zegoen nekaturik, non ezin baitzuen beste inola ihes egin, eta sarri samar ari zen adar meheetara joaten.

Jazarpenak jarraitu egin zuen, eta gure taldeak oihuka, bularrean kolpeka eta hortz-karraska eginez jarraitzen zuen. Eta orduan izan zen bukaera. Ilunabarra zen ia. Zaluk, dardaraz eta arnasarik gabe, adar mehe bati heldu zion, etsita. Lurretik hogeita hamar oinera zegoen, eta bitartean ezer ez. Begi Gorik beherago balantza eginez adarra astintzen zuen. Penduluak bezala egiten zuen balantza, haren pisuarekin geroz eta kulunka handiagoak eginez. Orduan kolpetik atzera egin zuen, kulunka gehienara iritsi zen une-unean. Zaluk heldulekua askatu eta lurrerantz abiatu zen, garrasika.

Hala ere airean zuzendu eta zutik erori zen. Normalean, halako altueratik erorita, oinen malgutasunak lurraren kontrako kolpea arinduko zion. Baina orain leher eginda zegoen. Ezin izan zen baliatu malgutasun hartaz. Hankek huts egin zioten; kolpea zertxobait arindu besterik ez zioten egin, eta alboraka erori zen. Ez zen zauritu, ikusi zenez, baina arnasarik gabe utzi zuen. Etzanda, indarrik gabe, eta arnasa ezin hartuta geratu zen.

Begi Gori gainera oldartu eta heldu egin zion. Bere behatz korapilotsuez buruko ileetatik heldu eta garaipen eta erronka orroak egiten zizkion zuhaitzetatik begira zegoen taldeari. Orduan erotu egin nintzen. Zuhurtasuna baztertu eta erabat ahaztu nuen nire haragitan neraman bizitzeko gogoia. Artean Begi Gori orroka ari zela, gainera oldartu nintzaion atzetik. Hain ustekabean harrapatu zuen nire erasoak, non lurrera bota bainuen. Besoiez eta hankeiz inguratu eta lurraren kontra eusten ahalegindu nintzen. Nik bakarrik ezin izango nuen, Begi Gorik bere eskuetako bat Zaluri ileetatik helduta ez baleuka.

Nire jokaerak adoreturik, Aurpegi Zabal ere aliatu egin zitzaidan bat-batean. Borrokari ekin, eta hortzak Begi Goriren besoan iltzatu, eta aurpegia atzamarka urratu zion. Aukera ona zen talde osoa gurekin batzeko. Begi Gori behin betirako akabatzeko une egokia. Baina zuhaitzetan geratu ziren, beldurrez.

Begi Gorik erremediorik gabe menderatu behar gintuen. Derrepente akabatu ez bagintuen, Zaluk mugimendua eragozten ziolako izan zen. Arnasari buelta emana zion, eta erresistitzen hasi zen. Begi Gorik ez zion ilea askatu nahi, eta traba egiten zion horrek. Besotik heldu zidan. Akaberaren hasiera zen niretzat. Tiraka hasi zitzaidan, hortzak eztarrian iltzatzeko moduren baten bila. Ahoa zabaldurik zeukan, eta hortzak erakusten zituen. Estutzen hasi besterik egin ez bazen ere, bizkarra bihurritu zidan, eta bizi guztirako utzi zidan minduta.

Baina une hartantxe zerbait gertatu zen. Ustekabea izan zen. Gorputz handi bat erori zen lauok osatzen genuen multzoaren gainean. Bortxaz bereizi gintuen, zilipurdika atera ginen, eta bat-bateko ustekabe hartan askatu egin genuen elkar. Kolpea gertatu zen unean ikaragarritzko garrasi bat egin zuen Aurpegi Zabalek. Ez nintzen ohartu zer gertatu zen, baina tigre usaina aditu nuen, eta zuhaitzetarantz ihes egin nuen une berean azal marradun bat ikustatu nuen.

Ezpata Hagin zaharra zen. Gure zaratak habian esnatuta, gu ohartu gabe hurbildu zitzagun. Zalu nire ondoko zuhaitzera igo zen, eta haren ondora joan nintzen segituan. Nire besoez inguratu, eta nire kontra estutu nuen, berak emeki-emeki negar eta zotin egiten zuen bitartean. Lurretik orroa eta hezur hotsa entzun zen. Ezpata Hagin zen Aurpegi Zabal izana zena afaltzen. Urrutixeagotik, Begi Gori behera begira zegoen, begiak gorriturik. Munstro hura bera baino ahaltsuagoa zen. Zalu eta biok biratu eta geldiro urrundu ginen zuhaitzen artetik, gure haitzolorantz, taldeak, goialdean pilaturik, aspaldiko etsai hari irain eta adar-zaparrada bat jaurtitzen zion bitartean. Tigreak isatsa zigorka astindu eta orro egiten zuen, baina jaten jarraitzen zuen.

Eta hala salbatu ginen. Ustekabe hutsez, gutxien espero zen halabeharraz. Bestela hantxe hilko nintzen, Begi Goriren atzaparretan, eta ez zen denborazko zubirik izango garai hartatik egunkariak irakurtzen dakien, tren elektrikoetan ibiltzen den, eta ai! antzinako denboretan lausotutako gertaeren hauxe bezalako kontakariak idazten dituen ondorengo baterainoko milaka mende igarotzeko.

XVII. KAPITULUA

Orain kontatu behar dizuedana hurrengo urtearen udazken hasieran gertatu zen. Begi Gorik, Zalu harrapatzen porrot egin ondoren, beste emazte bat hartu zuen, eta gezurra badirudi ere, oraindik bizirik zuen. Harrigarriagoa oraindik, zenbait hilabeteko haur bat zuten: Begi Goriren lehenengo semea. Ordura arteko emazteak ez ziren haurra izateko adina bizi izan. Urte ona izan zen denontzat. Eguraldia bereziki ona izan zen, eta janaria ugaria. Urte hartako arbiak gogoratzen ditut batez ere. Intxaur-uzta ere oso oparoa izan zen, eta basaranak besteetan baino gozoagoak eta handiagoak.

Labur esateko, urrezko urtea izan zen. Eta orduan gertatu zen. Goizean goiz izan zen, eta haitzuloetan harrapatu gintuzten. Argi hotz grisetan heriotzarekin topo egiteko esnatu ginen gutako gehienak. Zalu eta ni oihuen eta garrasien iskanbilak esnatu gintuen. Gure haitzuloa labarrean goienean zegoena zen; sarrerara arrastaka atera eta behera begiratu genuen. Zabaldi osoa Suaren Gizonez beteta zegoen. Haien alarau eta oihuek are zarata gehiago egiten zuten; baina haiek ordena eta plan bat zuten, eta gure taldeak ez. Guk, bakoitzak bere gisa egiten genuen borroka, eta ez genekien nolako hondamendia zetorkigun.

Suaren Gizonei harrika eraso genienean, pilaka zeuden labarraren oinean. Gure lehenengo harri-zaparradak haietako batzuk zanpatu zituen, nonbait, zeren labarretik urrundu zirenean lurrean etzanik geratu baitziren hiru edo lau. Bihurrikatzen eta ezinean zeuden, eta bat arrastaka ari zen ihes egin nahiz, ahaleginetan haitzartetik alde egin nahiz. Baina ez genien utzi. Gizonezkoak haserre bizian orroka ari ginen, eta harrika eta harrika erasotzen genien lurrean zeuden hiru gizonei. Suaren Gizon batzuk haiek leku segurura eramatera itzuli ziren; baina gure harriek atzera eragiten zieten salbatzaileei.

Suaren Gizonak haserretzen hasi ziren. Eta zuhurrago bihurtu ziren. Beren haserre-alarauengatik ere, urrun geratzen ziren, eta gezi zaparradak jaurtikitzen zizkiguten. Hori aski izan zen guk harriak botatzeari uzteko. Guretako dozena erdi bat hilik ziren ordurako, eta asko zauriturik; gainerakoak haitzulo barrenetara erretiratu ginen. Ni neure haitzulo garaian ez nengoen haien irismenetik kanpora, baina distantzia hura aski zen jaurtikitako geziak alferrik izan zitezen, eta Suaren Gizonek ez zituzten beren geziak alferrik galtzen nire kontra. Gainera jakin-mina nuen. Ikusi egin nahi nuen. Zalu, beldurrak ikaraz eta nik sartu nahi ez nuelako zotinka, haitzuloaren barrenenean gelditzen zen bitartean, nik sarreran kuzkurtu eta begira jarraitzen nuen.

Erasoa tarteka egiten zuten orain. Ez aurrera ez atzera egingo ez balu bezala. Gu haitzuloetan geunden, eta kanpora nola aterarazi zen Suaren Gizonek zuten arazoa. Ez ziren ausartzen gureganaino etortzen, eta guk ez genuen nahi haien geziak irismenean jarri. Haietakoren bat labarrera hurbiltzen baldin bazen, gure taldekoren batek zanpatuko zuen harri puskaren bat jaurtikitzen zion. Horren ordainez, dozena erdi gezik alderik alde zulatuko zuten. Eta horrela jarraitu zuen gauzak puska batean; baina azkenean gure taldekoak ez ziren haitzuloetatik agerira ateratzen. Borroka ez aurrera ez atzera zegoen.

Suaren Gizonak baino atzerago, hura dena gidatzen ari zen ehiztari txiki xahar ximeldua ikusten nuen. Hari obeditzen zioten, eta haren agindupean mugitzen ziren batera eta bestera. Batzuk oihanera joan eta enbor lehorrak, hostoak eta belar lehorra ekarriz itzuli ziren. Suaren Gizon guztiak hurbildu ziren. Gehienak gure taldekoren bat kanpora azaltzen ausartzen baldin bazen geziak disparatzeko prest zeuden bitartean, batzuek belar lehorra eta egurra beheerenerako haitzulo-sarreretan pilatu zituzten. Pila haietatik gu beldurtzen gintuen munstroari deitu zioten: Suari. Hasieran ke-hari eta kizkur batzuk atera ziren. Ondoren garraren mihizto gorriak, sutan zeuden egurren artean sugeak balira bezala irristatuz. Kea loditu eta loditu egin zen, batzuetan labarraren aurrealde osoa estaliz. Baina ni oso goian nengoen eta ez zidan traba handirik egiten, begietan mina ematen zidan arren, eta behatzez igurtzi nituen.

Hezur Handi zaharra atera zuen lehenengo kearen itomenak. Aire-bafada batek eraman zuen kea agurea irteten ari zen une berean eta garbi ikusi nuen. Ke artetik atera zen, txingar bat zapaldu, oinazeak garrasi eginarazi zion eta labarrean gora igotzen saiatu zen. Gezi-zaparrada bat joan zitzaion. Haitz baten ertzean gelditu zen, haitz kozkor bati heldurik, eusteko, arnasestuka, eztulka eta burua astinduz. Aurrera eta atzera balantza egiten zuen. Dozena bat geziren isats lumadunak ateratzen zitzaizkion gorputzetik. Agure zaharra zen, baina ez zuen hil nahi. Geroz eta balantza handiagoa egiten zuen; belaunak okertzen hasi zitzaizkion, eta balantza egin ahala aiene larriak egiten zituen. Eskuak heldulekua askatu zuen, eta labarrean behera erori zen. Haren hezur zaharrak lurraren kontra hautsi ziren. Beste aiene bat egin zuen eta ahalegintxo bat jaikitzeke, baina Suaren Gizonetako bat gainera oldartu, eta makila batez burezurra hautsi zion.

Eta horixe bera gertatu zitzaion Hezur Handiri eta taldeko beste askori. Kearen itomena ezin eramanik haitzuloetatik ateratzen ziren, baina gezi ankerren pean erortzen ziren. Emakume eta haur batzuk beren haitzuloetan geratu ziren, eta hantxe ito zituen keak; baina gehienek kanpoan aurkitu zuten heriotza.

Suaren Gizonek era horretan lehenengo haitzulo lerroa hustu zutenean, bigarren haitzulo ilaran gauza bera egiten hasi ziren. Baina belarra eta egur lehorrak jasotzen ari zirenean, Begi Gorik labar goreneraino ihes egin zien, eta emaztea haren atzetik, haurra estu-estu heldurik zeramala. Suaren Gizonek sua prestatzeko behar zuten tartean haitzuloetan geratuko ginela espero zuten nonbait; horrela bada, ez zeuden prestatuta, eta haien geziak hegan hasi zirenerako, Begi Gori eta haren emaztea labarraren gorenean zeuden aspaldi. Gorenera iritsi zenean, Begi Gori itzuli eta amorruez begiratu zien, orro eginez eta bularrean kolpeka. Suaren Gizonek beren arkuak tenkatu zituzten, eta geziek ukitu ez bazuten ere, ihes egin zuen.

Hirugarren ilara keztatzen ikusi nuen, eta gero laugarrena. Taldeko batzuek labarrean gora ihes egin zuten, baina gehienak geziek jotzen zituzten labarrean gora ari zirenean. Gogoan dut Ezpain Luze. Nire erlaitzeraino iritsi zen, oinazez garrasika, gezi batek bularra alderik alde zulatuta, kinten lumaduna bizkarrean dardaraz zuela, hezurrezko muturra aurretik aterata, labarrean gora zihoala gezia atzetik sartuta. Nire erlaitzean erori zen, ahotik odola ugari zeriola.

Une hartan goreneko haitzulo-erlaitzak berez bezala hustu ziren. Keak itorik ez zeuden gure taldeko ia denak batera atera ziren eta aldi berean egin zuten ihes labarrean gora. Horrek salbatu zituen asko. Suaren Gizonak ezin zituzten geziak hain bizkor disparatu. Aire guztia geziz bete zuten, eta zauriturik eta balantzaka erori ziren asko; baina zenbaitek gorenera igo eta ihes egin zuen.

Niregan ihes egiteko bulkada ez zen jakin-mina baino indartsuagoa. Geziek ez zuten jadanik hegan egiten. Bazirudien taldeko azkeneko kideak ihes eginak zirela, baina egon behar zuen oraindik batek edo bestek goreneko haitzuloetan ezkutaturik. Zalu eta biok labarraren gorenerantz igoaldi bat egiteko prestatu ginen. Ikusi gintuztenean oihuka hasi ziren Suaren Gizonak. Ez zen niregatik, Zalurengatik baizik. Oihuka eta garrasika ari ziren eta Zalu seinalatzen zuten. Ez zuten jo nahi. Ez zioten gezi bat ere jaurti. Ahots eztiz eta losintxaz deika hasi zitzaizkigun. Gelditu eta behera begiratu nuen. Zalu izututa zegoen, zotinka, eta jarraitzeko bultzatzen ninduen. Goraino igo ginen, eta zuhaitzen artean desagertu ginen.

Gertaera horrek askotan pentsarazi dit ea Zalu ez ote zen haien arrazakoa, eta artean gogoratzeko gazteegia zela haien artetik galdua ez ote zen, bestela ez zien beldurrik izango eta. Beste alde batetik, baliteke, baita ere, haien arrazakoa izanagatik, ez galdu izana; haien bizilekuetatik urruti oihanean jaioa izatea, eta haren aita beharbada Suaren Gizon arnegatu bat izatea eta ama nire arrazakoa, gure taldeko bat. Nork jakin? Gauza horiek nire irismenetik harago daude, eta Zaluk ere ez zekien nik baino gehiago horri buruz.

Izumenezko egun bat igaro genuen. Bizirik atera ziren gehienek ahabi sailerantz egin zuten ihes, eta inguru hartako oihanetan babestu ziren. Eta egun guztian jarraitu ziguten Suaren Gizonen taldeek, eta harrapatzen gintuzten lekuan hiltzen gintuzten. Aurrez prestatutako plan betetzen ari ziren. Beren lurralde laburrean kabitzen ez zirenez, gureaz jabetzea erabaki zuten nonbait. Ondo konkista tristea! Guk ezin genien aurre egin. Hilakintza bat izan zen, bereizketa gabeko hilaketa, ez zioten inori barkatzen eta; lurraldea hustu zuten arte.

Munduaren bukaera bezalaxe izan zen guretzat. Zuhaitzetara jo genuen babestera; zertarako eta han inguratu eta hil gintzaten familiaz familia. Horrelako asko ikusi genuen egun hartan, eta nik ikusi egin nahi nuen, gainera. Zalu eta biok ez ginen luzatzen zuhaitz bakoitzean, era horretara saihestu genuen inguratuta geratzea. Baina nora joanik ez zen ikusten. Alde guztietan zeuden Suaren Gizonak, beren estermazio-lanean tematurik. Nora begiratu, han topatzen genituen, eta horrela ikusi genituen egin zituzten gauza asko.

Ez nuen ikusi zer gertatu zitzaion amari, baina bai Kalakari bere behinolako zuhaitzean behera nola bota zuten. Eta beldur naiz hura ikusita poz-ikara bat izan ez ote nuen. Nire kontaketa zati hau bukatu aurretik, Begi Goriz hitz egin behar dut. Ahabien paduratik gertuko zuhaitzetako batean harrapatu zuten, bere emaztearekin. Zalu eta biok begira geratu gintzaizkion, ihesian gelditurik. Suaren Gizonak beren lanean kontzentratuegi zeuden gu erreparatzeko, eta ongi ezkutaturik geunden, gainera, gordeta geunden sastraka artean.

Ehiztari talde osoa zegoen zuhaitzaren azpian, geziak jaurtikitzen. Geziak lurrera erortzen zirenean berriro biltzen zituzten. Begi Gori ez nuen ikusten, baina bai entzuten zuhaitzean nonbaitetik orroka.

Tartetxo baten ondoren haren orroak moteldu egin ziren. Zuhaitzaren zuloren batean babestu zen, nonbait. Baina haren emazteak ezin izan zuen babestu. Gezi batek lurrera bota zuen. Zauri larriren bat zuen, zeren ez baitzen ihes egiten ahalegindu. Bere haurra babestuz kuzkurtu zen (bere kontra estututa zeukan) eta erreguzko keinuak eta hotsak egiten zizkien Suaren Gizonei. Inguruan bildu zitzaizkion eta iseka egiten zioten, Belarri Makurrek eta biok Zuhaitzetako agureari iseka egiten genion bezalaxe. Guk ere adarrez zirikatzen eta ziztatzen genuen bezalaxe, berdin egiten zioten Suaren Gizonek Begi Goriren emazteari. Gezien puntaz ziztatzen zuten saihetsetan. Emakume gaixoak, ordea, ez zuen borroka egin nahi. Ezta haserretu nahi ere. Bere haurra estaltzen eta erregutzen jarraitzen zuen. Suaren Gizonetako bat hurbildu zitzaion. Makila bat zuen eskuan. Emakumeak ikusi zuen, eta dena ulertu zuen; baina erreguzko deiak egiten jarraitu zuen, kolpea eman zion arte.

Begi Gori, bere zuloan, gezietatik babestuta zegoen. Ehiztariak elkartu eta une batez hizketan aritu ziren, eta gero haietako bat zuhaitzera igo zen. Ezin dizuet esan zer gertatu zen han goian; baina haren oihu bat entzun, eta behean zeudenen urduritasuna ikusi nuen. Handik minutu batzuetara, haren gorputzak lurra jo zuen. Ez zen mugitu ere egin. Suaren Gizonak begira geratu zitzaizkion, burua jaso zioten, baina utzi zutenean indarrrik gabe erori zen. Begi Gorik Suaren Gizonarenak eginak zituen.

Ehiztariak haserre bizian zeuden. Zuhaitzak pitzatu bat zuen enborrean, lurretik gertu. Belar iharrak eta egurra pilatu eta su eman zioten. Zalu eta ni, elkarri estu-estu besarkaturik, sastraka artean geunden zain. Aldian behin adar berdeak botatzen zizkieten suari, eta kea lodia bihurtzen zen.

Horretan bat-batean zuhaitzetik urrutiratzen ikusi genituen. Baina ez ziren behar bezain bizkorrak izan. Begi Goriren gorputza haien erdi-erdian lurreratu zen.

Amorru-sutan, ezker-eskuin jo eta hautsi egiten zuen bere beso luzeez. Bati aurpegi osoa urratu zion, bere behatz korapilatsu gihar sendoko, tenaza gisako haiekin. Beste bati eztarrian hozka egin zion. Suaren Gizonak alarau basatiak eginez erretiratu ziren, eta berriro oldartu zitzaizkion gainera. Hark, ordea, makila lodi bat hartu, eta arrautza-oskolak balira bezala hasi zen burezurak zanpatzen. Gehiegitxo zen haientzat, eta atzera egitera beharturik aurkitu ziren berriro. Huraxe zen aukera; biratu eta basatien moduan ulu eginez ihes egin zien. Gezi batzuk joan zitzaizkion; baina sastrakadian sartu eta desagertu egin zen.

Zalu eta ni isilik urrundu ginen, baina Suaren Gizonen beste talde batekin egin genuen topo. Ahabien paduraraino jarraitu ziguten; baina guk ezagunak genituen lurretik jarraitu ezingo ziguten zingiradi eta aintzirak gainera igarotzeko zuhaitz-bideak, eta ihes egin genien. Hala, beste aldean, ahabien padura sartaldean hedatzen zen paduratik bereizten zuen baso-zerrenda estu batera iritsi ginen. Han topatu genuen Belarri Makur. Ez dakit nola ihes egingo zuen, bezperako gauean haitzuloetan lo egin ez bazuen behintzat.

Han, baso-zerrenda hartan, eraiki genitzakeen hiru babes eta hantxe geratu; baina Suaren Gizonak alde guztietan ari ziren burutzen beren hilkitza. Arratsaldean, Aurpegi Bizardun eta haren emaztea zuhaitzen artetik ekialderantz ihesi ikusi genituen. Bizkor eta isilik zihoazen, aurpegian izumena zutela. Haien ekarri zuten bidetik ehiztarien oihuak eta guretakoren batzuen garrasiak entzuten genituen. Suaren Gizonek igarobide bat aurkitu zuten paduretan.

Zalu, Belarri Makur eta hirurok Aurpegi Bizardunen eta haren emaztearen ondotik jarraitu genien. Padura Handiaren ertzero iritsi ginenean gelditu egin ginen. Hango igarobideak ez genituen ezagutzen. Gure eremuaz kanpo zegoen; eta gure taldeak inoiz ez zuen nahi izan han sartzerik. Hara sartu eta berriro itzuli behintzat inor ez zen egin. Gure adimenerako misterioa eta izumena, beldurrezko mundu ezezaguna zen hura. Ertzean gelditu ginen beraz. Beldurra genuen. Suaren Gizonen oihuak geroz eta hurbilago ari ziren iristen. Elkarri begiratu genion. Aurpegi Bizardun, zingira gaintetik lasterka eginez, handik hogeita hamarren bat pausura zegoen belar-tontorrera iritsi zen. Emazteak ez zion jarraitu. Ahalegindu zen, baina zingiradiaren azal engainakorrak atzera itzularazi eta beldurrez kuzkuratu zen.

Zaluk ez zidan itxaron, eta Belarri Makur baino ehunen bat metro harago tontor zabalago batera irisi arte ez zen gelditu. Belarri Makur eta biok haren ondoraino iritsi ginen une berean azaldu ziren zuhaitzen artetik Suaren Gizonak. Aurpegi Bizardunen emaztea, haiek ikustean izuturik, gure atzetik abiatu zen. Baina itsu-itsuan eta kontu hartu gabe zebilen; zingiradiaren azal gogorra hautsi zuen. Guk biratu eta begiratu egin genuen, eta lokatzetan hondoratuz zihoala Suaren Gizonak geziz jotzen zutela ikusi genuen. Geziak inguruan erortzen hasi zitzaizkigun. Aurpegi Bizardun gurekin batuta zegoen orain, eta aurrera jarraitu genuen laurok, noraezean, istingadian barrena.

XVIII. KAPITULUA

Padura zabal haietan hara hona egin genituen ibilien oroitzapen zehatzik ez dut. Gogoratzen ahalegintzen naizenean, loturarik gabeko inpresio solte pila bat baizik ez dut izaten, eta denboraren zentzua ere galdu egiten dut. Ez dakit zenbat denbora ibili ginen zingira haietan, baina asteak, inondik ere. Han gertatuez dudan oroitzapenak amesgaiztoaren itxura du beti. Badakit ezin kalkulatzeko denbora batez ibili ginela, era askotako izuen mende, batera eta bestera, gelditu gabe ibili eta ibili, eremu heze, urez hanpatu batean, suge pozoitsuen erasopean, basapiztiak inguruan orroka, lokatza gure azpian zabaltzen eta aztaletaraino hurrupatzen gintuela.

Gogoan dut ezin konta ahala aldiz desbideratu gintuztela ibaiek, aintzirek, lokatz-itsasoek. Ekaitzak eta uholdeak ere izan ziren, behe-lurretako eremu zabaletan; eta baita gose eta miseriaaldiak ere, aldikako uholde horiek zuhaitzetan preso egotera behartzen gintuztenean. Badut irudi bat gogorki markatua. Zuhaitz handiak gure inguruan, eta haien adarretatik zintzilik goroldio-hari arreak, eta aiena luzeak zintzilik, munstrozko sugeak bailiran, enborrak inguratuz eta airean mataza estuan kiribilkaturik. Eta inguru guztian lokatza, lokatz biguna, gas-burbuilak isuriz eta barneko mugimenduz taupaka eta zizpuruka. Eta horren guztiaren erdian, gutako dozena bat lagun, argal eta errukarri, azal tenkatuaren azpitik hezurak agerian ditugula. Ez dugu abesten, ez hitz egiten, ez barre egiten. Ez dugu txantxarik egiten. Behingoz gure espiritu aldakor eta euforikoak lur jota daude. Kexuz intzirika egiten dugu; elkarri begiratzen diogu, eta elkarren kontra estutzen gara. Munduaren azken egunaren ondoren bizirik dirautenen topaketa bezalaxe da.

Koadro honek ez du zerikusirik zingiradian gertatu ziren gertaeren gainerako inpresioekin. Ez dakit nola moldatuko ginen hura gurutzatzeko, baina azkenean atera ginen, ibai-bazterreraino jaisten zen muino zerrenda baten ondoan. Gure ibaia zen, gu bezalaxe zingira handi hartatik ateratzen. Hegoaldeko ertzean, ibaiak muino artean bidea egiten zuen lekuan, hareharrizko haitzulo pila bat aurkitu genuen. Harago, mendebalderantz, itsasoak orroka ziharduen ibai-bokaleko barraren kontra. Hantxe, haitzulo haietan, kokatu genuen gure bizilekua, itsasotik hurbil.

Ez ginen asko. Aldian behin, egunak joan ahala, taldeko beste batzuk azalduz joan ziren. Banan-banan, binaka, hirunaka ateratzen ziren zingiratik, bizirik baino hilda areago, eskeleto biziak, azkenean hogeita hamarren bat bildu ginen arte. Zingiratik ez zen gehiago azaldu, eta Begi Gori ez zegoen gurekin. Kontuan hartzekoa da beldurgarrizko bidaia haietatik haur bat ere ez zela bizirik geratu.

Itsasertzean egin genituen urteez ez dizuet ezer esango. Ez zen bizileku pozgarria. Aire hezea eta hotza zen, eta eztulka eta hotzak egoten ginen beti. Inguru hartan ezingo ginen luzaro bizi. Haurrak izan genituen, egia da hori; baina bizibide gutxi zuten eta oso gazterik hiltzen ziren, eta gu ere haurrak jaio baino bizkorrago hiltzen ginen. Gure kopurua etengabe urrituz zihoan. Eta erabateko elikadura-aldaketa ez zen ona guretzat. Jateko landare eta fruitu gutxi aurkitzen genuen, eta arrain-jaleak bihurtu ginen. Muskuiluak, txirlak, lapak, itsas belarriak, eta itsasoko

karramarro handi ugari izaten zen, itsasoak ekaitz-egunetan hondartzara botata. Jateko onak ziren zenbait itsasbelar mota ere aurkitzen genituen. Baina janari-aldaketak urdaileko minak eragiten zizkigun, eta inor ez zen gizentzen. Denak argalak geunden eta dispeptiko itxura genuen. Belarri Makur goiz batean desagertu zen, itsas belarrien bila joanda. Belarri haietako bat itxi eta behatzak harrapatu zizkion, eta itsasgora etorri eta ito egin zuen. Hurrengo egunean aurkitu genuen haren gorputza, eta lezio ona izan zen guretzat. Gutako beste inor ez zen berriro geratu itsas belarriaren oskolak harrapatuta.

Zaluk eta biok bion haurra genuen bat haztea lortu genuen: mutiko bat; urte batzuetan behintzat hazi genuen. Baina seguru nago ez zuela bizirik iraungo hain klima kaltegarri hartan. Eta egun batean berriro azaldu ziren Suaren Gizonak. Ibaian behera etorri ziren, ez katamaran batean, kanoa oies batean baizik. Hiru arraunlari ziren, eta ehiztari xahar beldurgarri huraxe zen haietako bat. Gure hondartzan lehorreratu ziren, eta ehiztari zaharra herrenka etorri eta gure zuloak begiraten aritu zen.

Minutu batzuk eginda, alde egin zuten, baina Zalu beldurrak akabatzen zegoen. Denok geunden beldurrez, baina ez hura adina. Gau osoa igaro zuen negarrez eta zotinka. Hurrengo goizean haurra besoetan hartu eta bere oihuez, garrasiez, keinuez eta bere etsenpluaz bigarren aldiz ihes egitera behartu ninduen. Zortzi lagun (gure behinolako taldetik geratzen ziren bakarrak) geratu ziren haitzuloetan. Haientzat esperantzarik ez zegoen. Suaren Gizonak itzultzen ez baziren ere, handik gutxira hilko ziren. Itsasbazter hartan oso klima txarra egiten zuen. Gure taldea ez zegoen itsasbazterrean bizitzeko prestatuta.

Hegoalderantz jo genuen, zenbait egunez zingira handiaren ertzetatik, baina hartan sartzen arriskatu gabe. Behin sartalderantz jo genuen, mendi sail bat igaro eta berriro itsasbazterreara jaitsiz. Baina ez zen guretzako lekua. Ez zegoen zuhaitzik, lurmutur gozakaitzak besterik ez, olatu zaratatsuak eta inoiz baretu behar zuenik ez zirudien haize bortitza. Berriro igaro genituen mendiak, sortalderantz eta mendebalderantz jarraituz, berriro zingira handira itzuli ginen arte.

Berehalaxe iritsi ginen zingiraren hegoaldeko ertzera, eta hegoalderantz eta sortalderantz jarraitu genuen. Lurralde atsegina zen. Airea epela zen, eta oihanean geunden berriro. Geroago muino ilara apal bat igaro genuen eta oihan-eremu oraindik ere hobe bat topatu genuen. Zenbat eta itsas bazterretik barrualderago, beroago egiten zuen, eta aurrera jarraitu genuen, harik eta itxuraz Zaluk ezagutzen zuen ibai zabal batera iritsi ginen arte. Hara joan zen nonbait, taldetik falta izan zen lau urteetan. Enbor gainean igaro genuen ibaia, eta labar zabal baten oinean lehorreratu ginen. Labarraren gorenean beste bizileku bat aurkitu genuen, iristen oso zaila eta behetik begiratuta ia ezkutua.

Ez zait askorik geratzen kontatzeko. Han bizi izan ginen Zalu eta biok, eta han hazi genuen gure familia. Eta hemen bukatzen dira nire oroitzapenak. Ez genuen berriro emigratu. Eta gure haitzulo goititu eta iristezin hartatik aurrerako ametsik ez dut egiten. Han jaio zen nonbait nire ametsetako gaien herentzia jaso zuen haurra, nire bizitzako inpresio guztiak edo, hobeto esateko, Hortz-Handiren bizitzakoak, bere baitaratu zituena, nire beste ni bat baita, ez neu, egiazko ni hau, baina hain erreala hala ere, non askotan ez bainaiz gauza izaten zein arotan bizi naizen esateko.

Askotan pentsatu izan dut nire ondore-ildo horretaz. Ni, ni moderno hau, gizakia naiz zalantzarik gabe; baina ni, Hortz-Handi, ni primitibo hau ez naiz gizakia. Nire nortasun bikoitzaren bi osagarriok izan behar dute nonbait lotura, eta zuzeneko ildotik gainera. Gure taldea, desegin baino lehen, gizaki bilakatzeko bidean zegoen? Eta guk, neuk eta nitarrek, egin ote genuen bide hori? Beste alde batetik, ez ote zen elkartuko nire ondorengoetakoren bat Suaren Gizonekin eta haietako bat bihurtu? Ez dakit. Ez dago jakiteko modurik. Gauza bat dago segurua: Hortz-Handik bere bizitzako inpresio guztiak markatu zituela bere ondorengo baten garunean, eta hain ezin ezabatuzko moduan markatu ere, non geroztiko belaunaldi guztiak ez baitira gauza izan haiek ezabatzeko.

Bada beste gauza bat ere bukatu baino lehen esan nahi dudana. Askotan izan dudan amets bat da, eta labarreko haitzulo garai, ezin iritsizko hartan bizi izan nintzen garaian gertatu bide zen. Gogoan dut noraezean nindoala sartaldeko oihanean. Zuhaitzetako Gizonen tribu batekin topo egin nuen. Sastraka batzuen atzean kuzkurtu, eta haien jolasei begira geratu nintzen. Barrez, jauzika eta zilipurdika, lelo basati batzuk basatien gisan oihukatzen ari ziren, denak batera.

Horretan beren zaratak eta jauziak gelditu zituzten. Izaturik kuzkurtu ziren, eta antsiar begiratzen zuten ingurura ihesbideren baten bila. Orduan, Begi Gori azaldu zen. Ihes egiten zioten, kuzkurtuta. Denak beldurrez zeuden. Begi Gorik ez zien inolako gaitzik egin nahi izan. Haien artekoa zen. Haren atzean, hanka ihar okertuen gainean, ibiltzeko alde bakoitzean txandaka hatz koskoak lurrean jarriz, Zuhaitzetako Gizonetako eme zahar bat zihoan. Begi Gori biribilaren erdian eseri zen. Ikusten ari naiz oraintxe ere, hau idazten ari naizenean, bekozkoa zimurturik, begiak gori, Zuhaitzetako Gizonen biribilari begiratzen. Eta begiratu bitartean, bere ikaragarritzko hanka kaketua okertzen du eta bere behatz bihurrituaz hazka egiten du sabelean... Begi Gori da, atabismoa.

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA

II. KAPITULUA

III. KAPITULUA

IV. KAPITULUA

V. KAPITULUA

VI. KAPITULUA

VII. KAPITULUA

VIII. KAPITULUA

IX. KAPITULUA

X. KAPITULUA

XI. KAPITULUA

XII. KAPITULUA

XIII. KAPITULUA

XIV. KAPITULUA

XV. KAPITULUA

XVI. KAPITULUA

XVII. KAPITULUA

XVIII. KAPITULUA